

ALBERT MEMMI

# KOLONIZATUAREN EZAGUGARRIA

Euskaratzaile:  
LARRESORO

J A K I N

ARANTZAZU

OINATI, 1974

JAKIN liburua sortea (13)

Zuzendaria: Joseba Intxausti

© ED. FRANCISCANA ARANZAZU

Dep. Legal: S.S. 605/1974

NUMERO REGISTRO 1.692

I.S.B.N. 84-7240-076-X

---

Impreso en Lit. Alvarez Iraola - Barrio Igara - San Sebastián 1974

# Aurkibidea

Hitzaurrea	7
Jean Paul Sartre-ren Hitzaurrea	19
<b>KOLONIZATZAILEAREN EZAGUGARRIA</b>	<b>27</b>
I. <i>Koloni-gizonik ba abal dago?</i>	27
Koloni-bidaiaren funtsa	27
Lapurra	32
Kolonizatzaile txikia	33
Kolonikuntzaren beste liluraketak	36
Koloni-gizonengandik kolonizatzaileagana	40
II. <i>Ezezkoa erabaki duen kolonizatzailea</i>	43
Borondate oneko kolonizatzailea	43
... eta haren arazoak	44
Politika eta borondate oneko kolonizatzailea	50
Abertzaletasuna eta ezkerria	51
Iheslea	57
Ezertar kolonizatzailearen ezintasuna	61

III.	<i>Bere burua ontzat ematen duen kolonizatzailea</i> ... ..	67
	... kolonialista, alegia ... ..	67
	Eskaskeria ... ..	70
	Neron-en konplejoa ... ..	73
	Bi irudiak ... ..	76
	Bere buruaren erdainua ... ..	77
	Abertzalea ... ..	78
	Kontserbakorra ... ..	81
	Fazismoaren zirikaldia ... ..	82
	Metropoliaren kontrako hisia ... ..	84
	Kolonizatuaren arbuioa ... ..	85
	Arrazakeria ... ..	88
	Norberaren barkazioa ... ..	93
KOLONIZATUAREN EZAGUGARRIA ... ..		95
I.	<i>Kolonizatuaren mitozko irudia</i> ... ..	95
	Mitoaren jaiotza ... ..	95
	Desgizakuntza ... ..	99
	Gezuraraketa ... ..	102
II.	<i>Kolonizatuaren egoera</i> ... ..	105
	Kolonizatua eta kondaira ... ..	107
	... kolonizatua eta erresuma ... ..	109
	Babes-baloreak ... ..	112
	Kultur-ahanzketa ... ..	114
	Kolonizatuaren eskola ... ..	116
	Kolonietako bimintzairatasuna... ..	117
	... eta idazlearen egoera ... ..	119
	Gabeziatzko izana ... ..	122
III.	<i>Kolonizatuaren bi erantzunak</i> ... ..	129
	Kolonizatzailearekiko maitasuna eta bere buruarekiko herra ... ..	131
	Asimilazioaren ezintasunak ... ..	133
	Jazarpena ... ..	136
	... eta kolonizatzailearen arbuioa ... ..	137
	Norberaren sendoketa eta finkaera ... ..	141
	Norberaren sendoketaren zalantzakeriak ... ..	144
	Norbere buruarekiko arteka ... ..	148
Ondoricak ... ..		149
Hiztegia ... ..		157

## HITZAURREA

1966ko Argitaraketarentzat egileak prestatutakoa

*Liburu honen funtsari eta ekarriari hastapenetik beretik antzeman niela esango banu, gezurrez mintzatuko nintzateke. Lehendabizikorik nobela bat idatzi nuen: "La Statue de Sel" (=Gatzezko Imajina); eta honetan neure buruan barrena garbiago ikusi nahirik, norki nagusiaren biziera eta gorabeherak azaldu nituen.*

*Alderantziz, ordea, Ipar Afrikako gizonak giza-biziera oso eta beterik ezin mamitzea agertu zitzaidan na-*

*barmen; eta, desarrazako ezkontza gurutzatuan soluzioa bilatzera bota ninduen ezintasun horrek.*

*"Agar" izkiriatu nuen horretara, baina hau ere frakasutan bukatu zen.*

*Bikotean ezarri nituen orduan neure begiak, baita esperantza gaitzak ere; gizonaren zorion-oinarririk zindonetako bat horixe baitzitzaidan agian, gaur zaidan bezala, eta bakardadearen kontrako erremedio bakarra eta egiazkoa.*

*Baina berehala ulertu nuen ez dela bikotea ere zelula bakan bat, bere buruz ari, edo munduaren erdian abazturik legokeen hozkirri-oasi bat. Alderantziz arrunt, hain zuzen, bikotean dago mundu guztia.*

*Hots, ene gizauren eta umant zoritxarrekoen mundua, kolonizatuen mundua zen; eta haien menturaren hutsegina, koloni-bikote gurutzatuarena, arrazako bakuntasunetik atekoa, konprenitu nahi izanez gero, Kolonizatzailea eta Kolonizatua konprenitu behar aurretik; baita, beharbada, koloni-egoera eta harremanak osoan hartuta.*

*Honek guztiak neure burutik eta neure bizi-arazoetatik urrutira jaurti ninduen. Azalpena itzuri egiten zitzaidan behin eta berriz; eta, non edo zertan bukatuko nuen jakin ez arren, eta horrelako baldinkera korapilotsu bat zeharo ikertzeko asmorik ere gabe, gutxienez amaiera bat ezarri nahi nion neure ezinegonari.*

*Bilatu eta mamitu dudan "Erretratu" edo Ezagugarri hau, ordea, aurrenik Zapaldua zapaldu gisa presentatzen kotan moldatu nuela esango banu, era berean, gezur esango nuke. Egia esan, hau bai, egunen batez Zantatuaren ezagugarri orokorra eta zabala egingo dut.*

*Baina, hain zuzen ere, guztiz zabala eta jenerala egin nahi nuke; alegia, sintesi-erretratu bat egin nahi nuke, irudi osatzaile bat, zenbait ezagugarri-ilara zehatz nahi nuke bildu eta borobildu, zantatu desberdin batzuen erretratu zatikorren erasketaz prestatuz. Uste dudanez, beste guztiak behar ditu aurrenik zantatu eskuarraren irudi funtsezkoak; eta hau zenbait filosofok uste due-*

naren kontra diot; ezen ezagugarri jeneral horrek ez baititu gero, kondairaren mailan, aurki daitezkeenak mamitzen eta obratzen, itzuletara baizik. Beroiek uste dutenez, ezagugarriok izpirituaren ideiazko sorkaritzat daukate; eta, hortaz, horietaz baliaturik joan uste dute ideietatik egiazkora. Hots, oso maiz, haietxek dira aitortu nahi ez den egiazkoaren ideiakuntza soila.

Nolanahi ere, garai hartan ez nuen nik zapalduak oro azaltzeko asmo izpirik, ezta Kolonizatu guztiak ere batera biltzekorik. Tunexitarra nintzen, hori bai; eta, hortaz, kolonizatu nintzen. Eta honetaz jabetu nintzen orduan: dato horrek ia ene biziaren eta nortasunaren sailak oro ikutuak eta aldatuak zituela. Ez ene pentsaera, ene grinak eta joerak, ene jokabidea soilki, baina baita besteek eni buruz zeukatzen jokabidea ere.

Ikasle gaztetan Sorbona-ra lehenengo aldiz iritsi nintzenean, kezkatu jarri ninduen anitz zurrumurruk: "Tunexitarra izanik, ba ote nuen nik filosofi-gradoa prestatzeko eskubiderik?". Azterketa-Burua ikustera joan nintzen: "Izan ere ez da eskubide bat —azaldu zidan— baina... desira bat". Eta, zalantzan eta legegizona zenez hitz zehatzak bilatzen zituela, hau erantsi zuen: "koloni-desira bat dela esan dezagun". Oraindik ere ez dakit xuxen hitz haiek zer adierazi nahi zuten; baina ez nuen besterik ezer lortu gizon hargandik; eta, aisa soma daitekeen, har gaitza eraman nuen nik neure erraietan ikastaro guztian barrena.

Hitz batez, Kolonizatuaren egoeraren ezagupideak neure buruan biltzetik hasi nintzen, eta neure lekua beste gizonen erdian bilatzetik. Iraukurleek sinets arazi didate gero erretratu hau berena zutela. Eta tunexitarrak ez ziren denak gero. Piskanaka piskanaka, bidaiek, elkarrizketek, eztabaidek eta irakurpenek beste iritzi honetara ekarri ninduten: alegia, nik azaldutakoa mundu guztiko anitz gizonen zoria bera zela.

Horrela, beraz, kolonizatu guztiak elkarren antz handia zutela ulertu nuen; eta, oraindik ere beranduago,

zanpatu guztiek ere hein batean bederen badiruditela elkar.

Ez nintzen halere oraindik horretan: zuhurtziagatik batetik, eta buruan beste katramilarik eta burubausterik banuelako bestetik, gerorako utzia nuen ondorio hori. Baina gaur segurutzat daukat. Ezagugarri honetan horrenbeste jendek bere burua somaturik, ezin nezakeen pentsa neurea ez besterena zenik; edo tuneztar kolonizatuarena edo ipar-afrikatarrarena bakarrik. Hemen eta han eta leku guztietan burrukari kolonizatuen geletan harrapatu dute liburu hau koloni-politziek. Berok ez zekitenik edo bizi ez zutenik deus ez nien nik eramaten. Baina ene lerroetan, beren zauskadak, beren bihozkadak, beren amorrak eta eskabideak aurkiturik, zuzenagotzat zeuzkaten nik uste.

Eta, batez ere, batera izan dugun esperentzia horren azalpenaren zehatza edo xuxena nolanahikoa izanagatik ere, beharbada axalkiago hunkitu zituzkeen azalpenaren zehaztasun horrek, nik proposatutako azalpenaren batasunak edo osotasunak baino. Aljeriako gudua hasteko zorian zenean (baita gero hasi ere) neure buruari iragarri nion lehendabizi gertakarien segidarik seguruen, eta gero barreiatu nuen hori lau haizeetara, eta ezagutarazi. Mugatzen eta ulertzen saiatu nintzen kolonikuntzak, ezin etenezko loturan estekatzen bide zituen Kolonizatzailea eta Kolonizatua, honen eta haren ezagugarriak moldatzen, eta denon jokabideak hartaritzen.

Kolonikuntzaren bi ekile nagusien artean elkar-jokabidearen lojika bat ere bazegoen; eta, iruditzen zitzaidanez, honek menpekotasuneko lotura haren urratzera eta desegitera eraman behar zuen. Arrunt zuzenetsi zuten gero Aljeriako gertakariak ikuskera haren egia; eta gero egoera ere, beste koloni-egoeraren suntsiera aztertzean, neure ikuskera haren egia xuxena frogaturik aurkitu dut behin eta berriz.

Anitz gertakari ezagutu nuen nik haurtzaroan; eta, edonola ere, nabiz itxuraz hauek elkarren ukatzaile eta funsgabe izan, dinamikaren araberako multzotan pilatu



bezala egiten ziren. Nola zitekeen —nion nik neure kolonizatuak— kolonizatzaileak langileak zaintzea, eta aldioro ere berberak kolonizatu-osteak metrailetaz errezebitzea? Nola zitekeen kolonizatuak batera bere burua horren ankerki ukatzea eta horren ahulki eskeintzea? Nola zitekeen kolonizatzailea errotik gorrotatzea, eta bihotzaren erditik ere —baita neure buruan somatzen nuen mirespenaz— mirestea?

Neronek behar nuen, beraz, hori guztia garbitzeko eta argitzeko beharra. Neure sendimenduak eta ideiak taxutu behar nituen, neure jokabidea agian haien arabera egokituz. Sorkuraz eta heziketat, egia da, hertsiki egin behar nuen ikertzapen hori; eta ondorioak ahalik eta urrutien atera.

Bide erdian gelditu banintz, dato guztiak kontutan hartu ez banitu, oinarri horiek guztiok elkartzen eta ezkontzen saiatu ez banintz, eta lan horren buruan bildutakoa, elkarrekiko paratuz eta mamituz, Iduri edo erretratutara bildurik eman ez banu, ez nukeen neure burua batere bete; eta batez ere neure buruaz etsi nukeen.

Horrekin batera, bestalde, zapalduen mixerien, lotsagorrien eta benetako zanpaketen azalpen hutsa, hertsiki eta taxuz egina izanez gero, burrukan ari ziren gizonei norainoko lagungarri gaitza izan zekiekeen somatzen hasi nintzen. Orduan hasi nintzen erreparatzen, berez leherkorra den koloni-egoeraren azalpena bera, bai Kolonizatuaren bai Kolonizatzailearen kontzientzia argituari, lehergarri gerta zekiokela. Bazirudien beroien ibilbideen patuaren argitzapenak beharrago egiten zuela burruka-beharrara, eta etsaiaren gelditu-nahia askoz ere alferago eta etsiago. Hitz batez, liburuak eskuetatik egin zidan ihes.

Pitin bat bildurtu nintzela aitortuko ahal dut? Kolonizaturik nabarmenenek erabili ondoren (alegia, Aljeriarrek, Marrokarrek eta Afrikako beltzek) bestela zapatutako bestelako gizon zapalduak aipatua, onartua eta

*erabilia izan zen: Hego-Ameriketako batzuek, Japon-darrek eta Amerikar beltzek, esate baterako.*

*Frantses-canadarrak izan dira azkenekoak; eta, sinets arazi didatenez, beren alienazioaren kakoa eta funtsa bera aurkitu dute askotan ene azalpen hauetan. Jakina: harriturik ikusi dut neure liburua bere buruz bizitzen ari, pitin bat, nik uste, aita batek bere semea ospean barrena (baina eskandaloa eta txaloak nahasirik) abiatzen ikusten duenean bezalatsu.*

*Dena ez da ene fagoretan gertatu; zeren-eta, honen beste txalo-hotsetan, oso maite nituen pasarte batzuk ez baitira ohartu ere egin. Honela, gonbarazio batera, Neron-en konplejo izenaz bataiatu dudan sendimendua; koloni-egoerari buruz eman uste dudan ulerkera berezia, alegia, gauzazko baldintza objetibo bat dela, eta horrelakoa delako besterik ezinean nagusitzen zaiela kolonizatua-ren bi alderdikoei. Ez da aski erreparatua izan ere, ene ustez, arrazakeriaz eman dudan azalpen berria; alegia, talde batek beste talde baten gainean daukan nagusigo-harreman gisa; ezta europar ezkerren frakasuz (eta komunistenaz batez ere sail honetan) eskaini dudan azterketa: alegia, koloni-herrietan naziotasuneko muina behin eta berriz gutxietsi dela. Eta, denaz gain, ez da aski estimatu, nik uste, bizitua izan den ene lekukotasun eta esperentzia honen balio aparta.*

*Ezen, nolanahi ere, eta ene ustez bederen, ene saio honen azken balioa, haserako haren apaltasuna eta herztasuna bera baita. Izkribu honetan ezer ez dago asma-turik edo ausarkiegi estrapolaturik. Beti ere bizi-izana dago oinarri, esperentzia, gertakaria, molde honetan edo hartan jarririk, hislaturik edo estilizaturik beharbada; baina esakun bakoitzaren funtsaren euskarri. Eta, azkenean, jeneralitasun itxura hori hartzera utzi badut ere, horrengatik utzi dut: esanen laguntzan eta lekuko, lerro bakoitzean, hitz bakoitzean, idatzitako hori anitz gertakari xebez eta zehatzez funtsa nezakeelako.*

*Hori dela-ta, neure Ezagugarri hauek ekonomi-egituretan zeharo ez funtsatu izana egotzi zait batzutan. Ho-*

*bariaren ideia, pribilejioaren ideia alegia, neronek behin eta berriz esan dudanez, koloni-harremanaren bihotzean dago.*

*Ekonomi-abantaila eta hobaria, bai, dudarik gabe; eta berriro ere goraki esateko aukera baliatuko dut: funtsezko deritzadala nik kolonikuntzaren ekonomi-aurpegiari. Liburua ez ahal da, bada, hain zuzen gogoeta horretatik hasi? Hastapenetik kolonikuntzaren sasi-betekizun moralak eta kulturalak oso salatu ditut; eta, haien ordez, diru-etekinak eta hobariak bilatu beharra dagoela idatzi (1).*

*Kolonizatuaren gabezia asko, Kolonizatzailearen abantailen ia ondorio soil dela ager erazi dut neronek. Ez ahal da egia? Ez ahal gara bada egun hauetan ikusten ari, deskolonikuntza mordo bat horren nekez aurreratzen? Eta ez ahal da horren giltzarria, kolonizatzaile obiak ez dituela bere hobariak eta maukak egiazki utzi nahi, eta onetara berriz biltzen saiatzen dela? Halaz ere, koloni-nagusikeria ez da ekonomikoa bakarrik. Kolonizatzailea eta Kolonizatua bizitzen ikusten direnean, berehala uler-tzen da hau: Kolonizatuak egunero jasaten duen mespretxua eta gutxiespena, haren zapalkuntza objetiboa, ez direla ekonomikoak soilki. Kolonizatzaile apalak, kolonizatzaile txiroak, halakoa ez izanik ere, Kolonizatua baino gorago jotzen zuen bere burua; eta, izan, bazen gorago hein batez. Egiazki zen gorago, eta ez irudimenez bakarrik. Eta hau koloni-nagusikeriaren parte bat da. Marxismoaren irakaspén nagusia, alegia nolanahiko zapalketa-harremanetan ekonomiak duen inportantzia, ez dago zalantzan. Baina harreman horretan badago besterik ere, eta nik bigarren parte hori aurkitu dudala uste dut.*

*Baliteke halaz ere hau esatea: azken funtsean eta erroetaraz gero, ez ote dira fenomeno horiek guztiak izkutuan datzan ekonomiazko gakoaren aurpegi axala?*

(1) «Kolonikuntza —esan dut— politikazko eta ekonomiazko uxtiakuntza bat da» (orr.). Baina hau ere erantsiz: kolonikuntzan ez dagoela KLASEEN ARTEKO harremanik, HERRIEN ARTEKO HARREMAN BAT baizik. Eta, hain zuzen ere, hauxe dela koloni-zapalketaren ezagugarri BEREZIA». (1972ko Oharra).

Edo, beste honetara esateko, ez ote da ekonomi-alderdia kolonikuntzaren lehen eragilea? Baliteke; baina segurua ere ez da. Funtsean eta jakinik, gizona zer ote den ez dakigu. Ez dakigu zein duen eragile nagusitzat; ez dakigu dirua den ala setsua den, ala harrokeria; ez dakigu psikanalisiak ez ote duen egia marxismoaren kontra, ezta hori horrela izatea ala ez izatea ez ote den pertsonen eta gizartearen arabera.

Eta, nolabehere ere, eta azken bururaino iritsi gabe, Kolonizatuak eta Kolonizatzaileak bizitzen eta jasaten duten gertaeraren zaila ager erazi nahi izan dut lehendabizikorik. Psikanalisiak eta marxismoak, giza-jokabideen errotikako eragilea aurkitu dutela bide (edo inportantee-netako bat bederen) ez dute bizi-izana eta jasana den giza-esperentzia hustu behar, sendimenduak, sofrikariak eta jokabide-okerguneak oro erauzi; eta, nola edo hala, denetan diru-gosea edo Edipo-ren konplejoa baizik ezin atzeman.

Neronen kaltetan izango bada ere, beste adibide bat hautatuko dut. (Hain zuzen: honela ikusten baitut nik neure idazle-betekizuna, baita neronen aurka denean ere). Kolonizatuaren Erretratu hori neronena da aski; eta aurretik badago Kolonizatzailearen erretratu bat. Nola ausartu ote naiz, hortaz, ezagututakoaz eta bizi-izanaz kanpo ezer idatzi nahi ez izanik, etsaiaren erretratua ere moldatzen? Eta hona hemen orain arte egin ez nuen aitor berri bat: egia esateko, barnetik eta ia-ia bestea bezain ongi ezagutzen bainuen nik Kolonizatzailea ere. Argitu egingo dut hau.

Tunexzitarra nintzela esana dut. Gainerako tunexzta guztiak bezala, bigarren mailako herritartzat hartua nintzen, politikazko eskubiderik ez nuen, administraziorik gehienak debekaturik zeuden enetzako, luzaroan ene bimitzairatasuna ez zen oso irmoa izan, eta abar. Hitz batez: begira Kolonizatuaren Irudia.

Musulmana ez nintzen, ordea. Eta honek, horrenbeste herri desberdin elkarren ondoan bizi zen herrialde hartan (denok beren nortasun bereziaz oso harro) garrantzi eta

pisu handia zuen. Zalantzarik gabe bertako seme nintzen ni; eta, alde horretatik, gure txiroen mixeria gorriaren aldetik, etxeko bizkuntzaren aldetik (neronen amak ez baitu sekulan frantsesez ikasi) abal denik eta hurbilenik nintzen musulmanengandik. Sendikeraren eta obituren aldetik, berriz, musikaren eta urrinen aldetik, ia berdinak ziren sukaldeen kidesunaren aldetik, osoki frantses bilakatzen saiatu nintzen neure ahaleginean.

Egiazko kultura eta zibilizazio guztien eredia iruditzen zitzaidan Mendebaldea; eta Mendebalderuntz bultzatzen ninduen irizpide horrek azkarki. Alaiki, horrela, alde batera utzi nuen Ekaldea, frantses bizkuntza hautatu nuen deliberatuki, italiar modura jantzi nintzen, eta pozarren onartu eta kopiatu nituen baita europarren keinuak berak ere. (Horrela jokatzuz, gainera, iraultzan abiatu baino lehenago, Kolonizatu guztiek hartu izan duten helburua betetzen saiatu nintzen).

Areago oraindik, eta okerrago nahiago baldin bada: azaltzen saiatu naizen jauntxo-piramide horretan (edozein koloni-gizartetan habe nagusi) gure musulman herrikide baino goraxeago gertatu ginen. Gure abantailak hutsaren hurrena ziren, noski; baina halako hantuste-apur bat ematen ziguten, eta musulman kolonizatu gizajo haiekin batera gu jartzerik ez zegoela uste genuen, beroiek piramidearen azken zola osatzen zutelako. Honek, hain zuzen, bidenabar aitor dezadan, ez ditu gauzak gero batere erraztu; eta Kolonizatuen alde jokatzeko hasi nintzenean, hastapen zailak izan nituen. Laburzki esateko, beraz, nahiz eneentzako horren gogorra ez izan, kolonikuntza salatu beharra nitzaz nagusitu bada ere, eta horren-gatixek bereziki, gure arimak astindu dituzten bi sendimendu aurkari horiek ezagutu ditut. Ez ote zen, bada, ene bihotza asaldatzen, Marseilla eta Tunez lotzen zituzten Compagnie Générale des Transports delakoaren ontziek ikurrina (urdin — zuri — gorri) haizean kulunka ikusten nuenean?

Horren guztiaren bidez hauxe adierazi nahi dut: Kolonizatzailearen erretratu hori hein batez neronena

dela; edo, topografoek liotekeen bezala, ene erretratuaren proiezio bat dela.

Kolonizatzaile prestuaren irudia batez ere, onginabiarrena. Honen irudia mamitzeko, Tunezko filosofi-irakasle multzo bat hartu dut gidari (denok izan ditut adiskide eta lankide, eta denok ziren segurki borondate oneko). Hauen onginabia ez zen dudakoa baina ezintasuna ere ez txikiagoa: ezin zezaketen deusik ere entzun erazi kolonian.

Hots, horietxen artean antzematen nuen hobekienik neure burua. Alde guztietatik kolonikuntzaren mitoak salatzen nituen honek, pozez onar ote nitzake Kolonizatuen inguruan mamitutako kontra-mitoak? Irribarrez bai, baina ez bestela, entzun nezakeen nik Andaluzia-ko musika munduan ederrena dela; edo, alderantziz, Europarra berez dela gogorra eta gaiztoa: ikusi besterik ez omen zen haurrak zeinen gogorki hartzen dituen. Honen ondorioa, ordea, Kolonizatuaren susmo txarrak izaten ziren; eta Kolonizatzaile onginahi haien borondatea ona izanagatik, frantses multzoak jadanik zituen gorroto.

Hori guztia, ordea, biziki ongi ezagutzen nuen nik, biziki ongi ezagutzen nituen haien kezkak eta arazoak, baita haien ezinbesteko zalantzak eta bakardadeak; oso ongi ere ekintzari buruz zuten ezintasuna, batez beste neronena. (Halako batez, esate baterako, frantses gobernaria zeharo zoratu zen zurrumurrua hedatu zen Medina-n barrena, eta zabalkunde hari arrisku-bide eta alferrikako neritzalako, egundoko kalapita gertatu zitzaidan).

Urrutirago joan beharko ote dut? Funtsean ontzat ez emanik ere, Zango Beltza bera ulertzen nuen nik, sendimenduetan eta pentsaeran zitekeenik eta xinpleena ere bai. Anitz aldiz errana dut: inguramendu objetiboak egiten du gizona. Kolonikuntzaz areago baliatu izan banintz, pentsatu obi nuen, honen azkarki kondenatu ote nukeen? Baietz sinetsi nahi nuke; baina besteek baino gutxixeago jasan dudalako, hemen nauzue: ulerkorrago eta bigunago.

Hitz batez: Zango Beltzetan astakiloena, kaskagorrena eta itsuena bera, ene anaia izan da jaiotzean. Biziak hartu gaitu bestela. Hura Metropoliaren seme kuttuna zen, abantailen hartzekoduna; eta edozein preziotan defendituko zuen egoera hura, baita lotsagarrikerietan eroriz. Nik, berriz, kolonikuntzaren xarneguak edo, denak konprenitzen nituen; baina inork ez ninduen bereetan kondatzen.

Eta sobera luzatzen ari den aurkezkuntza hau amaitzekotan, azken hitz bat.

Liburu hau kezka eta amorruez hartua izan bada ere, maila berean pozkarioz errezebitua izan da. Alde batetik, nabarmenkeria eta probokazio lotsagaldu bat antzeman da; bestetik, berriz, ikurrin bat. Ados ziren denak puntu batetan; iskilu bat dela liburu hau, kolonikuntzaren kontrako gataska-lanabes bat; eta horixe bihurtu da, egia esan.

Baina irrigarri zait enea ez zen kuraiatz eta ausardiaz gaur harrotzea, edo sekula burutu ez ditudan arrakestehantzea. Esan dudanez, sanoak ziren ene asmoak liburu hau idazterakoan, sanoak hein batez bederen: besterik gabe, kolonikuntzaren harremanak eta lotkiak konprenitu nahi nituen, horretan bainengoen ni zeharo trabaturik eta estekaturik. Ez dut ukatzen beti ere filosofi mota berberak atxiki eta argitu nauela, eta ene bilaketa honi eta ene bizi guztiari kolore berezia eman diola: zapalkuntza guztien kontra nago osoki. Giza-baldintzaren izurrite nagusia zapalkuntzan somatu uste dut, gizonaren indarrik onenak makurtzen eta lardaskatzen baititu. Denak hondatzen, bestalde, gero ageriko denez: bai Kolonizatua, bai kolonizatzailea; ezen "kolonikuntzak Kolonizatua desegiten badu ere, usteldu egiten du Kolonizatzailea".

Hori ez zen, ordea, liburu honen helburua. Nolapait esateko, sorkuntza bidez erantsi zaio liburu honi bere balioa, eta egiaren bertute soilak eman dio. Badirudi, beraz, kolonikuntza zehazki azaldu, ezinbestean Kolonizatzailea nola jokatzen den aztertu, Kolonizatuaren nahi-

-ta-ezko galtzaira geldia ager erazi; eta, kolonikuntzaren bidegabekeria guztizkoa agirian utzirik, besterik gabe. funtsezko ahulezia salatu nuela, eta bide beretik sistimaren azkena iragarri.

Hortaz, merezimendu bakar bat aitortzen diot neure buruari: neure kezka eta larritasunaz gain, giza-kondairaren aurpegi jasangaitz bat, etengabe denontzako aldakuntza mingarrien sortzaile (eta onartu ezina, beraz) azaltzen saiatu izana.

Liburu hau eskandalo bide gisa, eta soinekoak urratuz, irakurri beharrean, hau nahiago nuke: ondorio horiek zergatik nagusitu ote zaizkidan, eta egoera antzekotan dagoen beste anitz gizoni ziplo zergatik nagusitu ote zaizkion, astiro hausnartzea. Ez ote da kakoa, hain zuzen, mamitzen eta borobiltzen saiatu naizen bi Itxuraketa hauek, jatorrizko ereduak kide hertsia direla? Zeren-eta kondairazko eredu horietaz nik eskaini didan ispiluaz baliatu gabe ere, bai-baitzuten gizon horiek, ene beharrik batere gabe, beren bizimodu hitsari ihes egitekotan, jokatibiderik ekarkorrenak beren burua atxemateko aukera; eta aisa eginen gainera.

Nabasi egin obi dira artista eta artistaren ereduak edo ikergaia. Gauza ezaguna da hau; eta joera horretantxe ikusi uste dut nik gure arkaismoaren, gure pentsakera magiko etsituaren, iraupen-seinale bat. Idazleen esanez sutu beharrean, desordenua erein nahi omen dugula-ta guri eraso beharrean (dagoena eta datorrena azaldu eta iragarri baizik ez baitute idazleek egiten), hobe litzateke esandako hori arreta handiagoaz aditzea, eta alde zurretik oharrak eta iragarpenak zinezago hartzea.

Zeren-eta, horrenbeste deskalabro ekarri duten alferrikako koloni-guduen ondoren, Fraitzia munduko deskolonikuntzaren txapelduna bihurtu den garaian, ez ote dut nik eskubiderik liburu hau bai Kolonizatzaileari bai Kolonizatuari garai batez probetxugarri gerta zekiekeela pentsatzeko?

Parise, 1966ko Otsaila.

Albert MEMMI



## Jean Paul SARTRE-ren HITZAURREA

Beltza berak ezagutzen duelako, Hegoaldekoak ez bestek hitzegin dezake bidez eta egokiro esklabotasunaz. Ipartarrek, berriz, puritano abstraktook, ez dute Gizona baizik ezagutzen; alegia, filosofi-izaki huts bat.

Oraindik ere badu baliorik ideei-hildo eder horrek: Houston-en balio du, gonbarazio baterako; eta Nouvelle Orleans-eko prentsan ere balio du; eta beti gu guztiok norbaitekiko Ipartarrak garenez gero, «frantses» Arjelian ere bai. Hango kasetek behin eta berriz esaten digutenez, kolonoak berak, eta ez bestek, hitzegin dezake egokiro koloniaz; bertakoak. Beste inork ez. Guk, Metropolitarrak, ez omen dugu haren esperentzia; eta Afrikako lur kiskalgarria, beraz, haren begien bitartez ikusiko dugu, ala sua besterik ez dugu ikusiko.

Xantaje horrek kikiltzen dituen pertsoneri «Koloniza-

tuaren Ezagugarria» (eta aldez aurretik «Kolonizatzailearen Ezagugarria») irakur ditzaten gomendatuko diet. Kasu honetan, esperentzia bat presentatzen baita beste esperentzia haren kontra. Egilea Tuneztarra da, eta «Gatzeko Imajina» nobelan kondatu du bere gaztaro mingotsa. Izan ere, zer da bera? Kolonizatzaile ala Kolonizatu? Hauxe esango luke berak: ez bata eta ez bestea. Zuk, aldiz, hau esango duzu: bata eta bestea. Eta funtsean gauza bera da. Bertako eta herritar bai, baina musulman ez diren multzo horietako baten seme da Memmi: «oste kolonizatuen arabera gutxi gora-behera goraxeago gertaturik... baina kolonizatzaileek zapuzturik», ez dituzte hauek halere «zeharo gaitzesten» multzo berezi horiek europar gizartera eta tankeretara biltzeko egiten dituzten ahaleginak.

Azpi-proletargoarekin hitzik gabeko elkartasunez loturik, abantail xume-xumeek hartatik berezirik, multzo horietako lagunak amairik gabeko ezin-egonean eta desgogoan bizi dira. Elkartasun bikoitz hori eta arbuio bikoitz hori dastatu ditu Memmi-k bere buruan: kolonoak eta kolonizatuak etsaitzen dituen mogimendua, «beren burua gaitzesten duten kolonoak» eta «beren burua den bezalakoa onartzen duten kolonoak» berezten dituenak.

Problema bere buruan kontradizio gisa jasan duelako ulertu du horren ongi.

Bere liburuan oso ederki azaltzen duenez, gizarte-arazoen barnekuntza hutsa diren arima-urraldi horiek, ez dute ekintzara bultzatu ohi. Baina jasaten dituenak, bere buruaz ongi jabetuz gero, bere kidekeriak, zirikaldiak eta deserria ezagutzen baditu, bere buruaz mintzatuz argi ditzake bestek: «gataska nagusiari buruz indar xume», aiheru-bide hala-holako den hau ez da inoren ordezkari; baina, batera bere burura kezka guztiak bildu dituelako, lekukorik bikainena gertatuko da.

Memmiren liburuak kondatu ez du kondatzen, halere; osoki oroitzapenez oratua bada ere, beretuak ditu denak; eta esperentzia baten ideimoldakuntza bat dugu begien aurrean. Kolonien lapurreta arrazakoitik, kolonizatuak

eraikiko duten geroko nazioraino (eta «honetan bere lekua atxemanen ez duela somatu du»), bere berezitasuna bizitzen saiatzen da, eta orokor eta unibertsaleraino gainditzen. Ez Gizonaganantz, oraindik ez baita, izan; baina denei nagusituko zaien Adimendu hertsiruntz.

Liburu espantugabe eta argitsu hau «geometria suhar»ren artean ezarri beharra dago: osatzen duen objektotasun geldia, sofrikario da, eta arnegazio; baina biok gaindituak eta itxuraldatuak. Horregatik, jakina, ideiakero itxura sala dakiok: funtsean dena dago esanik. Eta hautatutako ideia-segidaz kitzikatuko da agian pitin bat. Beharbada Kolonizatzailea eta honen petzeroa kolonizistimak berak berdin itorik presentatzea hobe zukeen; eta makineria kankailu hori, Bigarren Inperioaren azkenaldian eta Hirugarren Errepublikan eraikia, kolonizatzaileen desirak bete-betean konplitu ondoren gaur haien aurka uzkaileten eta xehatzeko itxura hartzen.

Egia esan, sistimaren barruan dago arrazakeria: koloniak merke saltzen ditu hazkurriak eta jatorrizko ekaiak; eta landutako tresneria finduak Metropolian oso galesti erosten. Merkatalgo bitxi hori bi parteei probetxagarri gerta dakien, gauza bat behar da: koloniko semeak doharrik (edo ia-ia) lanegitea. Azpi-proletargo nekazari horrek ezin dezake inoren laguntza balia, ezta zapalduenik bizi diren europarrena ere: denok bizi dira haren gain, baita «kolono txikiak» ere: jauntxo handiek, noski, uxtiatu egiten dituzte hauek, azken kondarreraino hustu; baina Arjeliarren arabera, oraindik ere abantailatuak dira: Arjeliako frantses erdiko arruntaren etekina, musulmanarena baino hamar aldiz handiago da.

Hortxe sortzen da tiradura. Alokairuak eta bizi-balioa ahalik eta apalenik egon daitezen, oso lan-burruka latza eraman behar da bertako langileen artean, baita jaiotz-emendioaren doia gora joan; baina herrialdearen ahalmenak koloni-lapurretak berak mugaturik dauzkanez gero, alokairu berberetan etengabe josten da musulmanaren bizi-maila; eta populua azkenik gabeko gosetean bizi da. Okupazioa bortxaz egina da; super-zapalketak eta

xehaketak bortxaldi horren luzaera eskatzen du hertsiki; alegia, Armada oraindik apur batez hantxe gelditzea. Munduan zehar Izialdura balitz nagusi, ez litzateke horretan kontradiziorik izango; baina kolonoak baditu han, Metropolian, kolonizatupei ukatzen zaizkien demokrazi-eskubideak; ezen sistimak bultzatzen baitu jendaketaren emendioa, honen bitartez langilearen balioa jets dadin; eta sistimak berak ere bertakoen berdinketa eta anaikuntza debekatzen dituelarik. Kolonizatuek boza emateko eskubidea balute, beroien keta gaitzak, gehiengo nabarmena izaki, berehalaxe leher eragingo luke dena.

Kolonikuntzak bortxaz bildu eta menderatu dituen gizonei, Gizonaren Eskubideak ukatzen dizkie, baita gabezian, txirotasunean eta ezjakintzan lotzen gero; Marxek liokeen bezala, indarka «azpi-gizatasunean» atxikiz.

Gertakarietan beretan, instituzioetan, harremanen eta produzioaren moldean, arrazakeria datza zolan; politikazko lege-egoerak, eta gizarte-gradoari dagokionak, indartu egiten dute elkar. Ezen bertakoa azpi-gizon bat baita, eta hortaz Gizonaren Eskubideen Agiriak ez du ikutzen. Eta, alderantziz, eskubiderik ez duenez gero, naturalezaren indar gupidagabeen, eta ekonomiari datzekon galtzaruzko mugakuntzen morroin uzten da bazterrean. Arrazakeria hortxe dago: kolonikuntzaren ekintzak berak eraman du hara, eta koloni-aparatoak sortzen gero minutu bakoitzean; zeren-eta produzio-lotura horrek, sostengatzaile ermo, bi pertsona-mota sortzen baititu: hau, abantailak eta gizatasuna gauza bera, gauza berbera zaizkiolako; bere kabuz eta bere eskubideen arabera ez bestera jokatzuz, gizon egiten da. Hura, berriz, bestea, aldian aldiko bere gosea, bere ezjakintza eta bere mixeria gorria, eskubiderik gabea denez, honetxek markatzen dizkio, eta bere azpi-gizatasunean ezartzen hitz batez.

Beti pentsatu izan dut ideiak gauzetan mamitzen direla; eta bere egoera azaltzekotan moldatzen eta kanporatzen ditueneko, gizonak barruan bazeuzkala iruditzen zait. Kolonoaren «kontserbakorkeria», kolonoaren «arrazakeria», Metropoliarekin kolonoak diren lotura bitxia,

lohitsua eta lerrakorra, bazegoen dena harengan alde aurretik, eta «Neron-en konplejoan» piztu baino lehenago.

Besterik ez duela esan errepitatuko lidake Memmik, nik uste; eta badakit (1).

Eta baliteke, gainera, egia berak izatea: aurkituak dituen ilaran ideiak aurkeztuz, giza-asmoetatik eta jasantako harremanetatik hasita, bere esperentziaren egia segurtatzen du; lehendabizi besteekiko eta bere buruarekiko harremanetan sofritu du. Egitura objetiboa geroago aurkitu du, erdiratzen zuen kontradizioan barneratuz; eta beren hartan ematen ditu denak, oraindik ere bihozkadazko eta barnetasunezko kutsuz mukurru.

Utz ditzagun txikikeria horiek, dena dela, alde batera. Liburu honek egia larri batzuk funtsatzen ditu. Eta lehen-lehenik hau: ez dagoela kolono presturik, ez gaiztorik; baina kolonialistak daudela soilki. Hauen arteko batzuek, beren egiazko egoera objetiboa arbuiatzen dute; baina, koloni-aparatoak horretaraturik, egunero obratzen dute ekintzan ametsetan gaiztosten duten berbera, eta beren jokabide guztiek zapalkuntzari eusten diote. Ez dute halakoek azkenean deusik ere aldatuko, ez inor zerbitzatuko, ezin-egon horretan, atsekabe-giro horretan, beren barne-bakea aurkituko dute.

Besteek, berriz, gehienek alegia, haseratik beretik edo azken buruan, beren egoera den bezalakoa onartzen dute.

Memmik oso ederki azaldu du norbere barkazioraino jarraitu ohi den pəusu-ilara. Kontserbakorkeriak erdipurdikoen hautaketa eta garaitzapena dakazki. Nola funtsatuko, beraz, bere abantailak, bere epelkeriaz ongi jabetua den lapur-mordoska horrek? Bide bakar bat du: bere burua hanpatu, kolonizatua lardaskatu; bertakoei gizata-

(1) Ez ote du berak idatzi: «Kolonizatuaren egoerak, berdin eta batera sortzen ditu bai Kolonizatzaileak eta bai Kolonizatuak»? (85). Beharbada gure arteko desberdintasun guztia, hortaz, honetantsu datza: Memmik egoera bat ikusi uste duen lekuan, nik sistema bat ikusi uste dudala.

sunak ere ez aitortzea eta, hitz batez, bertako pertsona gabezia huts pilo gisa presentatzea. Hau ez zaio oso zaila, bestalde; zeren-eta hain zuzen sistimak denaz gabetzen eta dena kentzen baitio bertakoari. Kolonikuntzak gauzetan beretan bernuzatu du koloni-idea; eta gauzetan beretan irakur daitezke batera kolonizatzailea eta kolonizatua. Zapalketa, horrela, bere buruz zuzenesten da: zapaltzaileek indarka sortzen dituzte egiazko zapaldua eta, zuzenesteko bidearen arabera, behar litzatekeen zapaldua, berdintzeko behar diren gaitzak eta baldintzak; eta horrela, biok berdindu ala, kolonizatuari erten zaion zorteak gero eta zuzenago dirudi. Ezin dezake kolonoak bere burua barka, etengabe kolonizatuaren «desgizakuntza» aurrerago eta aurrerago joan eraziz baizik; edo, bestela esateko, bere burua eta koloni-aparatoa gero eta berdinago eginez baizik. Ikara-giroak eta uxtiakuntzak desgizatartu egiten dute kolonizatua; hots, desgizakuntza horixe estakurutzat harturik, oraino ere areago zapaldu eta uxtiatu egin behar du kolonizatzaileak. Abiatua da makina, hortaz; eta jadanik ekintza ezin daiteke ideiatik berez, ezta ekintza ere era berean ezinbestezko beharretik. Kolonikuntzaren aurpegi horiek batzutan elkar baldintzen dute, eta beste batzutan elkar nahasten. Zapalkuntza hau da funtsean: zapaltzaileak zapalduari dion herra.

Sarraski horretan halere badago muga bat, bakarra bestalde: kolonikuntza bera. Horretantxe egiten baitu topo kolonizatzaileak bere kontradizioarekin: «kolonizatua suntsituz gero, honekin batera suntsituko litzatekeela kolonikuntza, kolonizatzailea barne». Azpi-proletargoa, kito; eta super-uxtiakuntza eta zapalketa oso haiek, kito. Horretaraz gero, kapitalismoaren uxtiakuntza arruntera lerratuko litzateke sistema, eta alokairuak eta prezioak Metropolikoaren arabera moldatuko lirarteke: horra hor beraz amaia eta azken hondaera. Sistimak berak, hortaz, batera nahi ditu bere petzeroen heriotza eta bere petzero horietxen ugaltzea. Errotik gertatuko litzatekeen edozein gantiamendu, hilgarri litzaioke: bertakoen anaikuntza edo

sarraskia, ondorioen aldetik so berdintsu: langileriak gero eta galestiago joko.

Makineria astun horrek, horrela, heriotzaren eta bizitzaren artean eusten ditu bere eragileak —heriotzatik bertago, jakina, bizitzatik baino—; eta harri bihurtutako ideologia batek, mintzatzen dakien abere-aldra gisa hartu nahi lituzke bertako pertsonak. Alferrik, ordea: agindurik eman ahal izateko (nahiz agindu horiek izan daitezkeen gogorrenak eta mingarrienak izan) gizontzat hartu behar direlako aurrenik, eta taigabe hainak zaitzea ezinezkoa delako, konfiantza egin behar zaie azkenik. Gizona aurretik gizontzat har ez dezanak, ezin dezake «zakurrak bezala» ere har. Zanpatuaren desgizakuntza ezinezko gertaturik, atzera dator zeharo lehen asmoa, eta zapaltzailearen alienazio-bide bihurtzen zaio. Ezen berak, zapaltzaileak berak alegia, aurrerakoan bere keinurik txikienez, sendotu eta piztu egingo baitu hil nahi zukeen gizatasun ukatua. Hots, besteengan ukatzen duenez gero, etsaitu zaion indar gisa topatzen du orain han eta hemen eta nun-nahi. Ihes egiteko orain berak luke bere burua soraiotu eta mineraldu, eta bere buruari harkaitzaren gotortasun itsu trinkoa erantsi; alegia, berak ere beharko luke bere burua «desgizatartu».

Elkarrekiko-tasun bihurkor gupidagabe horrek, horrela, batu egiten ditu benetan kolonizatzailea eta sortu duen bere sorkaria eta bere zoria: kolonizatua alegia. Elkarrekiko joera hori azkarki ager erazi du Memmik. Harekin batera aurkitzen dugu aldatzen ari den sistima bat dela kolonikuntza; eta, joan den mende erditsuan sorturik, bere hondamendia ekarriko duela. Ematen diena baino gehiago gusta zaie Metropoliei aspaldidanik. Arjeliaren zamaren azpian leherturik agertzen da Frintzia; eta orain badakigu ordaintzeko lain dirurik izango ez dugunean, garaitzapenik eta frakasurik gabe utziko dugula alde batera hango gudaketa.

Edozerk baino lehenago, halere, aparatoaren kankailua bera hasten da kolonikuntza hondatzen: antzinako gizarte-egiturak deseginik daude, eta bertakoak «atomiza-

turik» dautza; baina kolonizatzaileek, koloni-sistema bera zeharo funditu gabe, ezin ditzateke beren burura bil. Herritarrek, horrela, kolonizatzaileen kontra lortuko dute beren batasuna. Bazterturik zeudenok, nazio-nortasunaren izenean orain, bereztea eskatuko dute hain zuzen; eta horra hor kolonikuntza, kolonizatuen abertzaletasunaren sortzaile. Sistema zapaltzaileak abereen mailan atxikirik, eskubiderik ez haientzako, bizitzeko eskubidea bera ere ez, eta bizimodua gero eta okerrago. Hots, herri batek bere heriotzaren tankeraz besterik hautatzerik ez daukanean, eta zapaltzaileengandik etsipenaz besterik ezer har ezin dezakeenean, zer besterik gal lezake? Zorritxarra bera bilakatuko du bere ausardia; eta kolonikuntzak ezarri dion arbuioaz, kolonikuntzaren arbuio osoa egingo du.

Marxek halako batez esan zuen bezala, proletargoaren segetetua hauxe da: bere buruan dakarrela burges-gizartearen suntsiera. Hildo beretik gauza bat eskertu beharko diogu guk Memmi-ri: kolonizatuak ere bere segetetua berekin dakarrela gogoratu izana. Badakigu orain hari esker: kolonikuntzaren hiltzori lazgarria ikusten ari gara.

Jean Paul SARTRE



# Kolonizatzailearen ezagugarria

## I

### KOLONI-GIZONIK BA AHAL DAGO?

#### *Koloni-bidaiaren funtsa*

Gizon handia, eguzkiak beztua, bota-erdi pare bat oski gisa, endai baten gainean pausatua —koloni-gizona ez baita batere uzkur lanean hasteko— bere lurraldeetako hegi urrunean paratzen da so. Horra hor onez-onetara nola aurkeztu izan den kolonizatzailea oraintsu arte. Naturalezaren aurkako burrukak uzten dizkion astiuneetan, bestalde, kolonizatzaileak eriak zaitzen ditu, eta jakintza hedatzen. Hitz batez, menturazale prestua da koloni-gizona, aintzindari bat, branka-gizon bat.

Ez dakit nik Epinal-go irudi hori egiaren erretratua inoiz izan ote denetz; ala, oso bestela, ez ote den ko-

lonietako banku-txartelen xantu huts izan. Kolonikuntza-  
ren eragile ekonomikoak berorren kondairalari guztiak  
ager erazi dituzte gaur. Gaur egun kolonizatzailea-  
ren kulturazko eta moralezko *betekizunetan* ez du inork  
zipitzik ere sinesten. Gaur egun, nolana ere, koloni-  
rako urratsa ez da batere burruka ilun arriskutsuak era-  
gina, edo hain zuzen arriskuarengatik beragatik batere  
bilatua; baina erosokeriak bultzatua.

Aski da gainera kolonietako Europarrari galdegitea:  
zerk atzerrira zaitu? Eta, batez ere, beste hau: Zerk  
atxiki zaitu deserriari? Baliteke, bai, mentura-zaletasunaz  
mintzatzea, bitxi-nahiaz eta arrotz-giroaz. Zergatik ez  
ditu horiek bilatu, ordea, Arabian? Edo, bestetara gabe,  
Europako Erdialdean bertan, bere hizkuntza hitzegina  
ez den herrialdeetan, bere aberkide mordoskarik aur-  
kituko ez zukeen eskualdeetan; eta bere zerbitzutan  
ez administraziorik, ez babesten duen armadarik dauden  
leku arrotzetara? Mentura-nahi hura, ordea, ustekabez  
eta sospresaz aisa aberatsago zitzakeen. Baina herbeste-  
giro horrek, nahiz arrotzasunez seguruago eta izanez  
osoago izan, zalantzazko agertzen da *etekinaren eta*  
*irabazien* aldetik. Arrotz-giroari, beraz, bai; baina etekin  
ugarien ekarle deno. Ziplo, beraz, eta hizketaren jakin-  
tsuek baino hobeki, koloniaz eman daitekeen definiziorik  
egokiena emango digu gure bidariak: kolonian gehiago  
irabazi, eta gutxiago xahutu egiten da. Bizibideak se-  
guruago direlako, alokairuak gorago direlako, ikasaldiak  
azkarrago eta irabazpideak onurrakorrago direlako joan  
ohi da jendea kolonira. Diplomatu berriari postu bat  
eskain dakioke, funtzionariari ondoko maila eman dakioke,  
sal-erosleari zerga-ttipiera gaitzak eskain, industri-gizonari,  
prezio harrigarritan, bertako ekaiak eta bertako langi-  
leria.

Bego, halere. Eman dezagun gizon errugabe prestu  
hori badagoela; eta, ustekabean, eta Tolosa-ra edo Kol-  
mar-era joango litzatekeen bezala, hara ageritu dela. Luzaz  
itxaron beharko ote luke bere egoeraren abantailez eta  
hobariez jabetzeko? Nahiz koloni-bidaiaren ekonomi-

-alderdia hastapenetik erreparatua ez izan, nagusitu egiten zaio inori, eta azkar nagusitu gero.

Jakina: baliteke kolonietako Europarrak eskualde berria maitatzea, baita bertako ohituren bitxia atseginez dastatzea. Baina nahiz klimak nardatu, nahiz harrigarriro jazten den jendetza horren barruan gaitzi eta desgogara gertatu, nahiz sorterriaz urrutimenez eta tristuraz oroitu, kakoa beti datza honetan: koska, eragozpen eta atsekabetasun horien truke, eman behar ahal dira bizkotzat koloni-egoerari datxezkon alderdi onak?

Berehala mintzatuko da argi-eta-garbi; eta, maiz gero, goraki mintzo delarik egiten bide du amets: urte batzuk oraino, eta Metropolian erosiko etxe bat... Purgatorio batetik behar, beraz; ongi ordaintzen duen purgatorio-aldi batetik pasa behar. Hortik aurrera, nahiz biguindua, nahiz urruntasun-minez eta arrotz-sendimenez okegin arteraino asetua, nahiz gaisorik ere batzutan, eutsi egingo du; eta iruzurbide horrek lanari utzi arte, heriotzaraino bereraino ere atxikaraziko du. Nola bihurtuko, ordea, Metropolira, horretarako bizi-maila erdira jetsi behar baldin bada? Nola bihurtuko berriz Metropoliko aurrerabide motelaren martxa koxkor hartara?...

Eta azken urte hauetan, Kondaira azkarki abiatu, eta Kolonizatzaileen biziera arriskuz bete zenean, erantzunik gabeko karkulu ximple horretzek atxikarazi ditu han. Baita kolonietan «bolara-txori» deitu ohi diren horiek berek ere, ez dute aldegitoko presa handiegirik erakusten. Sorterrira bihurtzerakoan, bapatean nagusitu zaie batzuei bigarren desegokitasun eta deserri-kezkaren bildurra: alegia, beren sorterrian bertan berriz arrotz gertatzekoa. Hein batez, bai: sinetsi egin daitezke. Aspaldian utzi zuten sorlekua, eta baliteke adiskide zaharrik asko bizirik ez topatzea; gero ere haurrak kolonian jaio dira, eta aurrekoak bertan ehortzi dira. Egia. Baina sobera hanpatzen dute beren erdirakuntza eta oinaze hori. Koloni-hirira beren eguneroko usadioak birlandatu dituzte, Metropoliko ohiturak ekarri eta onar erazi dituzte. Eta hantxe, bestalde, Metropolian alegia, pasatzen dituzte

bakantzak hutsegin gabe, hantxe aurkitzen beren administrazio, politika eta kulturazko ideiak; hantxe, hitz batez, josirik atxiki dituzte beren begiak etendurarik gabe.

Haien arrotz-beharrak, beraz, ekonomiazko kakoa du; eta aberastu berria den aberatsa berriz txiro bilakatzeko bildurra baizik ez da hori.

Beraz, ahalik eta luzaroenik eutsiko diote kolonialdiari; zeren-eta denbora joanago, eta hobariak eta abantailak iraunago eta gizenago; eta honek, hobari eta abantailok goizegi ebakiko direnez gero, kezka batzuk gainditzea merezi du. Egunen batez, ordea, ekonomiari dagokiona ikutua baldin bada; esan ohi den bezala, «les situations» (=maukak, irakur) benetan arriskutan agertzen baldin badira, orduan Kolonizatzaileak gaizki ikusten du bere burua, egiazki mehatxatua, eta honetakoan bai: honetakoan zinez aztertzen eta deliberatzen du sorterrirako bihurrera.

Ikertzapen hori bera multzoaren mailan eginez gero, oraindik ere garbiago da dena. Koloni-lantegiek ez dute inoiz beste helbururik aitortu beren ekintzaz. Frantses-tuneztar elkarrizketetan, ordea, harritu egin bide dira ximple batzuk; zeren-eta frantses gobernuak, kulturaren sailean batez ere, borondate on xamarra erakutsi baitu; eta gero ere, azkar xamar egia esateko, koloni-buruzagiek berek berehala amor eman, eta egindakoa onartu egin dutelako. Burgeseriaren buruek eta koloniko buruzagiek, ordea, berehala konprenitu zuten kolonikuntzaren funtsezkoena zer den eta zer ez den; eta, hortaz, ez banderaren ospea, ez kultur-zabalkundea, ez administrazio-buruzagitza eta funtzionari-taldea nahi-ta-ezko zirenik aitortu zuten. Miretsi egin dute batzuek hori: alegia, funtsean atxikiz gero (alegia: ekonomi-abantailen mailan) gainerakoan aisa amor emateaz. Hots, horrengatik egin zuen Mendès-Francek bere joanaldi famatu hura; eta haien babespenaz eta bedeinkazioaz egin zuen. Horixe izan baitzen honen planaren eta sinatutako akordioen azken funtsa.

Kolonizatzaileak, berariaz edo ustekabean, bere irabazkina eta etekina aurkiturik ere, erden zaion Kondairabetekizunaz ez da zeharo jabetu. Bere egoera berria konprenitzerakoan, urrats bat egitea falta zaio oraino: etekin horren jatorria eta funtsa ere konprenitzea. Egia esan, ez da hau oso luzatzen. Nola luza liteke horrelakorik, bada, Kolonizatuaren erromestasan eta mixeria ikusi, eta mixeria gorri hori berak duen aiseriarekin ez lotzea? Besterik kendua delako hain zuzen datorkio horren errazki etekin demas hori. Hitz batez, bi gauzaz jabetzen da batera Kolonizatzailea: Kolonizatua badagoena ikasten du batetik; eta, une berean, bere *abantaila eta mauka* ere bai.

*Bazekien* jakin, noski, koloniko jenderia ez zela kolonoz eta kolonizatzailez soilki osatua. Haurtzaroko bere liburuetan irakurririk, zerbaitxo bazekien, egia esan, kolonizatu horietaz. Zineman ere dokumentalen bat erreparaturik zeukan, eta gogoan atxikia, beroien ohiturez (hauek eskuarki beren bitxitasunaren alderditik hautatuak). Gizon haiek, halere, xeheki mintzatzekotan, irudimen, liburu eta ikuskarien mailakoak ziren. Ez zinez haren munduko parte; eta ozta-ozta honelako zerbait bazirenean, sahetsetik edo agertuak ziruditen haren barnera, haren nazio osoari zegozkion pasadizu, balentria eta irudi orokorren bitartez: gudu-ekintzak, esate baterako; edo estrateji-arrazoin zabal eta mamigabetsuak. Pitin bat kezkatu zen, bai, haroen desegokitasunaz eta ur karetsuegiaz kezkatu zen bezalatsu; baina ez oso bestalde edo liferentki. Hots, gizon haiek, hanartean geografi-eraskin eta kondaira-apaingarri gisa agerturik, bapatean haren bizi-muineraino sartu dira. Bestela nahi izanik ere, gainera, ezin berok bere bizimodutik bazter: horietxekin bizi behar etengabeko harremanetan; zeren-eta, kolonian bilatu duen bizimodu hori, harreman horregatixek lor eta mami baitaiteke. Areago: harreman horretxek sortzen du haren abantaila, oparo eginez. Balantza batean plater batean jarria du bere burua, eta bestean kolonizatua dago. Kolonizatzailearen bizimaila

gora baldin bada, hona kakoa: apala izan behar kolonizatuarenak. Langileria eta sehieria ugari, mantso eta etorkor horretaz balia badaiteke, horregatik da preseski: kolonizatua nahi bezala uxtia daitekeelako, eta koloniko legediak babesten ez duelako. Beretzako propio gorderik daudelako lor ditzake horren aisa administrazio-postuak, eta kolonizatua horietatik at emana delako. Erosoago hatsartu kolonizatzaileak, beraz, ete nekezago eta ito-beharrago behar kolonizatua.

Hori guztia ez aurkitzea, beraz, ezinbestezkoa da. Hitzaldi ofizialek ez dute bera batere betetzen, jakina; berak, edo bere lehengusuak, edo bere adiskideak izkiriitzen baititu. Bere eskubide gaitzak eta kolonizatuen betebeharrak markatzen dituzten legeak, berak asmatuak dira; eta arrazakeriazko berezketa-agindu izkutuak (eta ez horren izkutuak), postu eta lan-hautaketan erabiltzen diren irizpideak eta ixtorioak, nahi-ta-ez ezagutzen ditu barne aldetik, jukutria horien erabilkera berak obratu behar du-eta. Hortaz, makineria oso horrekiko itsu eta gor gertatuko balitz ere, ondorioetan ulertuko luke denaren kakoa. Hots, makineria korapilotsu horren abantailatua eta kuttuna, bera da hain zuzen.

### Lapurra

Ezinezkoa da, azkenik, etengabe bere egoeraren *bidegabekeria*, kontra-zuzenaz eta prestutasunik ezaz ez jabetzea. Bidegabekeria hori, bestalde, bikoitza da. Arrotza izanik, eta nahi gabe kondaira-patuak soilki herri hartaraturik, lekugune bat bertan lortu eta moldatu ez-ezik, bertakoari kendu ere egin dio; eta eskubideak dagozkien kaltetan, abantail eta hobari harrigarriak atxikitzen ditu beretzako. Ez, gainera, ohitura zaharrek, edo nik dakita zerk, bidegabekeria hori hein batez legezaturik edo dauzkatelako; baizik-eta ohiko arauak irauliz, eta horien orde z bere erregelak bertakoei onar eraziz. Kolonizatzailea, horretara, bi aldiz ageri da lapur: alde batetik, abantailatu gertatzen delako; eta bestetik,

abantailaturik desegokiro eta desbidez gertatzen delako. Alegia: lapur bat da, ohoin bat, ebasle bat.

Eta denei zaie ohoin eta lapur. Kolonizatuaren iritziz, jakina, horixe besterik ez da; baina bere ezpalekoen eta kideen iritziz ere bai. Batzutan zein argudio ohi dabilen badakizu: kolonizatuaren artean ere badela aiton-semerik eta burgesik; eta beroien aberaskeria berea baino aisa handiagoa dela. Baina sobera sinetsi gabe azaltzen du hori guztia.

Errudun bakarra ez izatea bihotz-altxagarri gerta daiteke, hori bai; baina barkatu ez du egiten. Errazki aitortuko luke berak bertako jauntxoek abantailak ez direla bereak bezain lotsagarriak. Badaki ere, jakin, kolonizaturik fagoratuena berak ere betirako egongo direla kolonizatu soil; eta, hortaz, beti ere ukatuko zaiela zenbait eskubide; eta hobari batzuk, aldiz, beretzako atxikiko dituela betirako.

Hitz batez, bere iritziz eta bere bitima edo kalteararen iritziz gauza bera, lapur eta ohoin aitortzen du bere burua. Begirada eta egokera horietan bizi izaten ikasi beharko, beraz.

### *Kolonizatzaile txikia*

Hiru aurkikundek (alegia, irabazkina, abantaila eta lapurreria), kolonizatzailearen hiru ohar-urratsek bere itxura eta izana moldatzen dutela ikusi baino lehenago; eta koloni-gizon soila zena kolonizatzaile edo kolonialista zein bidetatik eta nola bilakatuko den aztertzen hasi baino lehenago, maiz jarri ohi den eragozkarri bati erantzun behar zaio.

Kolonietan, esan ohi da usu, kolonoez besterik bada ere. Abantailak aipa ote daitezke bide-langileez, erdiko funtzionalariez, edo baita nekazari apalez hitzegiten delarik? Biziko badira eta aurrera aterako badira, Metropolitiko beren lankideek bezalaxe karkulatu behar izaten baitute horiek ere...

Hiztegi eroso bati buruz elkar aditzeko, beraz, egin

dezagun berezketa hirukun bat: baleudeke, horretara, koloni-gizona, kolonizatzailea eta kolonialista.

Koloni-gizona kolonian eta abantailik gabe bizi den Europarra litzateke; eta bizimoduaren arabera, ekonomi eta gizarte gradoaz kide duen bertako kolonizatua baino gorago ez litzateke biziko. Sorkuraz edo etika-bidez, Euro-par prestu ongi-nahia litzateke koloni-gizon delako hau; eta kolonizatuari buruz, ez luke kolonizatzailearen joka-bidea hartuko. Horra, ordea!

Eta neure esaeraren gogorraz eta garratzaz ongi jabeturik ere, bota dezagun azkar: *horrela aurkeztutako koloni-gizonik ez dago; zeren-eta kolonietako Euro-par guztiak abantailatuak baitira.*

Jakina: ez dira kolonietako Euro-par guzti-guztiak nagusi, handi, ez dituzte denek beren hektareak milaka zenbatzen, eta ez dira denak administrazio-zuzendari. Ez urrik eman ere! Hain zuzen ere anitz gertatzen da kolonikuntzaren ordain eta kaltetar. Ekonomiaren aldetik uxtiatuak dira, politikarenetik erabiliak; eta hori asko eta askotan bere interesak ez diren beste batzuk gerizatzeko. Gizarte-loturak, ordea, ez dira ia behin ere bakunak. Eta bai desira errugabe garbien arabera, bai segurtabide itsusiagoen arabera sinets erazi nahi izaten den guztiaren kontra, kolonizatzaile txikia, kolonizatzaile handien kide izan ohi da pratikan, baita koloni-abantailen zaitzaile porrokatua ere. Zergatik?

Kideen arteko elkartasunik ba ote dago horretan? Defentsazko jokabide bat ote da? Ala gutxiengoa kontrako gehiengo batetan bizitzean sortzen zaion kezka-azalketa ote da? Hein batez bai. Baina kolonizazioaren mementorik hoberenetan; alegia, poliziak eta armadak beren babesa ematen zutelarik, eta hegazkintza beti tartean sartzeko prest zegoelarik, kolonietako Euro-parrak ez ziren batere beldur; ez, gutxienez, batasun harrigarri hori argitzeko lain. Liluraketa? Makur eta enganaturik dagoela? Baita besterik ere eskierki. Ezen egia osoa baita kolonizatzaile txikiak balukeela berak bere aldetik bere aska-bide bereziari buruz zertan burruka eginik.



Baldintza bat badago, ordea: bere aberkideek horren tronpaturik eta bere kondairak horren itsuturik egotea.

Ez dut nik uste, hain zuzen, mitogintza osorik lilura ezteus eta hutsaletan finka daitekeenik, eta horrelako eroaldirik gizonari nagusi dakiokenik. Ez da posible horrelakorik. Kolonizatzaile txikiak koloni-sistema horren azkarki zaitzen badu, kakoa hauxe baizik ezin daiteke izan: gutxiago ala gehiago, probetxugarri zaiola. Makurdura, beraz, beste honetan datza: oso interes apurrak gerizatzekotan, askoz ere inportanteago diren beste batzuk gerizatzen dituela, eta bera ere hauetxen kaltear eta ordain gertatuz gainera. Halaz ere, petzero eta kalteturik ere, jokabide horretantxe aurkitzen du bere abantaila.

Zeren-eta abantaila arazoa erlatiboa baita: gutxi edo aski, kolonizatzaileak oso dira abantailaturik, *arabera* hala delako, eta kolonizatuaren kaltetan. Kolonikuntzaren puntuzkoen eta jauntxoen abantailak demasak izanik ere, kolonizatzaile txikiaren abantail apurrak ere (baita txikiarenak ere) oso ugariak dira. Kolonizatuaren ondoan gertatzen den eguneroko urrats guzti-guztietan, beti ere eta nabarmenki badu berak bere alderdi ona. Legeekiko egoera txarrean gertatu dela, eman dezagun; eta polizia batetik, eta justizia bera besterik, onginahiago izango zaizkio besteri baino. Administrazioaren zerbitzuez baliatu behar duela? Atseginago izango zaio hau; paperkeriak erraztuko dizkio, betebeharrak laburtuko; takila bat propio beretzako jarriko, eta haue-tako jende lerrokada luzea motzago izango du berak, eta itxaro-aldia arinago beraz. Lan bila ari dela? Etsaminen bat pasa behar duela? Lekuak eta postuak alde zurretik gordeko zaizkio; etsaminak haren hizkuntzaz egingo dira, honen bitartez kolonizatuaren bazterpideak zabalago jarririk. Izan ote liteke, beraz, horren itsurik, edo horren itsuturik, baldintza berberetan jarrita ere (ekonomi-klasearen edo merezimenduen arabera, esate baterako) beti ere abantailatua bera dela eta dagoela ez erreparatzeko? Nola liteke, beraz, noizean behin

bederen bere burua atzera itzuli, eta kolonizatu guztiak, eskolakide edo lankide izanak berak barne, han, hain urrun eta atzean ez ikustea?

Bego halere hori horretan. Eta eman dezagun ezertxo ere ez duela eskatzen, ezeren beharrik ez duela; eta halaz ere aski noranahi agertzea, koloniaren barruan norbait diren guztien onginahia berehalaxe lortzeko. Baita inor ez direnena ere, hobeki esateko; bere aldeko us-tearen alde ona duelako, beste askotan herrikiderik pres-tuenei ukatzen zaien errespetua kolonizatuaren beraren aldetik baduelako. Zeren-eta, gonbarazio batera, erraz-kiago sinesten baita kanpotar kolonizatzailearen hitzetan, bertakoen hitzetan baino. Jatorriz badu-eta, bere merezi-menduetatik at, bere klase objetibotik at, dohain edo ho-bari harrigarri hau: kolonizatzaileen taldekoa da bera. Hots, kolonizatzailearen baloreak dira errege, eta berak ere bada-ramazki bere buruan. Kolonizatzailearen besta zaharren arabera abiadan erabiltzen da kolonia, baita haien erli-jio-besten arabera. Asteroko pauseguna bere jatorrizko moldeen arabera antolaturik ikusten du, oroitarrien gainean bere nazio-bandera aurkitzen du haizean kulunka, bertako giza-harremanetan bere ama-hizkuntza baliatzen dela ikus-ten du. Baita bere soinekoa, bere doinua, bere keinuak eta ohiturak, kolonizatzailea iduritu-nahi gorria dela bide, nagusitu egiten zaizkie kolonizatuenei. Mundu bikainago baten parteliant agertzen da kolonizatzailea; eta, nahi eta ez, eta ziplo beraz, egoera horren abantailak biltzen ditu eten gabe.

### *Kolonikuntzaren beste liluraketak*

Hots, koloni-egitura horretan gainerako biztanleen egoera zehatza ere argigarri daiteke, ekonomiaren eta psikologiaren mailan; eta bi aldetatik hori: kolonizatuaren arabera batetik, eta kolonizatzaileen arabera bestetik. Alegia: ez kolonizatzaile ez kolonizatu direnen bitar-tez. Beste erresumatako herritarrez ari gara: Italiarrez,

Tuniziako Maltarrez; asimilazio-gai direnez (Judurik gehenez, hortaz); azken urteetako bertakotuez (Tuniziako Kortzegarrez, Aljeriako Espainiarrez). Besterik ere erants daiteke: kolonizatuaren beren artetik biltzen diren aginpide-hertzainak.

Maltarren eta Italiarren txirotasuna hain osoa izanik, irrigarri ere gerta dakioke inori beroien abantailez ni hemen mintzatzea. Halaz ere, nahiz errumes eta prau-beak izan hainak oso maiz, ohartu gabe aitortzen eta ematen zaizkien apurrek berek, berezi egiten dituzte gainerakoengandik, eta azkenean kolonizatuengandik benetan urrun erazten. Populu kolonizatuaren arabera guti edo aski abantailaturik, kolonizatzaile / kolonizatu pleguko harremanak sortzeko joera dute. Denbora berean, talde kolonizatzailearekin guztiz bat ez etorririk, kolonikuntzaren sailean betekizun berbera ez izanik, zein bere gisara berezten dira.

Kolonikuntzarekiko beren loturak aztertzean irakur daitezke garbiki doi eta xumetasun horiek guztiak. Zuzenbidezko eta administraziozko abantailen aldetik, Tuniziako Italiarrak beti izan zaizkie bekaitz frantsesei; baina kolonizatuak baino hobeki egon izan dira. Nazioarteko legeak babestu izan ditu, eta Kontsularitza beti metropoli artatsuaren begirada etengabea zainduta, hantxe egon da beti agiri-agirian. Askotan kolonizatzaileek zapuztuta izan beharrean, multzo berezi hauetxe beren buruarekin ari izan dira zalantzan, bertakotuko ote ziren, ala jatorrizko atxikimenduari eutsiko ote zioten. Europar jatorri berberak, erlijio berberak, mila ohituraren funts berberak, kolonizatzaileagandik hurbiltzen dituzte sendimenduaren baranoan. Horretatik guztitik abantaila seguru batzuk sortzen dira, eta kolonizatuak ez ditu: lanaren aurkiera errazago zaie, miseria gorriaren eta eritasunaren kontrako segurantzia handixeago da, eskolaldia ere iraunkorrago. Kolonizatzailearen aldetik, azkenik, badaude keinu eta lanotasun batzuk, eta dinatasuna bederen errespetatua da gutxi gora-behera. Ulergarria da, beraz, nahiz funtsean oso gabetuak eta behartsuak izan,

kolonizatuaren arabera batzutan kolonizatzailearen beraren jokabide berberak hartzea.

Hona hemen, dena dela, alderantzizko argudio bat: horrelako taldeok kolonikuntzaz sahetsetik eta bahituraz baizik ez probetxatuz, askoz ere bertago dira kolonizatuengandik frantsesak baino. Italiarrak, esate baterako. Bertakoekiko hauen harremanak ez dira itxurakoiak eta axalak; elkar hizketetan ere ez da nabaritzen nagusia jopuari mintzatzen zaionean agertu ohi den jauntxokeria hori (Frantsesarengan beti, eta zernahi saiatuagatik ere, oso nabarmen). Frantsesekin gertatu ohi denaz bestaldera, ia Italiar guztiak mintzo dira kolonizatuaren hizkuntzaz, askok lortzen bertakoekin adiskidetasun sakonik eta iraunkorrik; baita (hauxe seinalerik argitsuena) ezkontza gurutzatuak egiten. Hitz batez, Italiarrek ez dute berengandik eta kolonizatuenganaino sekulako tarterik uzten. Zenbait xehetasunez kanpo, oso azterketa antzeko bat egin genezake, eta ia balio berberekoa, zenbait xehetasunez kanpo bederen, Maltarrei buruz.

Ia ikuspuntu berberetik azter daiteke Israeldarren egoera: asimilazioari buruz beti gai, baina beti ere uzkur. Helburu nagusitzat (eta nork ez ulertuko!) kolonizatu-egoerari ihes egitea: bestetarik ere oso astuna duten zama arindu nahia. Horri buruz abiaturik, kolonizatzailea berdinkatzen saiatzen dira. Saiakuntza horren helburua ez dute izkutatzen: kolonizatzaileak desberdintzat ezin jotzea. Eta asmo horretantxe finkatzen dira haren jokabideak: iragana ahaztu behar, talde-ohiturak aldatu behar; Mendebaltar hizkuntzaz, kulturaz eta ohiturez jabetu nahi. Baina kolonizatzaileak bere itxuraz jabetzearen aldeko ikasle horiek guztiok oso nabarmenki ez etsi eraziz ere, ez ditu behin ere osoki xederaino heltzera uzten. Hau dela-ta, etengabeko ezpaitasun nekagarrian bizi dira. Kolonizatzaileak ukaturik, alde honetatik kolonizatuaren egoera triste berbera pairatzen dute, eta egiazko kidetasun batzuk badituzte berekin; baina kolonizatuaren baloreak arkaikotzat jo, eta ez dituzte

onartzen; aitzitik, mundu plegu horri ihes egin ahal izatea espero dute urteen buruko.

Berriki asimilatuak erdibideko kolonizatzaileagandik harat ezarri behar dira. Kolonikuntzaren inkantea egiten dute, eta mespretxu harroputza erakusten kolonizatuarekiko. Geroztik bildua duten gorentasuna gogorarazten dute maiz, beren zakarreriek eta lukurreriek laister ukatua eta ezabatua. Oraindik ere beren abantailez harrituegi, gogor eta artega uxtiatzen eta gerizatzen dituzte beren hobariak. Eta kolonikuntza bera arriskutan gertatzen delarik, haren gudaririk sasoitsuenak eta armada-rik ausartenak eskaintzen dituzte, baita batzutan beharrezko erronkariak eta okasio-bilatzaileak ere.

Kolonizatuen artetik bildutako aginpide-besoek (tekniko, kaid, polizia) kolonizatu-multzo berezi bat osatzen dute; eta horrek bere jatorrizko politika eta gizarte-egoerari ihes egin nahi izaten dio. Baina hori lortzekotan beste bide bat hautatzen dute: arras eta osotara kolonizatzailearen zerbitzutan jarri, eta haien interesak besterik ez zaitzea. Azkenean, horretara, haren ideologia ere onartzen dute osoki, baita beren aberkideei eta beren buruei berei ere dagokienez.

Denak gertatzen dira, beraz, gutxi edo aski, batera mitogai eta irabazle, sistema bidegabea onesteko punturaino aldatzen (gerizatu ala ontzat eman behar), nahiz sistema hori askoz larriago izan kolonizatuari beste inori baino. Haien mespretxua, horrela, beren eskasiaren ordaina izan daiteke; Europako antisemitismoa ordaingarri erraz bat izan ohi den bezalatsu. Eta hortxe dugu horretara buruzagitxoan piramidea: nork berak baditu beti, gaintetik eta zapaltzaile, bera baino azkarragorik; eta, azpitik eta menderaturik, bera baino ahulagorik; eta honen arabera, hortaz, zapaldua zena buruzagitxo eta zapaltzaile bihurtzen da. Nolako mendekua, nolako harrotasun-bidea zaion kolonizatua ez den harotz apalari, arabitar peoin baten ondotik joan, eta honek bere buruaren gainean ohol bat eta iltze batzuk daramazkielarik joatea! Denontzako bada, horrela, pozkario sakon hori

bederen: kolonizatua baino hobekixe egitekoa. Talde berezi hauetako jendeak, hitz batez, ez ditu kolonikuntzak behin ere azken zola horretan nahasirik zokoratzen.

### *Koloni-gizonengandik kolonizatzaileagana*

Koloni-gizona ez da, izan; kolonietako Europarra koloni-gizon gisa gelditzea ala ez gelditzea ez baita haren esku, nahiz hartarako deliberoa hartua duenean ere. Berariaz opa izan badu eta izan ez badu, instituzioek, ohiturek eta jendeek abantailatutzat hartzen dute. Hara eta berehala, edo jaiotzaz geroztik, gauzazko egoera berezi batetan gertatzen da. Egoera hau berbera dute kolonitan bizi diren Europarrek oro, eta egoera horretxek du kolonizatzaile bilakarazten. Egia esateko, ordea, kolonizatzailearen etika-korapilorik handiena ez da maila horretan agertzen: alegia, haren askatasunaren arazoarena, eta honetatik datorkion erantzukizunarena. Egiazki, hau bai, alde batera utz zezakeen koloni-mentura; abiatua izanik, ordea, mamitzen duten kondizioak onartzea edo arbuiatzea ez da haren esku. Besterik ere erantsi behar litzateke: alde aurretikako hautu guztietatik at gerta zitekeela hobari-gizon kondizio horietan: kolonizatzaile izandako gurasoengandik kolonian jaioa izanez gero, esate baterako; edo, erabakia hartzerakoan, kolonikuntzaren funtsa zinez ezagutzen ez bazuen.

Kolonizatzailearen egiazko behaztopa-harria, dena dela, bigarren mailan agertuko da: kolonikuntzaren sustaia aurkitu duenean; bere egoeraz, kolonikuntzarenaz, bien arteko ezinbestezko loturaz, jabetu denean, onartuko ote ditu? Bere burua onartu ala arbuiatu egingo ote du abantailatu gisa? Hori eginez, eta bere ezinbestezko abantailen ondorio den kolonizatuaren erromestasan gorria baietsiko ote du? Lapur eta ohoin gisa hartuko ote du bere burua, benetako kolonitarraren kaltetan eraiki den zapalkuntza onetsiz, eta ondorio datxezkon bere gehiegizko askatasuna eta begiramentua zuzenetsiz? Ko-

lonizatzaile gisa, ontzat emango ote du bere burua? Ezen irudi hau ondotik baitarraikio, eta sortzen hasi zaizkion abantaila eta desbidea, lapurtuen begiraden aurrean ari baitzaio mamitzen bere itxura berria. Ohituko ote da egoera horretan? Ohituko ote da egoera eta begirada horietan; eta ohituko ote da laister ezin baztertuzko bihurtuko zaion bere buruaren arbuioan?

## EZEZKOA ERABAKI DUEN KOLONIZATZAILEA

*Borondate oneko kolonizatzailea...*

Koloni-gizon guztiak berehalatik eta ezinbestean kolonizatzaile gertatzeko moduan izanik ere, ez daude kolonizatzaileak oro kolonialista bilakatzerara beharturik. Eta hoberenek ezezkoa hautatzen dute, eta ezetzari eusten. Kolonikuntza, ordea, ez da ideia xoil bat: *bizizutako egoera multzo bat da*; eta ezezko horrek, horregatik, edo egoera horiei fisikoki eta bene-benetan ihes egitera behartzen du, edo-ta bertan burruka eginez haien funtsa aldarazten laguntzera.

Batzutan hau gertatzen da, bai; alegia, lehorrera berria lan-postu horretan ustekabean kokaturik, edo asmo



oneko funtzionari izanik —ez horren barreiatu edo errugabe, nunbait, askoz bakanago negozio-gizonak edo heretzainak— hasera-haseratik zurtuta gelditzea: kolonikuntzaren xehekeriak, eskaleen ugaritasuna, kalean barrena erdi biluzik errari ibiltzen diren haurrak, trakoma, eta abar; eta horren bidegabekeriaren antolakera nabarmenaren aurrean, bere herrikideen lotsagabekeriak berak sutan jarririk («ez kasu eman gabeziari! Ikusiko duan bezala, berehala ohituko haiz hartara!»), bertan bera dena utzi, eta atzera egitea pentsatzen du. Batzutan gertatzen da, egia da. Ezen kontratuaren amairaino itxaron behar izanez gero, miseriari eta gainerakoari ohituzeko arriskua baitu. Eta bere buruarentzat koloni-gizon izatea nahi ez zuen hori, horrela, ez da ohituko; eta atzera itzuliko da, beraz.

Bestetan, ordea, besterik gertatzen da, eta honengatik edo hargatik, ez du atzera egiten. Baina ekonomia, politika eta gizabidearen mailetan batera, kolonikuntzaren lotsagabekeria osoa aurkitu eta ezin ahantzirik, bere herrikideak bilakatu direna ezin bera bilaka, ezin berek bezala etsi; eta hortaz gelditzea erabakitzen du, baina kolonikuntzari ez borobil bat emanez.

*...eta haren arazoak*

Ai! eta oi! esaten delarik, ez datzeko beti garrasi horri arbuio bortitzik. Ez dagokio beti amorru horri politika eragilerik. Teoriaren mailako ikuspuntu edo jarrera bat da; eta, metropolian bederen, horrelako esaerak ez lukete moderatu-biltzarrik asaldatuko. Protestazio bat, noiz-behinkako sinaturaren bat bai, zeharo kolonizatuaren kontrako talderen batetan sartzea ere bai agian. Aski orain arteko hau, ordea, horiek guztiek arazoz eta ezinegenez aldatzeko balio izan ez dutela erreparatzeko. Egoera praktikoa bati izpiritu hutsez ihes egitea ez baita horren erraza; ideologiari uko, bai, baina praktikan harreman objetibo berberetan segitzea ez baita deus sakonik. Horatik aurrera, horrela, kontradiziotan mamituko da kolonizatzailearen biziera; eta, kontradizio hori urrats guzti-

-guztietan berriro agertuko zaiolarik, haren barne-bakea eta barne-gotortasuna kitto.

Ezen, zer ukatzen du funtsean? Zer, hain zuzen, bere buruaren alderdi bat baizik? Kolonian egotea onartua duelarik, ezari-ezarian ukatzen duena bihurtzen da bera, hein batez. Zeren-eta oso goratik salatzen dituen hobari eta abantail horiek, hain zuzen, berak ere probetxatzen baititu.

Bere herrikideek baino soldata txikiagorik ukaten ahal du? Bidaiak egiterakoan ez ote ditu berak ere erraztasun berberak? Erdi oharkabean bederen, nola ez karkulatuko berak berebil bat, frigo bat, edo-ta etxe bat ere agian, laister ordaintzeko moduan egongo denik? Nola behar luke jokatu, gainera, horren nazkatzen duen itzal-giro horretaz bere burua garbitzeko?

Eman dezagun halere hasia dela kontradizio horien barruan ohitutzen, edo barne-arazo horietan kokatzen eta usatzen; eta bere herrikideek astinduko lukete fite. Has-tapenetan onez onetarako iseketan: badakite, ezagutua dute beren buruan, jakina, lehorrera berria denaren kezka ximpletxo hori. Baina koloni-bizieran barrena, anitz lotkia txiki eta atseginen bitartez, ezabatu egingo da.

Behin eta berriz azaltzen diotenez, gainditu egin behar ditu herabekeria horiek, kolonietan gizatar erromantizismoa eritasun larria delako. Hain zuzen ere, horixe da-ta etsaiaren alderdira igarotzea.

Horretan tematuz gero, berehala ikasiko ditu ondorioak: bereekin hitzik gabeko liskarretan egon beharra; behin ere hetsiko ez ahituko den liskar gogorra: ala bera garaitua izango, ala kolonizatzaileen multzora aldaturko eta bilduko. Beste biderik ez. Koloni-sistema arriskutan jarri duen kidea kolonizatzaileek berek zein bortizki hartu izan duten ikastea, harrigarri gertatzen bide zaio zenbaiti. Hots, gauza nabarmena da traidoretzat baizik har ezin dezaketela. Berauen bizimoduan bertan jartzten ditu halakoak koloka, ordaindu uste duten metro-poli osoa ere (azken funtsean koloni den aldetik baizik ez ordaindua) dardaratzen duela. Egon ez dago, beraz,

burugabekeriarik haien alderdian. Azken bururaino eramana izanez gero, zein izango litzateke kolonikuntza bera ukatzen duen kolonizatzailearen logikazko ondorioa? Zein ote, garbiki eta xeheki mintzatuz, kolonizatzaile diren aldetik kolonizatzaileen beren akabera baizik? Nola ez diete bada kontra gogorrik egingo? Jarrera horrek haien deuseztapena ekar bailezake; zuzentzaren aldarean, beharbada, baina beroien fundiera eta sakrifizioa azken funtsean. Eta hori ere, ez pentsa; ez baitute askotan beren jokabideen makurra edo bidegabea aisa aitortzen.

Batzuek, ordea, sakrifizio eta deuseztapen horiek onartzen dituzte, beren gidari egiten dituzte; eta berehala argituko dugu nola eta zein bidetatik. Bizitzera ere uzten ez dituen moralismo hori gainditzen gauza ez badira, ordea, horren egiazki sinesten badute, joan bitez, has bitez urrats horretatik: beren sendimenduen funtsa ager eraziko dute, haien arazoak askatzen hasiko dira... eta beren herrikideak baketan utziko dituzte, areago nahasi gabe; beren emaztea bera berdin jarriko zaie, eta negar egingo ere bai —emakumeak gutxiago kezkatzen dira gizadi abstraktoaz— eta argi eta garbi aitortuko die halako batez: kolonizatuak bost axola niri; baita Europarren artetik irtenez gero, ez dagoela lasai.

Ez dago, beraz, beste irtenbiderik? Ala koloni-mul-tzoaren barruan etsi eta amor-eman, ala hanka?

Bai, badago baño oraino. Bere kontrak berak kolonikuntzaren atea hetsi dizkionez gero, eta koloni-basamortuaren erdira bakarrik egotzi, zergatik ez ote luke kolonizatuaren atean joko? Begirunez irekiko lioke honek atea segurki. Hain zuzen ere, alderdi bata zuzengabekeriaren alderdia dela idoro du. Beste, beraz, ez ote da eskubidearena eta zuzentzarena? Beste urrats bat oraindik, joan bedi bere iraultzaz bestalderaino; kolonia ez baita, egia esan, Europarren ez beste inoren arazoa! Kolonizatzaileek arbuaturik, beroiek gaitzetsirik, onar bitza honek kolonizatuak eta, itzuletara ere, onar bezate hori haiek: bestaldera igaro bedi, burruka-alderdia truka beza.

Egia esan, baita borondate oneko kolonizatzaileen artean hain dira gutxi zinez bide horri lotzeko deliberoa hartzen dutenak, problema hau teori-mailakoa dela arrunt; baina kolonikuntzaren azken funtsa konpreni ahal izateko, oso inportantea da. Kolonikuntza gaitzestea gauza bat da; baina kolonizatua ontzat eman, eta honek onartua izateraino joatea beste gauza bat. Eta biok ez datxezko inundiak ere elkarri.

Bigarren ganbiamendu hau benetan lortzeko, badi-rudi gizauren moralak izan behar lukeela gure gizonak. Hots, askoz ere lehenago zorabioak hartu ohi du, eta baztertu. Gorago esan dugunez, zinez bide horretatik abiatu nahi izanez gero, zapaltzaileen alderdikoeekin osotara hautsi behar zukeen, bai ekonomiaz bai administrazioz. Hauxe izan zitekeen bere aberkideei egokiro eta eskierki isil erazteko bidea. Hori frogatzen ederra! Bere soldataren laurdena uztea, edo administrazioaren mesedei ez ikusia egitea! Bego hori, halere; aisa onartzen baita gaur iraultza iritsi baino lehenago iraultzaile eta zanpatzaile batera izan daitekeela. Kolonizatuek zuzentza beren aldetik dutela aurkitzen du, haren onspena haien alderako da dudarik gabe, eta laguntza ere bai agian. Baina bateratasuna, elkarkidetasuna, horretantxe gelditzen dira: *kolonizatzaile onginahia ez da haietakoa, eta haien arteko bilakatzeko batere gogorik ez du*. Kolonizatuaren askatasun-eguna somatzen du, bai; haien eskubideen bir-irabazketaren eguna ere bai; baina ez du inoiz ere benetan pentsatu beroien bizimodu hori, askatua izan dadinean ere, bere egitea.

Arrazakeria apur bat ote da horretan? Baliteke, ongi jabetzen ez bada ere. Denak, kaltearrak barne, gaitz horrek ikutuak diren herrialde batetan, norik segurta dezake bera gaitz horretaz xahu denik? Bidezkoa ahal da, izan ere, hartarako behartuta izan gabe, hain mespretxu larriok zanpatzen duten patu hitsa izpirituaren mailan ere inork nortzea, eta norbere gain horrela jasatea? Nola egin lezake, bestalde, kolonizatuaren pertsonari itsatsita dagoen gaitzespen eta mespretxu hori bere burura era-

kartzeko? Nola bil lezake, bestalde, inoizko askatasunaren ideiarik, bera dagoeneko libro izanik? Hori guztia, beraz, adimenezko ariketa soil bat baizik ez da.

Eta, izan ere, ez da nahi-ta-ez arrazakeri kontua! Besterik gabe, oraindik ez da egiaz ongi jabetu: alegia, kolonia ez da metropoliaren lur-mutur bat, eta hortaz bere etxen ez dago. Funtsezko bere ideien mailan kontraesanik ez dago, hortaz. Aitzitik, kolonizatua aurkitu duelako, haren izatezko desberdintasuna aurkitu duela, kolonizatua amets urruntsutik gizon bizi minberatu bilakatu delako, kolonizatzaileak uko egiten dio zapal-ketari, eta laguntzan etortzea erabakitzen. Memento horretatik, ordea, probintzi-aldaketa hutsik egina ez duela ohartzen da: bestelako zibilizazio bat du bere aurrean, bereak ez dituen ohitura desberdinak, antz sakonik ez eta erantzuketa bitxiak dituzten jendeak.

Eta, horretaraz gero, bere buruari ere aitortu behar —nahiz kolonialistekin ados ez izan— zibilizazio eta populu horiek juzkatzea nahi-ta-etzko bihurtu zaio. Hots, nola uka haien teknika arrunt atzeratua denik, haien ohiturak harrigarriro gelditurik daudenik, haien jakintza bera zeharo gañditurik? Ai —erantzunago du berehala— Akats eta hutsune horiek ez ziren, jakina, kolonizatuaren eskukoak, eta ez haren errukoak beraz; ezen kolonikuntza hamarka urtetan izan da bertako kondairaren kloroformatzaile.

Kolonialisten argudio batzuek, dena dela, kezkatu egiten dute batzutan. Honek, esate baterako: kolonikuntza baino *lehenago ere*, ez ote zeuden bada kolonizatuak oso atzeraturik? Kolonizaturik gertatzeko bidea zabaldu baldin badute, teknikaz eta militar baranoan gertu ez zeudelako gertatu zaie. Jakina: atzoko ahulaldiak ez du biharkoa alde aurretik aurremarkatzen. Askatasuna bihurtuko balitzaie (honetan zalantzarik ez dago) atzeramendua bilduko lukete. Konfiantza osoa du herrien zuhurtziaz, herri guztien zuhurtziaz. Halaz ere, desberdintasun funtsezkoa somatu uste du. Kolonikuntza kondairagertakari berezia da; eta kolonikuntzan sortzen diren

bi egoerok (gaurko kolonizatuena) harrigarri eta bitxiak dira.

Baina egoera horiek ez dira haren ekarpena, ez haren egoera bera, ez haren jarrera ere.

Alderdi eta aurkikunde nagusi horietxetara astintzenago eta erakartzenago dute eguneroko xumekeriek, ideirik guztiak baino. Hastapenean jakin-minez jan zuen «kuskus»a; orain, modu dotoreen erakuskari gisa bakarrik, eta noizean behin baizik ez du jaten; orain asetu egiten duela deritza; «bete eta moteldu bai, baina elikatu egiten ez duela»: iruditzen zaio; edo, bestela esateko, «betegarri hutsa» dela. Eta baldin kuskus-a bera maite badu, ezin dezake orduan jasan azoka-musika etengabe hori, edozein kafetegiren aurretik igarotzen delarik nekagarri eta aspergarri. «Zergatik horren ozenki jotzen? Nola entzun ote dezakete elkar?». Atezain kolonizatua etxeko eskilara azpian bizi da; eta honetatik etengabe hedaturik, bildots-koipe usain horrek nardaturik dauka.

Kolonizatuaren ezagugarri askok eta askok erreta daukate; ezin okidura batzuk izkuta ditzake; eta ohartxo eta ziri gisa azaltzen zaizkio barnetik, honetan berriz ere kolonialistaren kide hertsia agertuz.

Egia aitortzekotan, urrun gelditu da haserako ziurtasun hura; haseran bai-baitzekien «a priori», alde aurretik, eta orain ez baitaki, giza-izana berbera zela herrialde eta eskualde guztietan. Oraindik ere horretan da, jakina; baina orain bestela sinesten du: unibertsaltasun abstraktoaren alorrean, edo kondairaren etorkizunean noizpait obratuko den helburu gisa...

Et, et! Urruntxo joana zara! Badantzut! Borondate oneko zure kolonizatzaile hori ez da, izan, horren borondate oneko! Aldatu egin bide da piskanaka; eta gaur, bere horretan, ez ote da jadanik beste kolonialista bat? Ez horixe. Kasurik gehienetan presakoa eta zuzengabea litzateke salaketa hori. Baina, besterik gabe, biziera guztian barrena, ezinezkoa da beti ere bitxikeriaren erdian bizitzea; alegia, guti edo aski desherritasun etengabe

murgilduta. Turista gisa, bai, egon daiteke horretan: apur batez atxik daiteke modu horretara, bolara batez grinaturik edo asaldaturik ibil daiteke; baina azkenean aspertu egiten da edonor, eta aurka jartzen ere bai. Barne-asaldurik gabe bizi ahal izateko, nor bere burutik eta inguramendutik axolakabeturik behar da bizi. Haurtzaroko usainak eta soinuak bir-eraiki behar dira inguruan: hauetxek dira eramangarrienak, hauetxek errazak, keinuz eta adimenduz ez baitute ziplozko jokabideez besterik ezer eskatzen.

Borondate oneko kolonizatzaileari horrenbestekorik eskatzea eragabea litzateke; ezkertar intelektualei bolara batez langileak eragabeki kopiatzea eskatu zitzaizen bezalatsu. Zenbait astez baldar eta kankailu ibil erazi ondoren, eta iltzezko oskiak jantz erazi ondoren, baita alkandora berberak luzaroan trukatu gabe atxikarazi, saiakuntzaren zozokeria aitortu zen azkenean. Kasu hauetan, halere, hizkuntza berbera bazen denentzat, sukalde berbera zuten denek, jokoak eta txolarteak gai berberen arabera antolatzen ziren, eta modaren segira berbera ere guztientzat. Kolonizatzaileak, alderantziz, ez dauka kolonizatuarekiko inolako kidetasunik proposatzerik.

—Zergatik ez jantziko «txetxia» arabitar herrietan? Zergatik ez beltzen eskualdeetan aurpegia beltzez tindatuko? —errepikatu zidan halako batez erakasle batek, hasarre antzean.

Ez da interesik gabea, ordea, erakasle hori komunista zela nik erastea.

### *Politika eta borondate oneko kolonizatzailea*

Horiek horrela, desberdintasunaren gehiegizko erromantizismoa baztertu beharra dela onartzen dut. Egoki erazteko eta bertakotzeko bidean aurrera, borondate oneko kolonizatzailearen gaindikizunak biziki larriak ez dira pentsa daiteke; baita funtsezkoena eta giltzarria ideo-

logi-jarreran dagoela, kolonikuntzaren gaitzespen irmoan datzala. Eta eragozpen horiek etikazko irizpidearen zuzena galerazten ez badute, egia da hori. Ezkertarra edo eskuindarra izatea ez dagokio pentsatzeko molde soilari; baina baita ere, eta batez ere nik uste, senditzeko eta bizitzeko moldeari. Ohar ttiki bat egin dezagun horri buruz: uzkurtsun eta zalantza horiek harrapatzen ez dituzten kolonizatzaileak gutxi dira oso; eta, beste alde batetik, xehetasun horiek, kolonizatuarekiko eta kolonikuntzarekiko harremanak ulertuko badira, aintzakotzat behar dira hartu.

Eman dezagun, beraz, borondate oneko gure kolonizatzaileak bere abantailen arazoa eta bihotzeko beste arazoak ere parentesitan utzi dituela. Eta, horrela delarik, haren ideologiazko eta politikazko jokabidea iker dezagun.

Komunista edo sozialista zen bera lehenagotik (zein nahi adaska edo koloretakoa), eta kolonian gelditzea erabaki zuen. Haren sendiberatasunak —bere bereak edo nazioarenak— nolana hikoak gertatuagatik ere, gauza bera izateari eutsi nahi dio. Areago ere: komunista, sozialista edo demokrata gisa jokatu nahi du aurrerakoan; alegia, ekonomi-berdintasunaren eta gizarte-askatasunaren alde burruka egitera deliberatu da. Eta honi buruz abiatu, kolonizatuaren askakuntzaren alde beharko du jokatu, baita kolonizatzaile eta kolonizatuaren arteko berdintasunaz.

### *Abertzaletasuna eta ezkerria*

Idazten inor ausartu balitz, mende honetako ezkerriaren kondairan hauxe zitzakeen kapitulurik bitxienetako bat; eta honela bataia zitekeen beharbada: abertzaletasuna eta ezkerria. Eta ezkertar gizonak honi buruz hartutako jokabideak beteko luke koloni-arazoaren sailean pasarte mamitsu bat. Ezkertar kolonizatzaileak bizi izan dituen giza-harremanak, eta kolonikuntza arbuia eta onartu duen moduak, beste pasarte bat.



Zalantzarik batere gabe, abertzaletasunari dagokionez ezinegon nabarmen batek hartua du Europar ezkerria. Internazionalista helburua hautatu du sozialismoak oso aspaldidanik; eta gaur badirudi tradizino hori zeharo itsatsi zaiola bere teoriari, honen funtsezko oinarrietan beretan errotuz. Ene belauneko ezkertar gizonengan abertzaletasun hitzak mesfidantza sortzen du, etsaigoa bera ez bada. URSS delakoa nazio gisa sozialismoaren «aberri internazional» tzat finkatu zenean —hemen zehatz-mehatz azaltzea luzeegi litzatekeen arrazoinengatik— emandako argudioek ez zituzten bere mireslerik seguruenak berak sobera bete. Orain dela gutxi, oroitzen denez, nazismoak mehatxatutako herrien gobernuek, zalantzaldi labur baten ondoren, pitin bat ahaztuta zeuden abertzale ihardespentak dei erazi ziren. Eta orduan, errusitar jarraipideak bidea prestatu, arriskua larria eta berehalakoa izanik, eta beren jarraitzaileen artean abertzaletasuna txit azkar zegoela aurkiturik, entzun egin dute aberri-dei hori, baita lagundu ere. Fraitziako komunista alderdiak ere bere kontura hartu du bere burua, eta frantses ikurrina eta «Marseillaise» bera goraiatu ditu berriro. Guduaren ondoren ere, Amerika gazteak nazio zaharren kontra burutu nahi izan zuen zapalkuntzan, taktika horixe atxiki du gailen —taktika izan, ala egiazko berrikuntza. Kapitalista arriskuaren kontra, sozialista ideologiaren izenean burruka egin beharrean, komunista alderdiek, eta ezkerren parte handi batek, nazio baten kontra beste nazio bat paratu nahiago izan dute, eta amerikatar eta kapitalista bat egin eta nahasi egin dituzte aski mordoiloki.

Hori guztia dela-ta, gaitzi gertatu da benetan sozialismoa abertzaletasunari buruz, eta langile alderdien ideologian halako zalantza-giroa nabarmendu izan da. Problema honen aurrean, oso uzkur agertu ohi dira ezkertar kasetalariak eta saiolariak; eta uzkurtasun hori, jakina, oso harrigarria da. Ahalik eta gutxienetan aipatzen dute puntu hau; ez dira ausartu ohi gaitzesten, ez zuzenesten; ez dakite nola bil dezaketen, ezta bildu nahi ote duten ere; eta kondairaren ulerkuntzan ez dakite batere nola

egin. Hitz batez esateko: gaurko ezkerria arrotz dabil abertzaletasunaren aitzinean.

Hots, anitz arrazoinengatik (kondaira, soziologia eta psikologiazkoak batera) beren buruen askatasunaren alde kolonizatuek daramaten burrukak abertzale itxura nabarmena hartu du (baita aberkoia ere zenbait aldiz). Europar ezkeriak, hau bai, edozein askatasun-esperantzaren aurrean bezala, onartu, sustatu eta lagundu baizik ez dezake egin kolonietako burruka hau; baina oso zalantza sakonek astintzen dute, oso kezka larriek heltzen, askatasunerako saiaketa horiek abertzale itxura hartzen dutelako. Besterik ere bada: langile alderdien abertzale berrikuntza hori *itxura* arazoa da batik-bat, baina *sozialista mamiak* berbera dirauelarik. Badirudi, hitz batez, gizarte-askatasuna azken helburutzat atxikitzen dela; baina memento batez, eta luzeago edo laburkiago bere horretan egongo bada ere, abertzale aldi batez igarotzen. Argi-eta-garbi esatekotan, Internazionalek laisterregi ehortzi zituzten nazioak. Ezkertarrak, ordea, kolonizatu abertzaleen guduaz aztertzen duenean, ez du honetan beti eta aski argiro antzematen berehalako gizarte-mamirik. Laburki, beraz, «a priori» zuzenesten duen kolonizatuaren gudu horretan, ezkertarrak ez ditu aurkitzen bere organizazioan aurkituak zituen burrukabide zaharrak, ez azken helburu berberak. Eta, jakina, kezka hori, arrotz-uste hori, askoz ere larriago bihurtzen dira ezkertar kolonizatzailearengan; alegia, kolonietan bizi, eta abertzaletasun horren ondo-ondoan gertatu den ezkertar gizonarengan.

Gudu honetan erabilitako iskilu bat hauta dezagun adibidetzat: terrorismoa. Ezkertar tradizioak, jakina denez, terrorismoa eta politika-hilkintza gaitzesten ditu. Kolonizatuak biok erabiltzen hasi zirenean, horrela, ezkertar kolonizatzailearen barne-traba larria izan zen arrunt. Kolonizatuaren *berriazko* ekintzatik berezten saiatu zen aurretik, eta haren guduaren epifenomeno edo axial huts presentatzen: luzaroegi zanpatutako populuen lehertapen bero eta karkulugabeak dira horiek; edo, oraino ere hobeki, organizazioen buruzagitzak ongi eskura ezin di-

tzakeen elemendu aldakor eta buruberoen jokabide eragabeak. Europan bertan ere, nork ulertu zuen, nork onartu, nor esaten ausartu, oso bakan batzuk baizik, kolonizatuaren zampaketa hain guztizkoa izanik, eta indarren desberdintasuna hain demasa izanik, bidez ala desbidez, egoki ala desegokiro, kolonizatu horrek *nabita*, *berariaz*, burrukabide horietzek hautatzera beharturik gertatzen zela?

Ezkertar kolonizatzailea gogoz saiatuagatik ere, ekintza batzuk ulertu ezinezkoak zitzaizkion, lotsagarri, politikaren alderditik ikusiak ero eta funsgabe. Burrukatik at zeuden haurren heriotzak, esate baterako; edo, errotik aurka ez zeudenean, jokabideen xehetasun hau edo hura baizik kritikatzan ez zutenean, kolonizatuena berena. Hain zen bere onetatik ateraia eta asaldaturia, ekintza horiek berak *ukatzea* baino hoberik bururatu ez zitzaiola; zeren-eta problemaren *bere* irizkeran, horrelako gertaerek ez baitzuten lekurik batere.

Zapalkuntzaren doilorrak erantzunaren gogorra eta itsua barka ditzakeela ez zitzaion batere funtsatua iruditu: ezin berak kolonizatuarengan onar, kolonikuntzan gaitzesten duen berbera, kolonikuntza bera gaitzestera eram duen hori bera alegia.

Horrela, beraz, behin eta berriz gertakaria gezurrezkoa dela somatu izan ondoren, guztiz etsita, ekintza-mota horiek *hutsak*, okerkuntzak direla esan behar izan du; mogimenduaren barruan oinarritzko lekurik *izan behar ez luketela*, alegia. Eta ausarki dio hau: buruzagiek eskierki, ziurki, gaitzesten dituzte horrelakoak. Kolonizatuaren alderdia beti defenditu zuen kasetalari batek, horrela, sekula ez zetozen gaitzespenen zai nekatuta eta asper eginda, atentadoen kontra garbiki eta aġirian mintzatzeko eskatu zuen halako batez. Jakina, ez zuen inoiz arraposturik batere jaso; eta eskaerari, beharrik, berriz eusteko hainbateko errugabetasuna ez zuen izan.

Isiltasun horretan, beraz, zer egin zitekeen besterik? Ulertaraztea falta. Eta, bere kinka betean zegoelarik, gertakaria azaltzen hasi zen, kakoa besteri konpreni arazten.

Inoiz ez, ordea, eta garbiro ohar eraz dezagun, inoiz ere ez *zuzenesten*. Egoera honetan, zion honek edo harek, buruzagiak ezin daitezke mintza, eta ez dira mintzatu-ko; baina beren kolkorako pentsatu, geuk bezala pentsatzen dute haiek ere. Lasapide bikaina izan zitzaiokeen, baita pozgarria ere, alde horretatikako seinalerik xumeena. Seinale hauek, ordea, etorri ez; eta hautu bildugarri baten aurrean gertatu zen: ala koloni-egoera beste edozeinen pareko eginez, han ere irizpide eta ulerpide berberak erabili beharko, eta kolonizatua eta kolonia aspaldiko bere baloreen arabera juzkatuko; ala, koloni-egoera hori berriztat jo, eta orduan bere politika-pentsakera zaharrari, bere baloreei, eta jokabide hura hartzera bultzatu zuen guztiari ere uko egin beharko. Hitz batez: ala kolonizatua ezin onar, ala bere burua ezin onar. Ez bata ez bestea ezin hautatuz, bidartean gelditu, eta aidean barrena abiatu behar: hauei eta haiei bere gisako asmo izkutuak ezarri behar, kolonizatua bere nahiaren arabera birmoldatu behar. Hitz batez: ipuingintzan hasi.

Ez du gutxiago asaldatzen, bestalde, askatasun horren geroak, berehalako etorkizunak bederen. Sortzen ari den nazio berria, burrukaz bestaldera somatzen eta finkatzen ari denez, sinestun agertzen da, esate baterako; edo-ta askatasun kezka arrastorik ez du agertzen. Berriz ere, hortaz, ulerpide bat baizik ez dago: haren beste nahikunde eta xede izkuturen bat ezartzea, ausartagorik eta eskuzabalagorik. Bihotzondoan, pentsatzen du, burrukalari argi eta zinezko horiek guztiak teokrata fedekoi mordo bat baino hobe badira, eta askatasunaren tirria eta gurtza badituzte. Baina kinkaren gaiztoak disimularazten dizkie beren egiazko sendimenduak; eta populuarengan fedea oraindik biziagia izanik, kontutan hartu behar hori. Demokrazi-kezka handirik erakusten ez dutela? Laguntzarik batere ezin arbuaiatuz, ez dituzte dirudunak, burgesak eta aitonsemeak minberatu nahi.

Gertakariak, ordea, beti zail eta eskuragaitz, nekez

ezkontzen dira ongi haren uste eta hipotesiekin; eta ezkertar kolonizatuaren ezinegona azkar egoten da bere hartan, edo etengabe berpizten. Kolonizatuaren buruzagiek populuaeren fedeari ezin erasotzea, bego: aintzakotzat hartua da hori. Sendimendu horietaz beretaz baliatzea, ordea! Tira! Agiri horiek, gonbarazio baterako, Jainkoaren izenean emanak. Gudu sainduaren ideia horiek, era berean, izutu eta arrotz sendi erazten dute inor. Taktika eta abilezia hutsa ote dira benetan? Nola ez ohartuko aspaldiko kolonia ia guztiek, askatuta laister, konstituzioan sartu dutela erlijioa? Nola ez ohartuko jaio berriak diren poliziek eta zuzenbideek ez dutela ezkertarrak espero zituen askatasunarekin eta demokraziarekin antz handirik?

Hortaz, eta berriro ere nahastutzeko bildurrak osotara hartuta, atzera egingo du beste urrats bat; eta atzeragoko etorkizunari buruz egingo du postura bat: *geroago*. Geroago bai, alegia, ziur, herri horien barnetik, gidari berriak sortuko dira; eta hauek bai: hauek bestela, mistifikaziorik gabe, liluraketarik gabe, azalduko dituzte herriaren beharrak; herriaren egiazko interesak zainduko dituzte, kondairaren helburu zuzen (eta sozialisten) arabera jokatuz. Ezinbestezkoa zen gertatu dena: burgesek eta aiton-seekek, eta ez beste inork, ikastaldiak jarraiturik, giza-multzo horietxek eman dituzte gaurko zuzendariok; eta hauetxengandik heldu da horrela mogimenduak hartua duen kolorea.

*Geroago* bai: ezkertar kolonizatzaileak kezkatuak somatzen dituen xenofobia, abertzalekeria eta joera arrazakoiak oro, geroago erauziko dituzte kolonizatuak. Kolonizatzailearen arrazakeriaren eta xenofobiaren ezinbestezko erantzuna dira, beraz, ikusten direnak; eta kolonikuntza, eta kolonikuntzak utzi dituen zauriak, deusez daitezten itxaron beharra dago. Gero bai: erlijioakeriak gero erauziko...

Arte horretan, ordea, eta mementoko liskarraren funtsari dagokionez, ezkertar kolonizatzailea ezin da erdituririk egon. Honen ustez, ezkertarra izatea ez da he-

rrien nazio-askatasuna onartzea eta laguntzea soilik; baina baita politikazko demokrazia eta askatasuna ere, baita ekonomiazko demokrazia eta zuzenbidea ere, baita xenofobia arrazakoiaren arbuioa eta unibertsaltasunaren gairaitzapena ere, baita ekaiaren eta izpirituaren araberako aurrerapena ere. Eta nahiz benetako ezkerrek oro herrien nazio-aurrerapena desiratu eta lagundu behar badute ere, horretxegatik *ere* desiratzen eta laguntzen dutela esan behar da, edo horretxegatik batez ere; alegia, nazio-askatasunak hori guztia ekarriko duelakoan. Ezkertar kolonizatzaileak kolonikuntza gaitzesten baldin badu, eta bere burua kolonizatzailetzat kondematzen baldin badu, xede horien izenean egiten du. Hots, kolonizatuen askatasunak batetik, eta ezkertar programa baten obrakizunak bestetik, loturarik ez dutela erreparatzen du. Oraindik okerrago: badirudi eta batzutan sortzen laguntzen ari den gizartekera horretan gizonarentzako, gizona den aldetikako leku berezirik ez dagoela, etorkizun hurbilean berderen.

Besterik ere gertatzen da. Zenbait arrazoin desberdinegatik —indar atzerakoien onginahia biltzeko, nazio-tarren batasuna burutzeko, edo horrela sinetsita egoteagatik— abertzale mogimenduek *oraindanik beretik* ezabatzen dute ezkertar ideologia, ezkerrari laguntza bera ukatzen diote, enbarazo gaitzak egiten, eta antzutasunera eramaten. Ezkertar kolonizatzailea, horrela, ezkertar burukalaria den aldetik, koloni-askatasunaren aldeko mogimendutik at egotzirik gertatzen da.

### *Iheslea*

Bere eragozpenek berek, bestalde; kanpotik ikusirik damuaren itxura harrigarriro hartzen duten bere zalantzek, oraindik ere bakanduago uzten dute; denei batera zaie goganbehartsu eta aiherutsu: bai kolonizatupei, bai metropoliko ezkertar jendeari; eta honetxek pairarazten dio gehienik. Koloniko Europarrengandik ebakita gelditu da; baina hauxe nahi zuen, eta egiten zaizkion irai-

nak mespretxatzen ditu, baita horiengatik harrotzen ere. Ezkertarrak, berriz, bere beretarrak ditu, hautaturik dauzkan epaikariak; eta kolonian bizi delarik, hauen arabera irizpideetan garbitu nahi izaten zuen bere burua. Hots, bere kide eta epaikariok ez dute orain sobera ulertzen; bere maiseorik edo uzkurraldirik txikienek mesfidantza, aiherua eta amorrua altzarazten dituzte erruz bazterretan. «Zer diok hik?» —esaten diote—. Herri hau zai zegok, gose duk, eritasunak eta isekak jasan behar dizkik, lau haurretatik bat hiltzen duk bere lehenengo urtean; eta hi, zer ari haiz, jokabideen eta helburuen segurtasunak eskatzen? Traba gehiegitxo jartzen duk heure laguntza emateko! Hire arazo horietan etika eta ideologia dituk munta! Baina oraingoz herri hori askatu egin beharra zegok: horra hor mementoko egin-kizun bakarra. Etorkizunari buruz, denbora joan ala, beti izango duk parada ona horietaz arduratzeko.

Halere, errepikatzen du gure ezkertarrak, somatu egin daiteke gaurdanixek askatu ondoko izakera hori... Baina horretaraz gero, bueltarik gabeko argudio bat emango zaio —etorkizun horri buruzko kezka bera bazter erazten baitio— eta hau esango: kolonizatuaren patua ez dela haren arazoa, eta kolonizatuak bere askatasuna nola erabiliko duen berorren arazoa eta erabakizuna dela, eta ez beste inorena.

Eta orduantxe, kitto: hortik aurrera ez du deusik ere ulertuko. Kolonizatu lagundu nahi badu, patu eta etorkizun horiek axola zaizkiolako nahi dio lagundu, bion patuek elkar gurutzatzen dutelako, kolonian bizitzen segitzeko asmoa duelako. Saminki pentsatu behar du, horrela, ezinbestean metropoliko ezkertarren ikusmoldea oso abstraktoa dela. Jakina, dio: nazioen aurkako guda-keta garaian, helburu bakar batek biltzen zituen gudari guztiak: nazio-askatasunarena, abertzale nahia beraz. Baina denek egiten zuten burruka, halere, etorkizun politiko zehatz baten alde. Ezkertar taldeei, esate baterako, gero-ko politikabidea teokratiko, fededun eta larderikoi izango zela segurtatu balitzaie; edo-ta eskuindar taldeei, be-

rebat, komunista izango zela; guduaren ondoren, eta soziologiako zio sakonengatik zapalduak izango zirela jakin balute, hauek eta haiek aurrera atxikiko ahal ziotkeen gudaketari? Beharbada bai. Baina haien zalantzak eta kezkek horren lotsagarri aurkituko ote zirakeen? Ezkertar kolonizatzaileak galdera asko egiten dio bere buruari; eta sozialismoa atzerrira eraman zitekeela, eta marxismoa noranahikoa eta unibertsala dela uste izanez, harropuzkeriaren bekatuan erori ote den ez daki. Aitor du: munduaren bere iritzia defenditzeko eskubide osoa izan uste zuen, eta bere bizia beroien arabera nun-nahi zuzentzeko arrazoina.

Urrats bat oraindik, halere: denak, bai metropoliko ezkertarrak bai kolonizatuak (eta hau bitxia; ezen kolonialista pentsakeran desberdintasun guztizkoaren alde agertu ohi baita!) denek gauza bera esaten diotenez gero, amor-eman egin beharko. Kolonizatuen askatasuna, beraz, *inolako baldintzarik gabe* defendituko du, baliatzen dituzten burrukabideak eta hautatu bide duten etorkizuna onartuz. Frantses ezkertar astekaririk onenetako kaseta-lari batek, horrela, gizatasunak berak Korana eta Arabitar Elkartearen onartzera daramala aitortu behar izan zuen halako batez. Eta... alajainetan! Korana-rena, bego; baina Arabitar Elkartearena... Mitoak eta hutsak ere onar erazi beharko ote ditu, bada, herri baten helburuaren zuzenak? Baztertua edo goganbehartua ez izateko, kolonizatu burrukalarien ideologi-gai guztiak onartuko ditu horrela: *mementoko, baita ezkertarra dela ere ahaztuko du.*

Horrenbesterekin, beraz, amaitu ote ditu bere penak? Ez da batere segurua. Zeren-eta ihesle bihurtzea erabaki duenez gero, bururaino joatera deliberatu denez gero, kidetzat hartu nahi dituenak osoki ontzat ematea ez baita aski. Orain norbera ere berek onartua izatea da kontua.

Lehenengo puntua, jakina, ez da goxoan johan, ez da kontraesan larririk gabe burutzen; zeren-eta horrenbeste ahalegin eragin dioten politika baloreok ere, bazterrerara bota behar izan baititu. Ez da burutzen, era be-



rean, azkenean ontzat emandako erdi-utopia batetara leratu gabe. Halako batez bere burrukakideengandik beretzen duena ezabatzea opa izan dezakete intelektualak edo burges aurrerazaleak; klase-liferentziak izanik, gogoz baztertuko lituzke. Baina hizkuntzaz, ohituraz, erlijioz, eta abarrez, aldatzea, oso besterik da, eta ez da zinez nahi izaten; ezta barne bakea lortzekotan, ezta diru-segurantzia izatekotan.

Bigarren puntua ez da errazagoa. Koloni-guduaren giroan benetan sartuko bada, bere borondate ona ez du aski izango. Kolonizatuak berak onartzea posible behar da izan. Hots, sortuko den nazio horretan *beretzako lekurik izango ez duela somatzen du*. Hauxe izango da azkeneko aurkikundea, ezkertar kolonizatzailea hunkituenik utziko duena; haseratik somagarria izanik ere, kolonizatuen askatasun-egunaren bezperaraino maiz ulertu ohi ez zuena.

Eta hau konprenitzeko, kolonikuntzaren ezagugarri nagusi hau atxiki behar da gogoan: koloni egoera herri erlazio bat dela. Hots, herri zanpatzailearen parte izana da bera; eta, nahi-ta-nahi-ez, lehenengo haren zoria aldekoa zenean partekatu zuen bezala, geroan ere, patu gaiztoa delarik, hein batez bere gain hartzera behartua izango da. Bereak, kolonizatzaileak alegia, egunen batez kolonitik kanporatuak gertatzera, kolonizatuak ez du segurki beretzako berezkunderik egingo; eta, haizu utzitako atzerritar gisa kolonizatuen artean bizitzen segitzeko aukera izango balu ere, kolonizatzaile-ohien kontrako herra jasan beharko luke. Metropoliaren indarrak kolonian bertan iraun behar balu, berriz, gorrotozko bere tokamena bildu beharko luke berak, onginahizko bere agertzapenak nahi bezain ugari erakutsi arren. Egia esan, kolonikuntzaren kutsua ez da pertsona eskuzabal eta argi baten edo zenbaiten ondorioa. Koloni-harremanak ez dagozkio borondate onari edo bederazko jokabideari. Hura jaio edo iritsi baino lehenago bazeuden harreman horiek; berak onartzeak edo gaitzesteak ez ditu gauzak sakonki aldaraziko; harreman horietxek dituzte marka-

tzen «a priori», gainerako instituzioek bezala, haren lekua eta kolonikuntzaren lekua, baita, oro har, bion arteko lotkiak. Atsegin izan dakiok, hau bai, bere burua garbitzea: «Nik neuk beti jokatu dut honela edo hala kolonizatuekin»; baina somatu egingo du bederen, nahiz berak pertsona gisa batere errurik ez izan, nazio zantzatzailearen seme den aldetik multzozko erantzukizunaren parteduna dela; eta erruduna ere bai, beraz, sentidu horretan. Multzo gisa zapaldurik, kolonizatuek ezinbestean hautatzen dute nazio eta etni askatasun gudaketa; eta, honetan abiaturik, ezkertar kolonizatzailea nahi-ta-ez dago eta dagoke at eta kanpoan.

Nola baztertuko du, berriz ere, burruka hori berea ez den ideia? Zergatik egingo luke burruka, beraz, ulertu, onartu eta erabakia duenez, beretzako lekurik utziko ez duen gizarte-kera berri horren alde?...

### *Ezkertar kolonizatzailearen ezintasuna*

Bertatik hertsitua eta estekatua, horrela, ezkertar kolonizatzailearen betekizuna funditu eta ezabatu egiten da. Badira, nik uste, ezinezko kondaira-une edo egoera batzuk; eta hauxe da horietako bat. Ezkertar kolonizatzailearen ideologiaren arabera, koloniko haren biziera ezin onartuzkoa da, eta ideologia hura nagusituko balitz, berorren izatea bera gertatuko litzateke arriskutan. Oharkunde horren ondorio hertsia hau litzateke: betekizun hori arras alde batera lagatzea.

Jakina, konponketak bilatzen saia daiteke, eta haren bizi guztia konponketa-sorta etengabe bat izango da. Bere inguruan dituen kolonizatuak ez ditu bereak, eta ez ditu behin ere izango. Bata eta bestea direla bide, ezin dezake berak bere burua horien arteko bihur, baina be-roiek ere ezin dezakete bera onar. «Europatar kolonialistekin laketago naiz ni —edonolako aiherubide guztietatik at dagoen ezkertar kolonizatzaile batek aitortu dit—edozein kolonizaturekin baino». Ez da deliberatzen, ez

da behin ere deliberatu asimilazio eta nortasun-ganbiamenduaren bururaino joatera; ez da egia. Zeren-eta, besteak beste, horrelako barne-iraultza burutzeko behar den irudimena bera baitu eskas. Biharko egunari buruz amets egitea gertatzen zaionean, kolonizatua kolonizatu-tasun horretatik ateraita eta gizarte-egoera berri berria somatzen ditu, horreraino bai; baina *bere egoeraren eta bere nortasunaren aldetik* inolako iraultzarik ez du pentsatzen. Egoera berri horretan, askoz ere egokiago eta hobe, bera bere horretan egongo bide da, gaur den horri bere horretan atxiki ahal izango dio; eta bere hizkuntza segurtatua izango da, eta bere kultur tradizioak ganbiamendu guztien buruan gailen geldituko. Bere buruan erreparatzen ez duen (edo ikusi nahi ez duen) barne kontradizio hori dela-ta, Europako gauza izango ez den herrialde berritu horretan, jainkozko eskubideen araberako Europar egon ahal izatea espero du berak; baina oraingoan maitasunak eta konfiantza berriztatuak ordainduko dute jainkozko eskubidea. Bere armadak babestua eta nagusi erazia izan beharrean, oraingoan herrien anaitasunak zainduko luke. Eskubideen alderditik, berriz, administrazio aldaketa xumetxo batzuk, eta kitto: hauen biziera-kutsua eta ondorioak nekez soma ditzake. Legeen aldetik, berriz, garbiki ikusten ez badu ere, gutxi gora-behera, nazio gazte berri horren parte izan espero du; baina jatorrizko bere hiritar izateari atxikitzeko asmoa du barruraino oso ermo errotua. Hitz batez, edozer alda dadin gertu dago, kolonikuntzaren azkena nahi du bihotz muinetatik; baina bere egoeran eta bere izaeran iraultza horrek ganbiamendurik batere ekarriko duenik ez du somatu ere egiten.

Ezen gehiegizkoa baitzaio edozein irudimeni, irudimenaren beraren amaia eskatzea, baita bestela edo beste molde batetan berpiztekotan denean ere; batez ere, kolonizatzailearen kasuan gertatzen den bezala, berpizkunde hori batere istimatzen edo prezatzen ez delarik.

Orain oso errazki uler daiteke ezkertar kolonizatzailearen ezagupiderik etsigarrienetako bat: politikazko bere

eraginik eza. Bere buruan mamitua lehenik. Kolonikuntzan egiten duen sar-kerari berari dagokio batetik. Berak defenditzen duena, aide hutsa da, izan, baita eskuindar kolonizatzailearen ondoan ere. Nun ikusi da inoiz, beste alde batetik, zinezko politika-helbururik —mito edo fantasia ez denik bederen— erantzule gotorrik bere ondotik erakarri ez duenik? Dela populua, boterea, dirua, indarra. Eskuindar kolonizatzailea bera koloniaren «statu quo» hori eskatzen duenean, lotsarik gabe abantail gehiago nahi duelarik, edo oraindik ere eskubide gehiago, gotorra da, eta buruarekin ados. Bere interesak eta bere bizimodua gerizatzen ditu argi-eta-garbi, eta bere eska-bideak laguntzeko indar gaitzak eragin ditzake.

Kolonizatuaren esperantza eta borondatea ez dira ahulago, ilunago edo zalantzakorrago; eta, nahiz mementoko gaizki esnatuak, oinarri dituen indar gordeok, hazera eta handikuntza harrigarriak izan ditzakete.

Ezkertar kolonizatzaileak, berriz, ez du bere herri-kideen taldekoa izan nahi; baina, era berean, bere etorkizunaz eta kolonizatuaren zoriaz bat egiten ez daki, ezinezkoa zaio. Zer da hortaz, izan, politikaren alorrean? Zeren sinbolo eta adierazkia da, beraz, ez bada bere buruaren? Alegia, aurkaldi horretan indar ttiki-ttiki batena?

Bere borondate politikoak, horrela, hutsune eta arraildura handi bat ekarriko du beti bere barruan. Talde politiko bat eraikitzen saiatzen bada, ez du behin ere inor erakarriko; bere kideak, jadanik bera bezala ezkertar kolonizatzaile, edo beste ihesle batzuk, berauek ere koloka, ez kolonizatzaile ez kolonizatu. Beren interesak eta sendimenduak larregi erasotzen dituelako, ez du sekula kolonizatzaileen mordera bereganatuko, baina kolonizatuak ere ez, eratutako talde hori ez baita horien-gandik jaio, ez beroiek emana ere. Hots, hau izan ohi dira sakonki herrikoi diren alderdiak. Ez bedi, otoi, inolako proposamendutan has, bestalde: opor bat muntatzen, esate baterako; zeren-eta, saioa egitekotan, berehala kausituko bailuke bere ezintasun guztizkoa, bere

kanpotasuna. Nahiz bere laguntza mugadurarik gabe eskaini, ez lituzke gertakariak ezertan menderatuko; eta, bestalde, laguntza hori arbuaiatua ohi da eskuarki, baita ezteusa balitz hartua ere. Doharik egindako eskainkera horrek, bestalde, nabarmenago egiten du haren politikazko ezintasuna.

Haren ekintzaren eta kolonizatuaren ekintzaren artean dagoen arroila eta etendura horrek, aldez aurretik asma ezin daitezkeen ondorioak izango ditu, gainditu ezinak oso maiz. Koloniko egia politikoaz zinez jabetu nahi izanagatik ere, desegoki agertuko da etengabe, bai bere hizkeran bai bere agirietan. Zenbait aldiz, kolonizatuen eskabide honi edo hari uko egingo dio, eskatuaren funtsa hastapenetik ez somaturik; eta honek haren epelkeria frogatuko du itxuraz. Bestetan, berriz, abertzalerik ameslarienekin norgehiagoka nahirik, hitzezko herrizalekerian eroriko da; eta gehiegikeria hauek kolonizatuaren mesfidantza sortuko dute. Kolonizatzailearen eginak argitu nahirik, azalpen ilunbetsu eta makiabelikoak proposatuko ditu; baina kaso horietan kolonizatuaren barne-legeak aski zitezkeen. Edo, kolonizatua harrituz eta kezkatuz ere, honetxe bere buruan goratik gaitzesten duen hori barkatuko du harek. Hitz batez, gaizkiari uko eginez, borondate oneko kolonizatzaileak ezin dezake sekula ongia iritsi; zeren-eta *zilegi lekiokkeen hautu bakarra ez baita ongiaren eta gaizkiaren artean, gaizkiaren eta ezinegonaren artean baizik.*

Bere ahaleginen eta abotsaren eraginaz, azkenik, aitz galdera egiten dio bere buruari. Hitzezko bere amorroaldiek bere herrikideen herra piztutzen dute, baina kolonizatua bera soraio, hotz, eta lehen bezala uzten dute.

Ezkertar kolonizatzailea aginteaz jabetu ez denez gero, haren esanek eta agintzek ez dute batere ondorio egiazkorik kolonizatuaren bizieran. Beste alde batetik, dena dela, ezin daiteke kolonizatuarekin mintza, ezin diezaioke galderarik ez segurtamenik eska. Zanpatzaileetakoa da bera; eta keinu nahasirik ñimiñoena eginez gero, edo uzkurtasunik txikiena itzuriz gero —onginahiak zi-

legi egin lezakeen jatortasuna, haren ustez— akabo da: horra hor bera goganbehar iturri bihurturik. Aintzakotzat emana du, bestalde, ez duela zalantzaz edo agiriko galderaz, burrukan ari den kolonizatuaren eragotzi edo nardatu behar.

Laburki, hortaz, denak frogatzen dio bere desherrietasuna, bere bakardadea, bere eraginik eza. Poliki-poliki, isiltzea baizik falta ez zaiola aurkituko du. Dagoeneko, eta koloniko agintaritzaren ez sobera nardatzeko, eta kolonitiko kanpora irten behar ez izateko, askiko isilunez hornitu behar izaten zituen bere hitzaldiak.

Aitortu behar ote da, ordea, aisa ohitu den isildu-behar horrek ez diola horrenbesteko urradurarik ekarriko? Ezen, egia esan ere, bere burua bortxatu behar izaten baitzuen galanki bereak ez ziren interesak, baita askotan bere interesen aurkari eta etsai oso zirenak, defenditzeko?

Isiltasun hori betetzerik ez badu, bere biziaz etengabeko moldaketa gisa segitzerik ez badu, hoberenen artekoa baldin bada, kolonitiko joan daiteke, abantailak gal, eta kitto. Eta bere etika politikoak laxakeriatzat sala daitekeen jokabide hori onartzen ez badio, aginteari erasoko dio nahi hainbat, behar den beste kitzikatuko ditu agintariak, eta, halako batez, administrazio berezi horren arabera mintzatzeko, «metropoliaren manupean» jarria izango da. Eta kolonizatuaren izanari horrela utzita, bere kontraesana eta bere ezinegona erauziko ditu.

### III

## BERE BURUA ONTZAT EMATEN DUEN KOLONIZATZAILEA

...*Kolonialista, alegia*

Kolonikuntza arbuiazen duen kolonizatzaileak ez du bere kontrakarrean aurkitzen bere ezinegonaren amaia. Kolonizatzaile gisa bere burua erauzten ez badu, ezpailan,

ez-ta-bai luzean kokatzen da. Errotikako erabaki hori uxatzen badu, berriz, kolonikuntzaren harreman berezia sustatzen eta finkatzen du: alegia, kolonizatuaren eta bere buruaren arteko harremana. Kolonikuntza onartzea, *koloni-gizona izatetik kolonialista bihurtzera* daraman bidabururaino kurritzea, beraz, besteak baino erosoago izatea, konprenitu egin daiteke.

Kolonialista, hitz batez, kolonizatzailetzat eta kolonizatzaile den aldetik bere burua onartzen duen kolonizatzailea baizik ez da. Alegia, bere egoera nabarmen eraziz, kolonikuntza bera zuzenesten saiatzen dena. Jokabide hau bidezkoago da, eta sendimenduen aldetik ere gotorrago, bere burua ukatu, eta kolonian bertan bizitzeari atxikitzen dion kolonizatzailearena baino. Batak bere bizimodua bere ideologiaren arabera moldatu nahi du; besteak, berriz, bere bizieraren arabera egokitu nahi du bere ideologia, biok batuz, eta bere jokabidea zuzentziz. Oro har, *kolonialista da kolonizatzailearen ekarria, isuria, barne-deia*.

Ardura aurkeztu ohi dira *kanpotikako etorlea* eta *jatorrizko kolonialista* elkar-aurkari edo gisa. Bigunkiago onartzen omen ditu etorleak kolonialisten ideiak bertako semeak baino. Eta, egia esan, nahi-eta-ezkoago da jatorrizko kolonizatzailearen aldaketa, bestearena baino. Famili-giroak, obratutako interesak, beren horretan aurkitutako egoerak, haren biziaren muina bera izan dira; baita kolonialismoaren ideologiaren gakoa bera ere. Honak guztiak, beraz, mugatu egiten du oso, askatasuna galanki moztuz.

Ez dut uste, halare, liferentzia hori arras funtsatua denik. Abantailatu eta indar-ohoin gisako izaera objektiboa, berbera da biontzako: bai jaiosz geroztik bildu duenarentzako, bai lehorreraz geroztik bakarrik baliatzen duenarentzako. Kolonizatzailearen egoera onartzen badute, azkarrago edo motelago, zorrotzago edo kamutsago, nahi-ta-ez agertzen zaie bioi gaur badiren, eta bihar bilakatuko diren, horren oharketa.

Izan ere, ez da seinale ona kolonian bizitzea eraba-



kirik edukitzea; gehienetan behintzat ez da seinale ona izaten; dotea ezkontzea seinale ona izan ohi ez den bezala. Eta ez dezagun aipa ere, bestalde, aldez aurretik edozein gauza zuzenesteko prest datorren etorleaz; kolonikuntzaren etekinak eta hobariak bereziki uxtiatzera heldu denaz alegia. *Hau barne-deiaz izango baita kolonialista.*

Honen eredia ezaguna da, eta ziplo dator lumaren muturrera. Gaztea da gizona eskuarki, zuhurra, maltzurra; haren bizkar-hezurra malgua da, eta hortzak luze. Enkas, dena zuzenesten du: bai bertako puntuzkoak, bai sistema bera. Kaskagorreriarik latzenean, nabarmen baino nabarmenago dauden miseria gorriaz, gabeziak eta zuzentasunik ezaz, ezikusia egin, eta gauza bakar batetan finkatzen du bere arreta: leku bat han aurki, bere parteak bil. Gehienetan, gainera, deitua eta igorria izan da kolonira: babes-emale batek bidali du hara, beste batek errezebitu du, eta haren postua hantxe zegoen zai. Eta bereziki deitua izan ez dela gertatzen delarik ere, laister da hautatua. Koloni-anaitasunak jokutzen du: nola utz penetan aberkide hori?... Zenbat ez dudan nik ikusi, bezperan iritsi, eta izuti eta apal; eta bapatean deitura harrigarri horniturik, ilunpe hura, beraren harrigarria, ospeak brauki argiturik. Gizarte gerriko edo sostengu horrek horrela lagundurik, burua altxatzen dute; eta, berehala, beren buruei hain desmasian fidaturik, zozo ere bilakatzen dira. Kolonira joan direla-ta, nola ez dira horrelakook zeharo poztuko? Nola ez dute sinetsiko, bilakatu diren hori sistema horretzek ekarria, sistemaren bikaintasuna? Baita garrazkiro defendituko ere aurrera-koan, eta azkenean zuzenetsita dagoela pentsatuko. Hitz batez, horra hor kolonialista bihurturik. *Sineskuntzazko kolonialistari*, piskanaka horretaratuari, hastapenetako asmoak guztiz garbi ez izanagatik ere, azkeneko ondorioei gagozkielarik desberdintasunik ez dago.

Menturaz han funtzionari izendatua, edo lehengusuak lehengusuari eskainitako laguntza baliatzera etorrita, baliteke iristerakoan baita ezkertarra izatea; baina, ezin-

bestean, eta nahi-ta-ezko katean barrena aurreratu ala, gizatxar eta faltsu bihurtuko da, kolonialista hitz batez. Itsasoaz bestaldera joatea aski balitz bezala; beroak berak usteldu izan balu bezala!

Alderantziz ere, eta jatorrizko kolonizatzaileen artean, nahiz gehienek beren zorteari eutsi eta nola-edo-hala gerizatzen badute ere, bidea itzuletara kurrutzen duten batzuk badira: kolonikuntza arbuiatzen dute hauek, edo kolonitik at aldegiten. Gehienetan oso gazte jendea izaten dira, emankorrenak, zabalenak; eta, lehen gaztarotik irtetean, nagusi-haroan kolonian jarraitzeari uko egitea erabaki dute.

Bi kasuotan, beraz, hoberenak joaki. Etikaz batzutan: eguneroko bidegabeen probetxaketa ezin jasanda. Edo harrokeria hutsaz bestetan: zenbaitek beren buruak kolonizatzaile arrunta baino goragokotzat joaz. Uste ohi denez bestaldera, koloni-barneko xedeak oso hertsiak, txit mugatuak, balioko gizonek laister ahituak, direla erreparaturik, beste helburu edo beste nahikari batzuk hautatzen dituzte. Bi kasuotan koloniak ezin ditzake hoberenak beretzat atxik. Ez bidenabar dauden, eta tratua amaituta suturik edo lotsagaldurik atzera itzultzen diren artekoak; ezta joko faltsutu arrakero horretan garaitzea errazegi ikusi, eta norberaren egiazko emaitz-neurria ezin emanik, aurrerago ezin jasan dezaketen bertakoen artekoak ere. Onenek kanpora behar biotan.

«Aurrera ateratzen diren kolonizatuek —aitortzen zidan saminki azterketa-lehendakari batek— maila bereko Europatarrak baino hobeak izaten dira. Ziur egon daiteke merezi izan dutena».

### *Eskaskeria*

Multzo kolonizatzaileari gertatzen zaion isurketa etengabe horrek argitzen du ongi kolonialistaren ezagugarririk usuenetako bat: honen eskaskeria, honen erdipurdikeria.

Beharbada tolesgabeegia den etsikera batek azkar-tzen du kutsu hori: alegia, kolonialistaren izena, nahika-

riak eta erantzukizunak batetik; eta haren egiazko dohainak eta ekintz-ondorioak bestetik, desberdinak dira oso; hauen eta haien arteko bestetasuna eta desegokiera nabarmenegiak dira benetan. Kolonialista gizarte batetara hurbiltzean, nahi-ta-ez espero izaten dugu «elite» on bat bederen aurkitzea, eta taldetxo berezi bat behintzat aurkituko dugula uste dugu; teknikaririk onenak, eman dezagun, eragileenak eta seguruenak. Ia guztiok eta nun-nahi, eskubidez edo gertakari hutsez, posturik onenak hartzen dituzte. Badakite hori, eta dagozkien begiramentuak eta ohoreak eskatzen dituzte hertsiki. Gizarte kolonizatzaileak gizarte zuzentzaile izan nahi du, eta honen itxura hartzen saiatzen da. Metropoliko ordezkarien harrekek, areago dirudite gobernu-buru batenak, probintzi-gobernari batenak baino. Motorezko joanaldirik txikienak, motorista harro, zalapartatsu eta txistugile ilara oso bat ekarri ohi du bere ondotik. Kolonizatuaren hunkitu beharra gertatzen delarik, baita atzerritarra eta enkas kolonizatzailea bera ere, ezer ez da begiratzen, ezertan ere ez da zikoizki jokutzen. Bazterrak kikiltzeko behar dena behar.

Hots, gauzak bertagotik begiratzen direnean, kolonizatzaile txikiaren hanpuruskerien eta harropuzkerien atzetik, eskuarki ez da gixonik baizik aurkitu ohi. Kondaira obratu eta gidatu behar luketen politikariak, kondairazko jakinduriarik batere gabeak izaten dira, gertakariak behin eta berriz ustekabeen harrapatuak, uko alfer eta borobiletan kokatuak, edo alde zuzenetik ezer igartzeko ezinduak. Teknika-gizonak, herriaren zorte teknikoaren arduradunak alegia, edonolako norgehiagokak oro baztertu zaizkielako, gauditutako eta xaharkitutako teknikari gisa agertzen dira. Administrazio-gizonei dagokienez, berriz, kapitulu oso bat eskaini behar litzaieke koloni-gobernakeraren axolakabekeriari eta eskasiari. Egia esateko, bestalde, hauxe behar da esan: koloni-gobernakuntzarik egokiena ez dela behin ere kolonikuntzaren xedeetarik bat izan.

Kolonizatzaile-arrazarik ez dagoenez gero (kolonizatu-

-arrazarik ez dagoen bezalaxe), koloniko nagusien eskasia harrigarri hori azaltzeko beste azalpenen bat bilatu behar da. Hoberenen galera etengabea aipatu dugu goraxeago; galera bikoitza, azaldu dugunez: bertakoena, eta bide-nabar han dagoen jendeena. Fenomeno horri ezin osakin kaltegarriago bat darraikio: erdipurdiko horiek gelditu egiten direla, eta betirako gelditzen gainera, beren bizi guztirako. Ez baitzuten horrenbestekorik espero! Finkatuz gero, nekez galduko dute beren postutxoa, beste hobe bat ez bazaie eskaintzen bederen. Hots, hoberik ezin inola haiei suerta, kolonian bertan baizik. Horregatik, eta esan ohi denaz bestaldera, eta izaeraz beraz aldakor diren postu batzutan izan ezik, kolonietako langile-jendea aski aldagabe eta iraunkorra izaten da. Erdipurdikoen nagusikuntza eta goitiera, horrela, ez dira mementoko makurraldi igarokor bat, betirako deskalabroa baizik; eta alderdi honetatik koloniak ez dauka benetan bere burua altxatzerik. «Oiseau de passage» deitu ohi diren horiek ere, indarrez beterik iritsi arren, kolonietako administrazio-giro eskasa nekez alda dezakete, are gutxiago goitik behera ezer iraul.

Gizajende eskasen ezarian-ezariko hautaketa hau, beti ere eta nahi-ta-ez gertatzen da kolonietan; eta, bertako hauta-alorra hestua izanik, larriago bilakatzen da mehar-tasuna. Aitagandik semeagana, osabagandik ilobagana, lehengusuagandik lehengusuagana, hertsia eta arrazakoia da legedia; eta, hori dela bide, kolonizatzaileen multzotik irteten da soilki, eta kanpo aldetik erasten zaion parte ezin arinagoa hutsaren hurrena da. Histu bezala egiten da aparatoa, horrela, administraziozko odolkidetasun horren bitartez.

Eskasak markatzen du, azkenekoz, koloniaren doinu nagusia. Hori da kolonizatuaren benetako herrialde-kidea, horrek baitu behar ordainketarik handiena. Koloni-harremanik berezienak horren eta kolonizatuaren artean lotzen dira. Eta ahalik eta ermokienik eusten die berak harreman horiei, kolonikuntzari eta «statu quo»ari; ezen kolonitar bere izate osoa —somatzen duenez— horren

menpekoa baita. Osoki eta betirako jokatu du beraz koloniaren alde.

Horiek horrela, kolonialista guztiak erdipurdikoak eta eskasak izan ez arren, kolonizatzaile guztiak behar dute onartu, hein batez bederen, koloniko bizimoduaren eskakeria; eta kolonikuntzaren gizonik gehienen merkekeriarekin moldatu.

### *Neron-en konplejoa*

...Kolonizatzaile guztiak beren egoera eta inguramendu objetiboekin, eta datxezkeen giza-loturekin, moldatu beharra duen bezala, kolonikuntza baiestea hautatu delako, eragozpen objetiboak ez ditu halere baztertu edo ezereztu. Ekonomiaren, politikaren eta sendimenaren mailan batera koloni-egoerak oinarri batzutara behartzen du kolonizatzailea oro; eta hau haien kontra altxatzen denean ere, ez ditu halere baldintzak ganbiarazten edo urruntzen; kolonikuntzaren beraren muina oinarri horietxek direlako.

Bere burua kolonizatzaile gisa onartuz, horrela, nahiz horietatik at joatera deliberaturik ere, betekizun horrek, besteen iritziz eta bere iritziz ere bai, dituen alderdi laido-garriak onartu behar izaten ditu. Erabaki horrek ez dio inundik ematen arima-bake zoriontsu eta betirakorik bati. Aitzitik, hautatutako egoerari dagokion ezpai eta zalantza giro horri nagusitzekotan egingo duen ahaleginak, haren ulerkuntzaren giltza bat emango digu. Kolonialista bere eskubideez zinez sinetsita egon balitz, koloniko giza-harremanak hobeak izango zirakeen beharbada, eta kolonizatuarentzako pitin bat jasangarriago. Guztira, beraz, bere burua gaitzesten eta bere burua onartzen duten kolonizatzaileei, problema berbera gaineratzen zaie funtsean. Soluzioak dira liferente: *bere burua onartzen duen kolonizatzailearenak, kolonialista bilakarazten du ezinbestean.*

Bere burua onartzetik eta bere egoeratik, hain zuzen, ezagugarri batzuk irtengo dira. Hots, ezagugarri horiek

multzo sendo bat osatzen dute. Multzo *horri indar-ohoinaren betekizuna* deitzea proposatzen dugu; edo-ta *Neron-en konplejoa*.

Esan dugunez, kolonizatzaile batek bere burua kolonizatzaile gisa ontzat ematea, bidegabezko, kontrazuzenezko abantailatu gisa onartzea litzateke; alegia, usurpatzaile gisa, indar-ohoin gisa onartzea. Jakina, bere lekua utzaratzen du indar-ohoinak; eta, beharra gertatzeraz, bide guztiak baliatuz defendituko du. Baina badauki, eta ez du ukatzen; eta ebatsitako leku bat eskatzen du. Beste modu batera esateko, garaitu duen une berean, berak gaitzesten duen bere irudi horrek garaitzea onartu du. Haren garaitzapena, horrela, *egitezkoa* da, obrazkoa; eta ez du behinere aseko: legeetan eta gizabidean izkiria arazi behar horretarako. Hori dela-ta, besteak bildu eta erakarri behar lituzke, besteak irabazi, bere burua ere ez bada. Hitz batez, gostuan gozatzeko, bere garaitzapena eta garaipideak berak garbitu behar. Eta hortik itxuraz xehekeria hutsak diren puntuei buruz erakusten duen amorro bizia eta harrigarria: kondaira faltsutzen saiatzen da, esate baterako; liburuak berriro idatz erazten, oroitzapenak berak fundituko lituzke ahal balu; indar-ohointza bidezko, zuzen eta eskubidezko bihurtzeko saiaketa errabiatuan, dena on.

Nola joka, ordea? Nola egin indar-ohointza zuzenbide bihur dadin? Bi jokabide ageri bide dira: indar-ohoinaren merezimendu apartak frogatzea bata, hain apartak non sariketa hori merezi baitute; edo-ta, bestea, lapurtuaren akatsak nabarmen eraztea, eta hainbestearaino non zoritxar hori bera ere ekarri baitute. Bi eginahal mota horiek berezi ezinak dira pratikan. Bere kezkek, bere zuzenespen-egarriak, batera behartzen dute indar-ohoina hodeietaraino bere burua goratzera, eta ebatsia izan dena, berriz, lurrazpia baino beherago zapaltzea.

Elkar-osakuntza horrek, bestalde, ez du bi mogimendu horien erlazio korapilotsua zeharo biltzen eta azaltzen. Beste ohar bat erantsi behar da: lapurtua dena zapaltzenago, eta ohoina bere ohointzan garaitzenago; eta, hortaz,

gotorrago egiten bere errutasuna eta bere kontrako gaitzespena. Mekanismoaren abiadan aurrerago, beraz, eta bera ere joanago, eta abiadak berak larriago. Azken mugan, horrela, indar-ohoinak lapurtua bera desegin eta ezereztu egin beharko luke; honen izateak berak, besterik gabe, lapur gisa agerrerazten baitu. Zapalketa larriago eta osoago egin ala, zanpatzaileago bihurtzen. Neron, horrela, indar-ohoin guztien eredu aproposa, Britannicus jazartzera beharturik gertatu zen. Baina honi gaitz gaitzagoak eman, eta beteago eta nabarmenago agertzen hautatu zuen betekizun lazgarria. Bidegabean sartuago, beraz, eta Britannicus gorrotatuago, eta bere bitima hori hondatzen gogozago, eta bere burua etengabe borrero bihurtuago. Erretaulkia lapurtu ondoren, hari gelditu zitzaion ondasun bakarra, Juni-ren maitasuna, lapurtzen saiatu behar. Ez bekaizkeria hutsez edo doilorkeriaz; baina indar-ohointzaren barne-ezinbestetasunak eramanda; eta azkenean zirrikagune nagusiraino lerratuko: izpirituz eta gorputzez lapurtutako pertsonaren hilkintza.

Kolonialistaren kasoan, halaz ere, muga horrek bere buruan bertan aurkitzen du bere neurpidea. Ezen barne-ilunpetan bederen bizidunen mapatik kolonizatua erauzteko eta akabatzeke gogoia etortzen bazaio ere —eta goratik esaten batzutan— bere burua eraso gabe ezin egin lezake horrelakorik.

Mugarik badago, beraz: kolonialistaren izatea lotuegi dago kolonizatuarenarekin; eta dialektika hori gainditu ezinezkoa da. Bere indar guztiez, beraz, kolonizatua ukatu behar du; baina, horrekin batera, izaten jarraitzeko, bere bitimaren izateari eutsi behar dio. Kolonikuntzari eustea erabaki duenez geroztik, arbuatuz gero behar zukeen baino indar handiagoa beharko du egin. Kolonizatuari lotzen duen loturaren bidegabeaz ohartu den unetik beretik, bere burua barkatu beharko du behin eta berriz. Bere bertuteen gorantza egingo du agiri-agirian, umant, gizauren eta handi agertzeko, bere zortea merezi zuela erakusteko, tema harrigarrian goratuko eta hantuko du bere burua. Denbora be-

rean, bere abantailak bere loriaren eta osparean ondorio gisa hainbat, kolonizatuaren ezteuskeriatik ere heldu direnez gero, gutxiesten eta ezereza agertzen ahaleginduko da jo-ta-ke. Haren irudia egiterakoan, kolorerik ilunenak erabiliko ditu; desbaloratzeko, funditzeko, jokatu ere egingo du beharrezkoa baldin bada. Baina inguru horregatik ez da sekula irtengo: beraren eta kolonizatuaren arteko bitarte hori azaldu egin behar. Hots, bere burua garbitzeko, bitarte hori handitzera beharturik gertatzen da, baita bi irudiok erremediorik gabe elkarren aurkatzera: berea batetik, loriatsu eta diztirante; kolonizatuarena, bestetik, mespretxagarria arrunt.

### *Bi irudiak*

Auto-zuzenespenak, bere buruaren garbiketak, horrela, benetan darama koloni-dramaren bi nor-buruak alegiazko birreraikierara. Errazagorik ez dago bi irudion ezagugarri aurkariak elkartzea baino. Egonaldi bat kolonian, elkarrizketa batzuk, edo, besterik gabe, kolonitarrak omen diren prentsari edo nobelei begiralditxo bat, eta aski.

Bi irudiok, geroago ikusiko dugunez, ez dira ondorioz gabeak. Kolonizatuarenak, batetik, kolonialistak ikusia, honen beharrak onar erazia, kolonian eta mundu guztian ere zabaldua, kasetak direla, literatura dela, azkenean eragin egiten du kolonizatuaren jokabideetan eta egiazko izakeran bertan. Berebat, kolonialistak bere burua ikusi nahi duen erak, betekizun eta garrantzi gaitzak ditu bere azken izakeraren azalketan.

Zeren-eta adimendu soilaren araberako onarrera ez baita arazoa, baina bizikera osoaren aukeraketa bat. Gizon hori, beharbada adiskide laño eta aita bihozpera; sorlekuan bere gizarte-egoera, bere fameli-giroa eta berezko bere adiskidetasunengatik demokrata izatera deitua; hemen, kolonian, eskuindar eta ondasunkoi bihurtuko da

(1) *Ikus aurrerago: kolonizatuaren irudia.*



eskierki, atzerakoi, kontserbakor amorratu, baita kolonifazista ere bai ausaz. Kontrazuzenaren legetza eta berezkeria ontzat hartu beharko ditu nahi ta nahi-ez, poztu egingo dute polizi-torturek, eta, beharra gertatzekotan, sarraskiaren ezinbestez sinetsita egongo da. Denak horretaratuko du: bere interes berriek, bere bizipide-harremenek, kolonian mamitutako bere fameli eta adiskide loturek. Denak. Mekanikeria hori ia irtenbiderik gabea da: *kolonikuntzak batera prestatzen ditu kolonialistak eta kolonizatuak.*

### *Bere buruaren erdainua*

Ez baita ondorenik gabe gertatzen, bizipidea izateko poliziaren eta armadaren beharra, bizi izaten segitzeko bortxaz eta zuzengabekeriaz baliatu beharra. Ez da kalterik gabe erabakitzen etendurarik gabe norberaren gaitzespenarekin bizitzea. Norberaren eta bereen gorantzak, norberaren ohituren eta instituzioen bikaintasunaren baiespen taigabeak (nahiz zinez sinetsita botaiak), norberaren kulturaren eta teknikaren gorentasunaren kantu amaigabeak, ez dute halere ezabatzen kolonialista guztiek beren bihotzondoan iltzaturik daramaten funtsezko gaitzespen, uko eta arbuioa. Nola egingo luke kontutan ez hartzeko? Bere barne-abotsa isil erazten saiatuko balitz, egunero gogoraziko lioke denak: kolonizatuaren ikuste hutsak, atzerritarren zirto leunek edo salaketa basa bortitzek, koloniko bere kideen aitorek; eta metropolirako bidaiek ere berdin, hara doan bakoitzean bere inguruan nabarmen erreparatzen baitu berekiko aiheru bekaizti apur hori, pitin bat ere etorkor edo. Jakina, ezтики hartua da, ekonomiaren eta politikaren mailan indar zerbait duten guztiek bezala. Baina abila izan dela idarokitzen da, egoera berezi horri buelta ematen asmatu duela sendi arazten; hots, egoera horri datxezkon aukera horiek hala-holakoak direla adierazten da hitzerdika. Ia-ia begi keinuren bat ere egingo litzaioke gogoz.

Salaketa hori, hitzik gabea ala garbiki aitortua, beti

hor, beti bere buruan eta besteengan jalgitzeko prest; eta ahal bezala defenditu behar. Zenbait aldiz bizimodu urrun bitxi horren zailtasunak eta itsustasunak ager erazten ditu. Klimaren makurreria malmutzak, eritasunen maiztasuna, lur lehorraren aurkako burruka, hango oste etsaien mesfidantza. Horrek guztiak ez ote luke ordain-sariren bat mereziko? Zenbait aldiz, berriz, hasarretu egiten da, eta 'hortza hortzaren' erakusten: mespretxuari mespretxuz, koldarkeria eta usteldura salatzen ditu metropolitarrarengan. Edo-ta, guztiz beste muturrean, desherrikuntzaren ondasunak aitortzen eta goraiiputzen ditu; baita (zergatik ez, bada?) hautatu duen bizimoduaren abantailak prezatzen: bizikera erraza, sehiak ugari, Europan ezinezkoa eta anakronikoa litzatekeen agintearen gozamina, gasolinaren merkea. Araiz horren gogoz bilatu arren, ezer ez diezaioke balantzazko bere irudi baikor bikain hori atxik edo atxeman. Ez atzerritarrak, gehienez hotz, baina ez tronpatu ez gaizkide; ez bere jatorrizko aberriak, zeren-eta honetan beti baita goganbehartsu, eta askotan eraso; ez-eta, azkenik, eguneroko bere jokatibideak, kolonizatuaren jazarkunde isilari ez-ikusia egin nahi bailioke. Besteek salaturik, beraz, sinetsi ez du ia batere sinesten bere arazoaz; eta, bere arimaren zolan, *errudun aitortzen du bere burua.*

### *Abertzalea*

Gauzak horrela, garbi dago birrerosiko eta salbatuko lukeen beharrezko handitasuna bere buruan aurkitzerik ez duela zinez espero. Bere hantustearen gehiegikeriak, kolonialismoari buruz prestatu duen irudiaren ederregiak, areago salatzen eta saltzen du bera, zerbitzatzen baino. Eta, egia esateko, beti jo izan du batera beregandik at laguntza eske: *metropolian bilatzen du bere azken salbabidea.*

Hain zuzen ere, bi baldintza bete behar ditu aldeztetik onespén horrek. Lehenengoa, bitarteko den aldetik, bere merezimenduak agertuko badira, bera semea

den mundu horretxen atala izatea. Bigarrena, kolonizatua inoiz balia ahal ez dakion, kolonitik arras kanpokoia izan behar du mundu horrek.

Hots, miragarriri betetzen ditu metropoliak bi baldintza horiek. Jatorrizko bere Aberriaren bikaintasunak harrotuko ditu, beraz, behin eta berriz ospatuz eta handituz, haren tradizio desberdinei eta kultur-jatortasunari ekinez. Horrela jokatzuz, batera ezarriko ditu agerian mundu miresgarri horrekiko bere lotkia, metropoliari atxikitzen dion lotura berezko eta sortzezkoa; baita kolonizatuak edertasun horietaz gozatzeko dituen ezintasuna eta jatorrizko bestetasun osoa, batera zorigaiztoko eta mespretxagarri.

Aukera hori, xantza eder hori, egunero merezi nahi izaten du kolonialistak, bestalde. Nazio-elkarteko elementurik argienetako baten gisa presentatzen du bere burua; onenetako bat omen. Bera eskerrona eta leiala delako. Berak badaki, jakin, behinere arriskutan ez dagoen metropolitarrak jakin ohi ez duena: alegia, bere jatorriari zenbat zor dion. Eta haren leialtasuna ez da, halere, intereskoa; frogarik garbiena, besteak beste, metropoliari buruzko bere urruntasuna bera. Leialtasun hori ez du te metropolitarraren bizi-ziztrinkeriek lardazkatzen; ezen horrek maltzurkeriaz eta hauteskunde-azpikeriaz jokatu behar izaten baitu. Aberriarekiko maitasun aratz horrek egiazko abertzale bilakarazten du: dauzkan alderdirik prestuenak bilduz, ongienik nortzen duena bera da.

Eta egia da alde batetik sinets eraztera eraman gintzakeela. Sinbolorik dirdaitsuenak maite ditu, bere aberriaren indar agiririk azkarrenak. Militar parada guztietara joaten da; eta usu eta ausarki horniturik opa ditu, baita lortzen ere; eta lizifrinaz eta harrokeriaz agertuz, bere parte erasten du. Armada eta indarra miresten ditu, uniforme errespetatzen, eta dominak eta golardoak hirikitzen. Ospearen politika deitu ohi dena ikutu dugu horretan. Eta horren kakoa ez da ekonomiaren mailakoa bakarrik («erabili behar ez izateko, indarra erakustea onena»); baina koloniko bizieraren behar sakon batena:

norbera segurtaturik atxematea hainbat bilatzen da kolonizatua zauskatzea eta hunkitzea.

Honen ordainez, eta bere handitasun ttipiskoaren piasua eta ordezkaritza metropoliaren eskuetan jarrita, bere esperantzak orain horretzek betetzea espero du. Konfiantza horren merezimendua eskatzen dio hertsiki, desiratzten duen irudi garbi hori metropoliak atzera bihur diezaion: alegia, kolonizatuari iritsi ezinezko zaion helburu-eite bat, eta bahitutako merezimenduon xuribide osoa. Askotan, konfiantza horri eutsi eta eutsi, pitin bat sinetsi ere egiten du. Lehorrera berriak, oroimena oraindik berri eta hobengabe, askoz ere zehazkiago mintzatu ohi dira metropoliak, aspaldidaniko kolonialistak baino. Bi herriei buruz etorri berriok mintzo direnean, baztertu ezinezko beren gonbaraketak sortzen dira; eta oraindik ere aldeko eta aurkako ilarak elkarren parekotzat jo daitezke gutxi gora-behera. Kolonialista-ohiak, berriz, jatorrizko bere herriaren egia bizia ahantzi bide du. Urteetan barrena, eta zeharo koloniaz bestalde, hain oroitarri bikain bihurtu du metropolia, nun kolonia nahi-ta-ez hutsala eta eskasa iruditzen baitzaio. Harrigarria da, esate baterako, baita kolonian bertan jaiotako kolonizatzaileei berei; alegia, baita haragiz eta izatez laketuak, egokituak eta bertakotuak direnei; baita eguzkiaz, berotasunaz eta lur lehorraz usatuak direnei ere, jatorrizko eskualde urrun haiek, lanotsu, heze eta berde iruditzen zaizkie. Kolonizatzaileen multzoaren Super-Egoan metropolia funtsezko atal bat balitz bezala, haren ezagugarri objetiboak nolatasun etiko bilakatzen bide dira ia-ia. Hau da, bistan bide da lana, berez, eguzkia baino hobea dela; baita berdea ederragoa horiska baino. Alderdi onek baizik ez dute horrela metropolia osatzen: klimaren egokitasunak eta lekuen arrimuak, gizarte lizifrinak eta askatasun finak, edertasunak, gizabideak eta logikak.

Haurkeria litzateke, halaz ere, kolonialistari ahalik eta azkarrenik mundu miresgarri horretara joateko errepikatzea, eta inoiz aldendu izanaren makur hura erremediatzeko. Noiztanik finkatu da inor, ordea, eguneroko

bertutean eta edertasunean? Horixe da hain zuzen Super-Ego guztien berezkoena: ez dela bizitua, hezur-haragizko gizonen biziera eskas zalantzatsua urrundik erregelatzen duela, sekula atzitua izan gabe.

Metropolia horren handia da ikusmugatik at dagoelako, eta honixe esker kolonialistaren jokabidea eta izatea baloratzera uzten duelako. Kolonialistak, inoiz hara bihurtuko balitz, gorentasuna galduko luke; eta giza-aparta izateari aldegingo lioke horrela. Kolonian dena bada ere, metropolian ezer izango ez litzatekeela badauki. Haraz gero, edonor bihurtuko litzateke. Egia esan, gonbaraketazkoa da metropoliaren ideia. Bere buruari bilduta, ezteustu egingo litzateke, eta denbora berean kolonialistaren super-gizatasuna fundituko luke. Kolonian bakarrik, metropoli bat duelako, eta bere bizikideek halakorik ez dutelako, kolonian ez beste inun bildurtzen du kolonialistak eta miresgarri inori agertzen. Nola utziko ote luke berak, hiri-sortzaile edo berebiziko gerlari izan ez arren, oraindik ere herriak bir-izendatu eta nork bere izena geografiari erantsi egin daitekeen eskualde bakar hori? Irrigarri azaltzeko edo biztanleen herra piztutzeko bildurrik gabe, gero; zeren-eta bertakoen irizpidea antsi ez baita!

Nola urrunduko, nola joango norberaren indarraren eta inportantziaren ageriak egunero jaso arazten dituen herrialdetik?

### *Kontserbakorra*

Metropolia, beraz, inoiz bizi izana ez den helburu urruna izatea beharrezkoa izanik ere, ez da guztiagatik aski; ezen alda-ezina izan behar baita, eta denboraren aurka babestua. Metropolia kontserbakorra izan dadin behar du kolonialistak.

Jakina: halakoa da bera, osoki. Hain zuzen ere, horri buruz da bera hertsiena, horretantxe ez du zipitzik amor ematen. Azken mementoan baliteke instituzioen

edo metropolitaren ohiturek kritika berak jasan ahal izatea: ez baita txarrenaren errudun, baina onena defenditzen. Kezkak hartzen du halere, eroaldiek asaldatzen, politika-egoera ikutzea aipatu orduko. Orduantxe uheretzen da haren abertzaletasunaren gardena, orduantxe dardaritzen aberri-amarekiko bere atxikimendu ermoa. Orduan, bai (harriduraren eskerge!) baita berezkuntzaren mehatxuraino joan daiteke! Kontraesan nabarmena dirudi asmo horrek, zentzugabea, bestetan horren azkarki eta hein batez egiazki agertutako bere abertzaletasunaren ondoan.

Baina kolonialistaren abertzaletasuna oso berezia eta bitxia da, izan; kolonialista gisako bere izatea onartzen eta babesten duen aberriaren alderdia besterik ez baitu kontutan hartzen. Demokratiko bilakatuko litzatekeen metropolia, gonbarazio baterako, are kolonietan beretan ere eskubideen berdintasuna bultzatuz, kolonikuntza alde batera uzteko arriskutan jarriko litzateke. Horrelako gantziak edo bilakaera bat, *hil-da-biziko arazo* bihurtuko litzaioke kolonialistari, bizieraren funtsa bera kinka gaiztoan paratuz.

Horretaraz gero, beraz, haren abertzaletasuna koloka agertzen da, eta aberriaren aurpegi peileburutsu horri ez-ezagutua egiten dio.

### *Fazismoaren zirikaldia*

Kolonialista gisa jarrai ahal dezan, beharrezkoa da metropolia betiko metropoli egotea. Hots, hura honen eskuetan dagoen neurrian, ulergarria da bera indar guztiez horretan saiatzea.

Beste urrats bat egin daiteke, ordea: *eta koloni-nazio guztiek, horrela, fazista lerrakuntzaren bazia daramate berengan.*

Zer da-ta, izan, fazismoa? Zer da zenbaiten fagoretan eraikitako zapalbide bat baizik? Hots, koloniko administrazio eta politika sistema osoak horixe dauka helburu

bakartzat. Ahal denik eta zapalkuntzarik osoenetik jalgitzen dira giza-harremanak; desberdintasuna eta mespretxua dira haien oinarriak, eta polizikeriak segurtatzen ditu. Kolonialismoa bere haragian jasan duenari, ez zaio zalantzazkoa iruditzen: fazismo mota bat da hura. Ez da harrigarria, beraz, gertatu ohi dena: agintaritza liberal bati dagozkion instituzioak, funtsean metropoliko-etatik horren urrun eta desberdin gertatzea. Gobernu demokratikoek berek maiz kolonietan hartzen duten itxura larderikoi eta orokoia, ez da erokeria edo harrigarria, axalez izan ezik: kolonizatuekiko bitartekotza kolonialistek hartua dutenez gero, ezin dezakete bestelakorik har eta.

Ez da harrigarriago, bestalde, koloni-fazismoa koloniaren barruan nekez kokatzea eta mugatzea. Minbiziek oro hedakundea dute eskaera bakartzat. Gobernu eta joera atzerakoi eta zapaltzaileak, edo kontserbakorrak bederen, sustatu besterik ezin dezake kolonialistak egin. Metropoliko egoera (eta berea ere bai, hortaz) atxikiko dituzten joeraz eta gobernuak sustatzen ditu, beraz; edo, oraino hobeki, zapalketaren habeak ermokiago tinkatuko dituztenak. Gero sendatzea baino aldez aurretik zaintzea hobe denez gero, nola ez litzateke zirikatua izango halako gobernuen eta aginte-keren jaiotza erakartzen? Bere dirubideak (eta politikoak gauza bera, hortaz) gehiegizkoak izanik, gainera, ongi konprenitzen da gertatzen dena: metropoliko agintearen arabera, etengabeko arriskua, eta edozein mementotan metropoli osoa kutsa eta gaitza dezakeen pozoin-maskuria izatea.

Inoiz mogituko ez balitz ere, bere izateak berak, koloni-sistimaren izateak berak, etsenplu gisa proposa daitezke metropoliaren kinkaldietan. Politikabide baten estrapolazio kilikagarria da, bai: eragozpenak eta arazoak oro gobernatuen morrointza guztizkoaren bidez konpon daitezke. Ez da batere hanpaketa, hortaz, hau pentsatzea: kolonikuntzak kolonietako europatarra usteltzen duen bezala, *metropoliaren usteltzearen hazia dela kolonialista bera.*

*Metropoliaren kontrako hisia*

Haren abertzaletasunaren beroegiari dagozkion arriskua eta iluna, beste lekutan ere aurkitzen da; eta oso bereziki metropoliarekin dituen harremanen argigabea eta ez-baian. Bai, egiazki: Aberriaren loria ospatzen du, ospe horri gogotik heltzen dio, baita geldi arazi ere arte, baita ito arte beharrezkoa baldin bada. Baina, denbora berean, hisi sakona, erresumin latza senditzen ditu metropoliaren eta metropolitarraren kontra.

Orain arte kolonizatzaileak kolonizatuari buruz duen abantaila aipatu du soilki. Baina, funtsean, koloniko europatarrak badaki bi aldiz dela abantailatua: kolonizatuaren arabera batetik, eta metropolitarraren arabera bestetik. Koloni-abantailok, era berean, hau guztia adierazten dute: maila berean, eman dezagun, bertako funtzionariak gehiago irabazten duela metropolikoak baino, saltzaileak zerga txikiagoak pagatzen dituela; eta bai jatorrizko ekaiak bai langileak, gutxiago pagatzen dituela industri-gizonak. Gonbaraketa ez da hor gelditzen, gainera. Koloni-abantaila kolonizatu bera izan ahal dadin beharrezkoa den bezala, metropoliaren eta metropolitarraren ondorioa da. Kolonialistak ongi daki berak atxikarazten diola Armada metropoliari; eta kolonia, harentzako hobari iturri bada ere, gehiago gostatzen zaiola metropolitarrari ematen diona baino.

Kolonizatzailearen eta kolonizatuaren arteko harremanen funtsa ekonomi eta gizarte harremanei dagokien bezala, kolonizatzailearen eta metropolitarraren arteko harremanak ere elkar-egoera eta elkarrekiko jarreraren ondorio dira. Kolonizatzailea ez da batere harro bere aberkidearen eguneroko eragozpenak, bakarrik jasan behar dituen zergak, eta etekin urriak ikusita. Urteroko bere bidaiatik etxerakoan, asaldaturik etorri ohi da, bere buruz gaitzi, eta metropolitarraren aurka hasarreturik. Beti bezala, erantzun egin behar du ahal bezala: lehenengo zirtoari edo eraso nabarmenei, arrapostu bat eman behar; baita horretarako eskas agertua den matrikula-piloa ba-



liatu: afrikar eguzkiaren arriskuak, egos-tutuaren eritasunak, eta kolonitar ginbaileko gizaurenen mitologia higituak.

Ez dute, bestalde, politika-hizkuntza berbera erabiltzen: *klase berberari gagozkiolarik, berez dago kolonialista metropolitarrak baino eskuin alderago*. Berriki iritsitako lagun batek jatorri aitortzen zidan behin bere harridura: bolariak, metropolian sozialista edo radikalak eskuarki, kolonian atzerakoi edo fazistaide izatea zergatik gertatzen ote den ez omen zuen konprenitzen.

Badago, azkenik, kolonialistaren eta metropolitarraren artean, politikan eta ekonomian funtsaturik, egiazko aurkatasun bat. Eta, alde honetatik, eskubide osoa du kolonialistak metropoliarekiko bere egiazko desherritasuna aipatzen duenean; bere aberkideen interes berberak ez baititu. Hein batez, bera ez da, izan, beste aberkide bat.

*Gorantza-hisia* dialektika horrezaz elikatzen den bere abertzaletasun-plegua, oso gauza bitxia da: txit modu desberdinetan lotzen ditu kolonialista eta aberria, eta maitasun hori oso harrigarriro markatzen. Zalantzarik gabe ahalik eta irudirik loriatsuena eta ederrena ematen saiatzen da etengabe; baina espero duen guzti horrek orbantzen du jaiera hori.

Hori dela-ta, bere bandera-zalekeria behin ere apaltzera uzten ez badu ere, bere losintxak eta espantuak beti ugari erakusten baditu ere, gaizki izkuta dezake bere herra, bere hisia. Beti eta beti egon behar du erne, baita ekintzan sartu ere, babesten duen armadari metropoliak eutsi diezaion, kolonialista bera legetzen eta onartzen duten politika-ohiturak atxik ditzan, eta kolonizatuari erakuts ahal izateko aurpegi egokia gorde dezan bizirik. Eta metropoliak, bere eskasiaz azkenean sinetsirik, koloni-prosupostuak dira kolonialistaren indarraldien ordain-saria.

### *Kolonizatuaren arbuioa*

Koloni zapalketa hain eskerga izanik, ordea, metro-

poliaren gorantza azkengabe hori bera aski ez da sekula. Kolonikuntza zuzenesteko besterik ere behar da. Egia esan, nagusiaren eta morroinaren arteko tartea ez da inoiz aski handia. Ia beti, horrela, gorantzekin batera, kolonizatuaren lardazketa eta maiseaketa kupidagabe eta etengabeari ematen dio kolonialistak.

Eta horretan, sinetsita egon, inork bultzatu beharrik batere ez du: mukurru dago joera horretaz, arazo horretxek urratzen dizkio kontzientzia eta bizia. Kolonia kolonizaturik gabe asmatzen saiatzen da, pentsamendutik hura baztertzen. Dirudien baino serio sago den zirto horrek dionez, «bikaina litzateke dena... bertakorik ez balego, ordea!». Hots, kolonialista ongi ohartzen da: kolonizaturik gabe, koloniak ez luke batere funtsik. Eta ezin jasanezko kontradizio horrek sutan jartzen du, herraz betetzen du; eta pilatzen zaion amorro hori beti egoten da kolonizatuaren gainera isurtzeko zorian, haren kez karen okasio errugabe eta ezinbesteko bihurtua. Ez pentsa, ordea, horrelakorik poliziei eta aginte-funtziolari ei ez besteri gertatzen zaienik; nahiz hauentzako, jakina denez, lorakunde eta aurrerapen aukera gaitzak eta harri garriak izan kolonietan. Txundituta ikusi ditut nik funtzionari baketsuak, bestetan atsegin eta ele oneko irakasleak, ezteuskeria hutsalengatik bapatean munstro zalapartari eta oi hu-egile bihurturik. Kolonizatuaren kontra salaketarik eragabeenak egiten dira. Osagile zahar batek aitortu dit, gorrotoz eta seriostasunez batera, «kolonizatuak arnasa hartzen ez dakiela». Eta irakasle batek, ondoko hau guztia azaldu dit halako batez: «Hemen jendeak ez daki ibiltzen; mogitzeko balio ez duten urrats txiki txikiak egiten dira»; eta, zion, hortik heldu da, itxura denez, kolonietako kaleetan nabaritu ohi den (omen) herresta nagi kutsu hori.

Kolonizatuaren baliogabekuntza, horrela, ikutzen duen guztiraino hedatzen da. Haren herrialderaino: itsusia, be-roegia, harrigarriro hotza, kiratsa, eta haro gaiztokoa delako; haren geografiraino ere bai, ezen, horren itxuraga-

bea izanik, mespretxura, txirotasunera, eta betirako menpetasunera kondenatzen baitu.

Kolonizatuaren apalkuntza edo umiltzapen horrek, haren hutsa eta gabezia azaldu behar ditu; eta, era berean, kolonialistaren alderdi onak ager erazi. Salaketa horiek, ezinbestean ukatzaile eta zapuztaile diren iritzi horiek oro, beti ere *metropoliaren arabera* moldatzen dira; alegia, ager erazi dugun bide-gurutzamendu baten bidez, kolonialistaren beraren arabera. Gizabidearen eta soziologiaren mailan, estetikaren eta geografiarenean; nabarmen eta laidogarri, ala zeharkako eta faltsu, beti ere metropoliaren eta kolonialistaren alde egiten dira. *Hemen, hemengotarrak, herri honen ohiturak*, beti izaten dira, eta urrundik izaten dira, eskasagoak; eta hori gainera ezinbesteko taxuketaren poderioz.

Kolonia eta kolonizatua bera batera arbuiatu nahi horrek oso ondorio larriak ekarriko ditu kolonizatuaren bizieran eta jokabideetan. Baina kolonialistaren jokabideen baranoan ere guztiz ondorio kaltegarriak ekartzen ditu. Kolonia era horretara aurkeztuta, koloni-herriari merezimendurik batere aitortzen ez delarik, haren tradizioak, haren legeak eta haren ohiturak aintzakotzat ezin harturik, bere burua ezin eman dezake hondakin pilo horren barrukotzat. Ez du horrela bertako hiritarra izan nahi (alegia, eskubidez eta eginbeharrez horniturik gelditzeko); eta, bide beretik, ez du nahi bere semea izan dadin.

Beste alde batetik, berriz, jatorrizko aberria eta bere burua etendurarik gabeko moduan loturik ikusten baditu ere, ez da han bizi, bere aberkideen multzo-kontzientzian ez du parterik hartzen, ezta egunero eragirik gertatzen ere. Soziologiako lotkia bikun —eta bietan ezezkorra— horren bitartez, kolonialista *aidekoa da biritasunez*. Alde batetik, berea nahi duen gizarte urruna dago, hein batez alegia eta mito bihurtua; eta bestetik, bere ondoko gizarte egiazkoa, berak ukatua halere, eta bazterrean eta abstrazioan atxikia. Eta bion artetik doa igeri bera, hegaz, kulunka.

Zeren-eta, jakina, ez baitute eskualdearen lehorrak

edo koloni-hirien motelak kolonialistaren arbuioa ulertarazten. Aitzitik, bertako eskualdea eta herria onartu ez dituelako, edo onartzerik ez zeukalako, gertatu dira eskualdeok lehor, eta eraikiera hori pratikeria etsigarriaren frutu. Zergatik ez du ezer egin, esate baterako, hirigintzaren aldetik? Hiri ondoko aintzira kiratsaz, gainezka isurtzen diren zakar-hodiez, edo gaizki ari diren zerbitzuez arregurutzen denean, administrazioaren aginpide guztia bere eskuetan daukala ahantzi-itxura egiten du; lehendabizikorik bere buruaz arduratu behar zukeela ahantzi balu bezala. Zergatik ez du bere eginahala zabalki eta nasaiki pentsatzen? Zergatik ezin dezake horrelakorik egin? Administratuen artetik hautatutako edozein herriko etxe, beroien aisiaz ez-ezik etorkizunaz eta geroaz ere arduratu ohi da; eta haren saiaketa denboran barrena, hiriaren bizi-hildoan sartzen da. Hots, kolonialistak ez ditu bere etorkizuna eta koloniarena batzen; ez dago han bidenabar baizik, eta ez du dirurik eralgitzen ezpada berehalako lanbideetan. Egiatzko arrazoina, plegu horretako hutsaldi horien guztien kakoa, hauxe da: kolonialistak ez duela behinere erabaki kolonia metropoliaren antzera aldaraztea, ezta kolonizatu ere bere buruaren antzera haztea. *Ezin dezake horrelako egokierarik ontzat eman, bere abantailen zimendua bera uzkaileko lukeelako.*

### *Arrazakeria*

Horretan, dena dela, ez dago metropolitarr giza-maitetasun gihargabe bat baizik. Beti esan izan du kolonialistak, eta garbiki esana gero, egokiera hori pentsatu ezinezkoa zela. Baina azalpenik emateko beharretan gertatzen bada, azalpena oso desberdina izango da, eta oso argigarri ere bai. Ezintasun hori ez omen dagokio berari, besteari baizik: alegia, kolonizatuaren *izanari berari*. Beste modu batera esateko (eta hauxe da irudi honen azken ezagugarria) kolonialistak arrazakeria deitzen du bere alde. Oso ohargarria da hau: kolonialismo guztietan,

herrialde guztietan, funtsean arrazakeria datzala beti. Eta ez dago txiriparik horretan: *kolonialista eta kolonizatu lotzen dituen lotura funtsezkoa biltzen eta sinbolatzen du arrazakeriak.*

Ez da batere arrazakeria dotrinakoia edo ideiazalea. Zaila litzateke hori, bestalde: kolonialistak ez du maite teoria, ez teori-gizonak ere. Ideologiaren edo etikaren aldetik, bere burua egoera txarretan dagoela badakienak, ekintza-gizon gisa nabarmendu nahi izaten du, alde horretatik espantuak eginez; eta bere ikaspideak esperentziatik atera dituela aldarrikatuz. Oso nekez eraiki dezake kolonialistak bere balantza-sistema, eta hortaz ez tabaidari bildur zaio. Haren arrazakeria bizitua da, jasana, egunerokoa; baina ez du ezer galtzen, dena dela. Kolonitar arrazakeriaren ondoan, europatar teorizaleenak gardena-edo dirudi, ideiatan hormatua, eta lehen begiraldian berotasunik gabea. Kolonitar arrazakeria, berriz, jokabide-multzo bat da, ikasitako erreflejo-mordo bat, lehen-lehenengo haurtzarotik zaildua, finkatua, hezketak baloratua. Hain dago keinuekin eta hitzik arruntenekin berekin ziplo loturik, koloni-nortasunaren egituretan sendoenetako bat osatzen duela. Azal-aldien usua, koloni-harremanetan duen azkargoa, txundigarria lirateke, halere, kolonialista bizitzen eta honen gizartekuntza erraztutzen noraino laguntzen duen ez bagenek.

Kolonialistaren ahalegin etengabe bat honetan datza: bere hitzaz eta jokabideaz, koloni-dramakide duen kolonizatuaren lekua eta patua azaldu, zuzenetsi eta atxikitzea. Funtsean, beraz, honetantxe datza haren betebeharrak jarraikia: kolonikuntza bera azaltzea, zuzenetsia eta atxikitzea; hau da, bere burua. Hots, jokabide arrazakoiaren azterketak hiru elementu nagusi erakusten ditu:

1 — Kolonizatzaile eta kolonizatuaren artean dauden *liferentziak* aurkitu eta nabarmen eraztea.

2 — Liferentzia horiek *aintzakotzat hartzea*, balortzea alegia, kolonizatzailearen fagoretan noski, eta kolonizatuaren kaltetan.

3 — Liferentzia horiek *absolutuen* mailara eramatea, betirakoak direla esanez, eta halako bilaka daitezzen jokatuz.

Lehenengo urratsa ez da kolonialistaren pentsakeraren argigarriena. Bi jendaketaren artean liferentzi-atalaren ihizian ibiltzea ez da, izan, ezagugarri arrazakoi bat. Baina gizaro arrazakoi batetan badu bere lekua, eta funts berezia hartzen du. Bere desherritasuna ttipi lezakeena bilatu beharrean, kolonizatuagandik hurbildu, eta horretara elkar-erresuma bakar baten sorkuntzan laguntzaile gertatu; berezten duen guztiaren gainean pusatzen du kolonialistak. Liferentzia horietan guztietan (beti ere kolonizatuaren laidogarri eta kolonialistaren loriagarri) bere ukoaren zuzenespena aurkitzen du. Baina hona hemen beharbada inportanteena: kolonizatu horrelakotu eta kolonizatzailea aurkatu egiten duen ohitura-atal hori, edo-ta kondaira edo geografi-gertakari hori, ongi berezi ondoren, arrunt elkargandik urrundu ondoren, bion arteko leize hori bete ez dadin jokatu beharra dago. Gertakaria, beraz, kondairatik, denboratik, eta gerta daitekeen bilakabidetik urrunduko du kolonialistak. Soziologiako gertaera soila biologiko bataiatuko da, edo metafisiko oraino hobe. Kolonizatuaren *izanari* omen datxekola, beraz. Besterik gabe, horrela, kolonizatu eta kolonizatzailearen arteko lotura, bi aintzindarion funtsezko izaeretan bertan oinarritua, *betirako kategoria* bihurtzen da. Koloni-lotkia horrelakoa da, biok diren bezalakoak direlako; eta ez bata ez bestea aldatuko dira inoiz.

Kolonikuntza guztien asmora heldu gara honela. Hona hemen bi argibide. Uste ohi denaz bestaldera, kolonialistak ez du inoiz zinez lagundu erlijio-bihurketa saiaketan. Eliza (katolikoa eta protestantea hor nunbait) eta kolonikuntzaren arteko harremanak, askoz ere korapilotsuago eta zailago izan dira ezkertarrek esan ohi dutena baino. Egia da: Elizak erruz lagundu izan du kolonialista, honen ekintzak onetsiz, barne-bakea emanez, kolonikuntza onarazten lagunduz (baita kolonizatuari berari). Baina ez zen harentzako elkarte igarokor eta onuragarria soilki

izan. Gaur kolonikuntza hilkor gertaturik, eta arrisku-bide galanta bihurturik, alderdi guztietan berezten du bere burua kolonialistengandik. Ez du jadanik sistima defenditzen, ausarki erasotzen hastean ez denean gainera. Hitz batez: hau eta hura elkarrez baliatu dira; baina Elizak beti atxiki izan du bere helburuaren desberdina. Alderantziz, Elizak eman dion laguntzagatik, kolonialistak eskertu badio ere hobari, lurralde eta diru-sariak emanez, ez du behin ere nahi izan Elizak osoki garai zezan: alegia, kolonizatu guztiak kristau zitzan. Benetan hori nahi izan balu, Elizak bere ametsa betetzen lagundu zukeen. Kolonikuntzaren hastapenetan, batez ere, eskuak guztiz libro eta loturarik gabe zeuzkan, bere zanpa-indarra mugagabea zen, eta nazioen arteko adiskidekeria ez zuen eskas.

Kolonialistak, ordea, ezin zezakeen bultza koloni-lotkiak erauziko zituen ekintza hori, kolonizatuaren fedebihurketa kolonizatzailearen erlijioaren arabera alegia, lehenengo urratsa izango zitzakeen asimilazio edo berekuntzarako bidean. Hauxe da koloni-mixioen karrika eginaren arrazoinetatik bat.

Beste adibide bat: ez dago kolonizatuarentzako areagoko gizarte-salbamendurik, mistika-salbamendurik baino. Erlijio-bihurpidez ere bere gizarte-egoeraz ezin aska daitekeen bezala, bere gizarte-multzotik eta kolonizatzailearen multzora biltzerik ere ez dauka.

Zanpaketa guztiek, egiazki, giza-multzo oso bat dute eragingutzat; eta «a priori», alde zuzenetik, multzo horretako elementu guzti-guztiak dira izengabeki ikutuak. Maiz entzun ohi da langileak (alegia, *langileak oro*) akats eta eskasia honek edo harek joak direla.

Kolonizatuen aurka botatzen den salaketa arrazakoia ezin daiteke orokorra baizik izan; eta kolonizatu guztiek erantzun behar dute. Langile-zanpaketak, halere, irtenbiderik baduela onartu ohi da: teoriarik bederen, langile batek bere klaseari aldegin diezaioke, eta gizarte-egoeraz alda. Kolonikuntzaren alorrean, berriz, ezerk ezin dezake kolonizatua salba. Ez da sekula abantailatuen alder-

dira igaroko; beroiek baino diru gehiago irabaziko balu ere, titulu gehiago bilduko balu, edo-ta bere indarra neurrigabeki emendatuko balu ere.

Koloni-burruka eta zanpaketa, eta klase-burruka eta zanpaketa alderatu ditugu. Erresumen barrenean, eta herriak herriarekiko gertatzen den kolonizatzaile/kolonizatu lotkiak, hau egia hutsa da, erresuma barreneko burgesia-langileria lotkia gogoraz dezake. Baina koloni-alderdien arteko gotortasuna eta arraildurarik gabeko hertsitasuna, ia guztizkoak direla esan behar da. Arraildura gabeko gotorkeria horren alde ari dira kolonialistaren ahalegin guztiak; eta helburuaren bilaketan arrazakeria da iskilurik seguruena: multzo batetik besterako igarokundeak ezinezko bihurtzen baita benetan, eta iraultzak oro zentzugabe.

Arrazakeria, beraz, ez da beharrik gabeko xehekeria gisa agertzen, kolonikuntzaren atal funtsezko gisa baizik. Kolonikuntzaren agerpiderik onena da, eta kolonialistaren ezagugarririk argitsuenetakoa. Kolonizatzaile eta kolonizatuaren arteko berezketa ezin sakonagoa da, kolonizazioaren ezinbesteko baldintza. Hots, errotikako berezketa hori ongi finkatu ez-ezik, haren *aldatu-eragina* ere oinarritzen du arrazakeriak. Arrazakeriak ez bestek sagara dezake, eta betikotasunerako luza, bere hastapena ongi ezaguna eta zehaztua duen kondaira-lotkia hori.

Hau guztia dela bide, harrigarriro hazten da arrazakeria kolonietan: ideien edo ekintzen mailan, kolonizatuaren, eta baita kolonizatzaileen beren, edozein urrats, baita *ñimiñoena* ere, arrazakeriaz oratzen eta mamitzen da. Hau, gainera, ez zaie kaleko gizakume arruntei ez besteri gertatzen: Rabat-eko psikiatra batek, esate baterako, hogeitaz bere midikuntza praktikatu ondoren, hau esaten ausartu zitzaidan: Ipar-afrikatarren neurosiak *Ipar-afrikatar arimaren* bitartez ulertzen zirela.

Arima, etnia, edo arima-plegu horrek, jakina, egituren antzinatasuna azaltzen du, teknikarik eza, politikamorruntasunaren beharra; drama osoa argitzen, hitz



batez. Argiro erakusten du, hortaz, erremediatu ezina zela kolonikuntza, eta betirakoa dela beraz.

### *Norberaren barkazioa*

Eta hona hemen, horretara, azken ikutua. Kolonizatuaren joputasuna kolonizatzaileari lotsagarri iruditurik, bere burua zalantzara eta eskandalora ez lerratzekotan, azaldu egin behar zuen egoera hura, argitu. Eraikikuntza bikoitz bati esker bere burua eta kolonizatuaz azalduz, zuzenetsi, lasaitu eta segurtatu egin zuen bere burua.

Zibilizazioaren eta kondairaren bertuteen aintzindaria denez, eginkizun bat betetzen ari da bera: kolonizatuaren ilunpe ahalkegarriak argitzeko merezimendu gaitza dagokio. Betebehar horrek hobaririk eta errespeturik ematea zuzenbidea baizik ez da: kolonikuntza *bidezkoa* da alderdi eta ondorio guztien arabera.

Morrontza, bestalde, kolonizatuaren izaeran bertan izkiriaturik, baita jabegoa kolonizatzailearenean, aldaketa-amairik ez. Eskertua den bertutearen pozari, berezko legeen beharra erasten zaio. Kolonikuntza *betirakoa* da, eta lasai, kezkarik batere gabe, azter dezake bere etorkizuna.

Horren ondoren, dena litzateke eskuragarri, eta denak ere funts desberdina hartuko luke. Kolonialista lasai bizi liteke aurrerakoan, etorkor, eta ongi-egile gisa ere bai. Kolonizatuak, berriz, *bere eskerrona* erakutsi beharko lioke, dagokiona baizik ez bihurtuaz bestalde.

Eta hementxe kokatu beharra dago *aitakoi* bataiatu ohi den pentsakera. Arrazakeria eta desberdintasuna onartuak direlarik, aitakoiak horiez bestaldera bezala izan nahi du eskuzabala. Nahi baldin bada, arrazakeria errukiorra da hau —ez baita ez traketsagoa ez etekin txikiagokoa—. Zeren-eta aitakoirik zabalena gogortu egiten baita eta gaiztatu kolonizatuaz *ezertxo ere eskatu orduko*: bere eskubide sindikalak, esate baterako. Bere ordaintsaria jasotzen bada, bere emaztea kolonizatuaz artatzen bada, beti bilatu behar da jokabide horietan emari bat,

present bat, eta ez inoiz eta inola ere betebeharririk batere. Betebeharririk onartuko balu, kolonizatuak eskubiderik baduela aitortu beharko luke. Hots, orain arte azaldu dugun guztian ageri denez, betebeharririk ez duela garbi dago, kolonizatuak eskubiderik batere ez duen bezalaxe.

Giza-moldaketa prestu hori muntaturik, beraz, kolonialista jabe eta errugabe da batera eta definizioz, eta barkamendu osoa baizik ez du merezi. Oraindik ere, ordea, taxukera hori besteek zalantzan ez jartzea falta da; eta hau kolonizatuaren alderditik batez ere.

# Kolonizatuaren ezagugarria

## I

### KOLONIZATUAREN MITOZKO IRUDIA

#### *Mitoaren jaiotza*

Burgesiak langilearen irudi alegiazko bat proposatzen eta hedatzen duen bezala, kolonizatzailearen izateak kolonizatuaren irudi bat eskatzen eta onar erazten du. Itzurpide hau gabe, kolonizatzailearen jokabideak, burgesiarenak, eta bion bizimoduek berek, lotsagarri lirudikete. Guk hemen, halere, mitogintza hori ager eraziko dugu, hain zuzen gauzak ongiegi orrazten eta konpontzen dituelako.

Eman dezagun, salaketa-irudi horri gagozkiolarik, nagikeriaren arazoa. Itxura denez, Liberia-tik hasi eta Maghreb-etik Laos-eraino, kolonizatzaile guztien adosta-

sunak biltzen du. Iduribide hori noraino den *erosoa* erreparatzea, ordea, erraza da. Kolonizatzailearen gorantza kolonizatuaren apalkuntza dialektikan parte funtsezko bat betetzen du. *Ekonomiaren mailan*, gainera, *onurakorra da*.

Ezerk ez lezake hobeki garbi kolonizatzailearen hoberia, horren lanak baino; ezerk ez lezake, berebat, hobeki zuzenets kolonizatuaren txirotasuna, beroren lanik ezak baino. Kolonizatuaren mitozko irudiak, horretara, besteak beste, ezin sinetsizko alferkeria agertuko du. Kolonizatuarenak, berriz, ekintzarako nahi prestua. Horrekin batera, kolonizatuaren erabilera oso onuragarri eta fruitukorra ez dela idarokitzen du kolonizatzaileak; eta horrek, noski, bidezko egiten dituela ezin sinetsizko alokairu horiek.

Langileria trebeago eta jakintsuago izanez gero, kolonikuntzak berak irabaz zezakeela pentsa bide liteke. Hori, ordea, ez da batere segurua. Erdipurdiko kolonizatzaileen artean badago langile eskolaturik; baina kolonizatuaren arteko bere kideak baino hiruzpalau aldiz lantari handiagoak eskatzen ditu. Hots, ez du hiruzpalau aldiz gehiago ekartzen Europatarrak ekartzen, ez zenbatasunez ez nolakotasunez: *merkeago da hiru kolonizatu erabiltzea Europatar bakar bat baino*. Edozein lanetarako behar dira espezialistak, bai, baina ahalik eta gutxienak hobe; eta bere herrikideen artean hautatzen ditu kolonizatzaileak. Eta, horrez gainera, eta zuzena denez, europatar langileak eskatzen dituen begiramentuez eta lege-babesaz. Kolonizatuari, berriz, besoak eskatzen zaizkio, eta besterik ez aipatzen: beso horiek, gainera, hain daude gutxietsirik, pare bakar baten ordean hiruzpalau beso-pare alogera daitezkeela.

Entzuterakoan, dena dela, alferkeria hori (nahiz egiazkoa nahiz alegiazkoa) dela-ta, horren haserre ez dagoela aurkitzen da. Kolonizatzaileak umore onean aipatzen du irriz, hartaz trufatzen dela; kolonizatuaren zer den adierazteko eguneroko hiztegia erabiltzen du etengabe, baina baita osatzen, baita hitz berriak asmatzen ere. Ezer ez

aski kolonizatuaren akats harrigarriak biltzeko. Liriko eta bihozpera agertzen da, baina lirismo ukakorren alderdian: kolonizatuak ez du ilerik esku-ahurrean, baina kanabera gaitz bat, arbola bat. Eta nolako zuhaitza den, alajainkoa! Eukaliptus bat, thuia bat, Ameriketako haritzondo zahar bat... Nik dakita zer? Zuhaitz bat ote? Ez: oihan oso bat!

Baina, benetan ote da alferra kolonizatua? Galdera gaizki egina da, egia esateko. Alde batetik helburu-neurri bat finkatu behar litzateke aurrenik, herri batetik bestera aldagarria; eta bestetik, herri oso bat sala ote daiteke alferkeriaz? Gizabanakoak, pertsonak alegia, sala daitezke, baita beharbada talde berean oso ugariak direnean ere; beroien lan-ekarpina motela ez ote denez galdegin daiteke; eta gaizki jateak, alokairu apalek, etorkizunik ezak, gizarte-patuaren eskasak, kolonizatua bere eginbeharretatik aldentzen ez ote duten soma.

Errezelagarria, bestalde, hauxe da: salaketa horrek nekazaritzako morroina eta hiri-inguruetakako biztanlea ez-*ezik*, irakaslea, ijenerua eta osagilea ere erasotzen dituela; nahiz hauek kolonizakideek hainbat ordu lanean pasatzen badute ere. Salaketak, hitz batez, koloniko gizataldeko *pertsona guztiak* erasotzen ditu. Errezelagarria hauxe da: salaketaren *bateratasuna* eta erasotako *orokortasuna*: denak erasorik, eta batera; eta, hortaz, kolonizaturik batere ez salbatzea, batere inoiz ezin salbatzea. Hau da: *salaketa ez datxeko inolako soziologi edo kondaira baldintzari*.

Ez dago horretan guztian, beraz, oharketa objetiborik batere: horrelakorik balego, liferentziarik baliteke, eta aldakuntzen arabera birmoldatuz joan beharko luke irudiak. Horretan guztian, aldiz, *instituzio* bat dago, legeketa bat: salakundearen bitartez kolonizatzaileak alferztat legetzen du kolonizatua. Hori horrela, gauza agiri bilakatzen da kolonizatua, zernahi lan-postuz jabeturik, nolanahiko lehian lanegiteagatik ere, ez dela sekula alfer bat baizik izango. Beti, beraz, arrazakeriara bihurtzen gara; ezen hau salatuaren alderdi egiazko edo alegiazkoen

finkaera eta betirako legeketa baita, eta salatzailearen fagoretan, noski.

Azterpide berbera egin liteke berriro kolonizatuaren lepora egotzi ohi diren ezagugarri guztien arabera.

Kolonizatzaileak bere hizkeran kolonizatu zozoa dela esaten duenean, akats honek babeseta eta zaindaritza eskatzen dituela adierazi nahi du. Eta horretan funtsatzen da, farrerik gabe, «protektorado» delakoen ideia, babes-herriena (neronek horrela entzuna askotan). Kolonizatuaren beraren interesetan komeni da bera buruzagitzaren eginkizunetatik urruntzea; eta erantzukizun larriak kolonizatzailearen eskuetan ipintzea. Eta kolonizatzaileak, artaren larregian ez erortzeko, kolonizatu atzeratu gaiztoa dela erasten duenean; grina makur, lapur eta doilor xamarra dela, bere polizi-lana eta gogortasuna zuzenesten ditu. Bidezkoa baita buruberoen kirtenkeria arriskutsuetatik begiratzea; baita (kezka bidezkoa!) norberaren buruaren alde jokatzeko! Gauza bera kolonizatuaren beharrik ezaz omen, konforta, teknika, eta aurrerapenekiko erakusten duen desegokitasunaz, gabeziarekiko ezagun omen duen ohitura harrigarriaz: zergatik kezkatuko ote litzateke kolonizatzailea, kaltearra, bitima, pairatzailea bera, kolonizatu alegia, sobera kezkatu agertzen ez denean? Zuhurtzia beltz ausartaz erantsi ohi duenez, zerbitzu txar bat egitea litzateke: alegia, zibilizazioaren beharretara bortxatzea. Hortaz! Ez dezagun ahantz zuhurtzia ekaldetar bertutea dela, eta berek bezala guk geronek ere onar dezagun zuhurki kolonizatuaren errumestasan hori. Badago, bestalde, kolonizatuaren esker-txar famatu hori, idazle guztiek, behin eta berriz ahobatez aipatua: batera gogorazten digu joera itsusi horrek bai kolonizatzaileari kolonizatuak zor dion guztia, bai, ongi guztiok, alferrik galduak direla; eta kolonizatu erremendiatzeko asmoak oro alferrikako direla.

Harrigarria da presentakera horrek besteren beharrik ez izatea. Zail da, gonbarazio baterako, alderdi horietatik gehienak elkartzea, bilduma gauzazkoa, sintesi objetiboa alegia, lortuz. Ez da batere gauza ageria, esate baterako,

zergatik eta nola izan daitekeen kolonizatua batera ume-zirtzila eta gaiztoa, alferra eta atzeratua. Umea eta pres-tua batera izan zitekeen, esate baterako, XVIII. mendeko gizon basa haren antzera; edo haurra izan, baina lanetako gogorra eta zaildua. Edo-ta alferra eta maltzurra batera. Oraindik ere hobeki: kolonizatuaren lepora aurtikiak diren ezagugarriok elkar ukatzen dute, baina honek ez dio salatzaileari enbarazo mendrenik ere egiten. Batera presentatzen zaigu kolonizatua jan-xuhur eta janari behar txikitakotzat, eta *horrekin batera* okela, koipe, alkol eta zernahi keta okaztagarrien jaletzat. Batera esaten zaigu koldarra dela, ezer jasaten ez dakiela; baita zibilizaioaren debekuek geldi erazten ez duten alimaletzat. Alferrik da, berriro ere, eraso horien arteko gotortasuna kolonizatzaileagandik at bilatzea. Eraikikuntza horren oinarrian, azkenik, bultzada bakar bat aurki daiteke: kolonizatzailearen helburu ekonomiko eta arima-barnekoa. Horiek dira logikaren ordaria, eta horiek azaltzen eta argitzen kolonizatuari egozten zaizkion ezagugarriak. Azken finean, denak dira kolonizatzailearen *aldeko*; baita lehenengo begiraldian kaltegarri itxura dutenak ere.

### *Desgizakuntza*

Bost axola zaio kolonizatzaileari kolonizatua egiazki zer den. Hau bere egian aurkitu eta bildu nahi izan beharrea, berori aldatu eta eragin beharrak mogitzen du bereziki. Eta kolonizatuaren bir-moldaketa hori oso da argigarria.

Lehen-lehenik ukaera mordo luzea da: kolonizatua *ez da* hau, *ez da* hori, *ez da* hura. Baiespenen aldetik ez da behin ere hartzen; eta hartzen delarik, psikologiaren edo etikaren mailan *hutsune* bat salatzeke izaten da. Hala nola, arabitar ostatu-emaizta erraza, nahiz hau oso nekez presentatadaiteke joera itsusi gisa. Arretaz begiratzuz gero, gorantzak turistengandik heldu direla aurkitzen da; bidenabar han gertatu diren Europatarrengandik, eta ez kolonizatzaileengandik, alegia ez kolonian finkaturik bizi

diren Europatarrengandik. Hara eta berehala, akabo ostatu-emaitzaren probetxua: elkarrekiko gurutzamenduak akabo, eta bi multzoen arteko hesiak gora. Paleta berehala truka, eta kolonizatua oso bestela pintatzen hasten da: goganbehartsu, barnekoi, hertsu, fanatiko. Zer bilakatu da ostatu-emaitza zabal hura? Ukatu ezinik, alderdi ilunak eta ondorio deskalabratuak ager erazten hasten da.

Ateak aisa zabaltzeko joera, horrela, arinkeriaren, esku-zabalkeriaren, etxekalte-keriaren ondorio bihurtzen da, geroaren eta burubidearen zentzurik eza. Jauntxoengandik hasi eta fellah-enganaino, ederrak dira jaiak, opa-roak, baina segida... nolakoa? Kolonizatuak lurjo egiten du, bahiturik eskatzen, eta azkenean besteren diruaz zor-rak kitatzen! Eman dezagun, alderantziz, kolonizatuaren bizimoduaren apala aipatu dela, beharrik-ez ezagun hori gogorazi dela. Zer errepikatuko da? Ez dela hori ere, kasu, zuhurtzi-alderdia, zozokeriazkoa baizik. Aurkitutako edo asmatutako ezagugarri *guztiak* eskasia eta hutsu-nearen seinale bailiren.

Horrela kondatzen dira, herronka, kolonizatua zigortzen duten dohain guztiak. Eta kolonizatuaren gizatasuna, horrela, kolonizatzaileak ukatua, okil bihurtzen zaio, igaro ezina. Alferrik da-dio-kolonizatuaren *jokabideak alde aurretik somatzen saiatzea* («Somatu-ezinak dira horiek»... «Berekin ez dago ezer inoiz jakiterik»). Bihozkaiek eta oldekeriak gidatzen bide dute kolonizatua, harritzeko eta kezkatzeko moduan. Eta, egia esan, oso bitxia izan behar du kolonizatuak, horrenbeste urtez haren ondoan kolonizatzailea bizi ondoren, hain izkutu eta uler-ezin gerta dakion... edo, bestela, kolonizatzaileak arrazoin sendoak badituzkeela pentsatu beharko da ezin-irakur horretan horrela kokatzeko.

Hona hemen orain kolonizatuaren desnorketa edo nor-galera horren beste seinale bat: *anitzaren marka* bataia litekeena agian. Kolonizatua ez da sekula berezten liferentzi-bidez; baina izenik gabeko mordotasunean itoa eta nahasia agertzen da. («*Horiek* hau eta hori dira... *Horiek* beti bat»). Neskame kolonizatua goiz batetan ez



badator, ez du kolonizatzaileak esango *bera* dagoela gaisorik, neskamea alegia; ez du esango *bera* arrakeroa dela, edo tratu zailegia betetzeko gogorik ez duela. (Zazpi aste-gunetan zazpi lanegun: neskame kolonizatuak bakanka baizik ez dute besteei eman ohi zaien asteroko pausaldia gozaten). Eta hau esango du: «Ezin daiteke *horiekin* konda». Ez pentsa gero hizkera-kontu hutsa denik. Ez horixe. Kolonizatzaileak ez ditu ikusi nahi bere neska-mearen biziera-gertakariak banan-banan, eta pertsonal eta pribatu gisa. Bereztasunean mamitzen den biziera hori ez zaio axola: pertsona gisa, gizabanako gisa, neskamea ez da, izan.

Kolonizatzaileak, azkenik, gizonik gehienei aitortzen eta uzten zaien eskubiderik sakratuena ukatzen zaio kolonizatuari: askatasuna. Kolonikuntzaren giroan kolonizatuari ezarri dioten bizimoduan ageri denez, askatasun hori ez da ezertarako kontutan hartua izan. Dagokeenik ere ez da sumatzen. Bere zorigaitz-girotik irteteko, horrela, kolonizatuak ez du atekarik batere: ez eskubidezkoa (hiritarkuntza), ez mistikazkoa (erlijio-truke edo bihurteta). Ez dago kolonizatuaren eskuetan bere burua kolonizatu ala kolonizatzailetzat hautatzea.

Zer atxik ote dezake desegintza tematu eta lehiatsu horren buruan? Dударik gabe, kolonizatzailearen «alter ego»a ez da. Nekez da gizakume bat. Gauza bilakatzeko abian gertatzen da. Azken buruan, eta kolonizatzailearen xederik gorena betetzekotan, *ez luke izan ere behar kolonizatzailearen beharretatik at; alegia, kolonizatu soil beharko luke bihurtu.*

Ageri denez, oso fruitukorra da jokabidea. Gero eta bertago dago kolonizatu alimale, piztia eta gauzetatik. Hots, hauei zertan gagozkieke gu zordun? Honela konprenitu behar da kolonizatzaileak horren jokabide eta irizpide lotsagarriak hartu ahal izatea. Kolonizatu autoa gidatzen ari, esate baterako: horra hor kolonizatzaileak inolaz ere irentsi nahi ez duen ikuskaria: bidezketasun guztia ukatzen dio, ukatu, egintza hori haren eskuetan tximukeria hutsa edo bailitzan. Kolonizatu ukitu duen

istripuak, horrela, baita larria denean ere, farregura ematen du. Kolonizatu-oste bat metrailaturik gertatzeak, era berean, doi-doi ekartzen du besaburuak altxatzeaz beste keinurik. Bere semearen heriotzarengatik negarrez ari den emazte kolonizatuak; senarraz pleini den emazte kolonizatuak, oso oso urrutitik baizik ez diote idarokitzen amaren eta emaztearen oinazea. Oihu desordenatu horiek, keinu bitxi horiek, harengan inoiz urrikirik sortu balitz, hoztu egingo zuketena.

Orain dela gutxi kondatu digu idazle batek, bitxikeriaz ongi baliaturik, ihizirik ezean, hasarre bizian joan erazten zirela bertakoak kaiola handitara, eta bertara indarka sarrerazten. Horrelako kaiolok egiteko burutazioak izatea; areago, fotoak ateratzen utzi izanak, ongi erakusten dute kakoa: eratzaileren gogoan, ikuskari harek ez zuen deusik ere gizatarrenik: gertakaria gizatasunetik at mamitzen zen.

### *Gezurtaraketa*

Kolonizatuaren puskatu-nahi eroa, kolonizatzailearen eskabideetan sortu da. Ez da harritzekoa, hortaz, bie elkarri horren zehazki egokitzea. Zehaztasun horrek, halere, ezin hobeki ezkontze horrek, itxura denez, indartu eta funtsatu bezala egiten du, zuzenetsiz, kolonizatzailearen jokabidea. Oraindik ere ohargarriago, oraindik ere kaltegarriago, kolonizatuarengan berarengan horrek guztiak esnatzen dituen oihartzunak.

Beti ere bere buruaren irudi horren aurrean paratuta, legeetan eta giza-harreman guztietan irudi horixe proposatua eta irents-erazia, nola nahi duzu errepikarik ez ematea? Ezina liteke arduragabe gelditzea, axolakabe begiratzea, eta kanpotik itsatsia bezala jarraitzea, haizearekin batera hegaldatuko litzatekeen afruntu gisa. Azkenean ezagutu egiten du, ontzat hartzen du, bai, baina gorroto den eguneroko tresna ontzat hartzen den bezala. Salaketak kezkatu egiten du, asaldatu egiten du; eta

areago hau bere salatzaileari bildur zaiolako, eta indartsu delako funtsean miresten. Ez ote du honek egia hein batez? —dio batzutan bere kolkorako—. Ez ote gara gu guztiok apur batez bederen errudun? Horrenbeste langabe ikusirik, ez ote gara alferrak? Ustelak ere babilde gara, geure buruak zanpatzera honela uzten baititugu. Kolonizatzaileak desiratua eta hedatua, mitozko irudi ahalkegarri hori gailendu egiten da, eta kolonizatuak bere buruan nortu eta bizitu egiten du, eta funtsean onartu ere bai. Mamitu egiten da horrela, obratu, eta *kolonizatuaren moldagintzan laguntzen horretara*.

Jokabide hori ez da ez-ezaguna: gezurtaraketa bat da, mistifikazio bat. Klase zuzentzaileen ideialogia, jakina denez, nagusitu egiten zaie hein batez zuzendutako klaseei. Hots, burruka-ideialogiek oro badakarte beti, barruan, etsaiaren irudi bat. Ideialogia hori onartuz, horrela, zapal dutako klaseek, markatu zaien betekizuna ematen dute ontzat. Eta honek azaltzen du, besteak beste, gizartearen iraupena: onetara ala bortxaz, ontzat ematen dute zanpakuntza zanpatuek berek. Kolonikuntzaren mailan, herriak-herriaren aurka obratzen da zanpaketa, baina eskema berbera da beti. Ideialogia kolonizatzailean leku garrantzitsua dagokie kolonizatuaren erretratuari eta betebeharrari. Egiatik urrun dagoen ezagupide bat nahi bada, jakina; baina beharrezkoa, eta ideialogiaren barruan gotorra. Eta ideialogia horri bere baietza ematen dio kolonizatuak: asalduz, ez osoki; baina emana halere.

Horra hor modan dauden ideia horiei dagokien egiatal bakarra: menpetasunezko konplejoa, kolonigarritasuna, eta abar. Bere bilakabidearen une batetan badago, eskierki, kolonizatuaren aldetik, kolonizatzailearekiko halako jaiera edo atxikimendua. Atxikimendu hau, ordea, ez da kolonikuntzaren iturria edo jatorria, ondorioa eta fruitua baizik. Kolonitar okupazioaren *ondoren* sortzen da, eta ez okupazio hori baino lehenago. Kolonizatzailea jaun eta jabe osoki izan dadin, ez da aski objetiboki hala izatea: bere bidezkotasunean ere sinetsi behar du. Eta alderantziz bidezkotasun hori osoa izan dadin, kolonizatu

objetiboki jopu izatea ez da aski: bere burua halakotzat jotzea ere behar da.

Hitz batez, kolonizatuak onartu egin behar du kolonizatzailea. Kolonizatzailearen eta kolonizatuaren arteko lotura, horrela, puskatzailea eta eraikitzailea da batera. Kolonikuntzaren bi gudakideok apurtzen eta piztuzten ditu: kolonizatzailea eta kolonizatuak. Bata zanpatzaile, erdipurdiko izaki, gizatxar, arrakero, bere abantailez tematua, itxuraldatua agertzen da; bestea berriz, zanpatu gisa, bere hazkundean moztua, bere desegintzarekin trantuan ari.

Kolonizatzaileak bere burua kolonizatzailetzat onartzeko zirikatua eta bultzatua den bezala, kolonizatuak, bide beretik, biziko bada, bere burua behar du onartu kolonizatutzat.

## II

### KOLONIZATUAREN EGOERA

Alegiazko irudi hori iratxo huts gelditu balitz, txorimaloen mailan, ederregia zatekeen: kolonizatuari zuzendutako begirada bat zatekeen horretara, eta kolonizatzailearen barne-hozkidura edo hausikia jabaldu baizik ez zukeen egingo. Sortu duten behar berberak bultzaturik, alderantziz, irudi hori jokabide eragile bihurtzen da nahi-ta-nahiez; jokabide ekile eta moldatzaile.

Kolonizatua *lapurtzat* hartua denez gero, *benetan* gerizatu beharra dago haren kontra: definizioz errezelo iturri jota, zergatik ez errudun gertatuko? Eman dezagun arropa ebatsia dela (eta gertakari hau askotan ikusten da herrialde eguzkitsuetan, nabarmen eta lau haizeetara idor erazten baita arropa, biluzik daudenen kilikagarri). Nor izan ote liteke lapurretaren erruduna, inguru hartan harrapatutako kolonizatua baizik? Eta *beharbada* bera delako, haren etxera joan, eta poliza-postura eramaten da.

«Zuzenik eza omen zegok horretan» —errepikatzen du kolonizatzaileak—. «Bitatik behin, ordea, asmatu egiten diagu. Eta, nolana ere, lapurra kolonizatuetoako bat izan duk: lehenengo txabolan ez badago, beraz, bigarrean segur, hantxe zegok erruduna».

Eta hori egia da: lapurra (alegia, lapur txikia) txiroen artean aurkitzen da; eta txiroa, berebat, kolonizatuaren artean. Kolonizatu guztiak, ordea, lapurrak direla esan ote daiteke, eta hortaz denak halakotzat hartuak izan behar direla proposa?

Jokabide eta irizpide horiek, halere, kolonizatu guztiaren artean aurkitzen dira, kolonizatuaren multzoari buruz asmatzen eta ezartzen dira, eta horrelaxe legeetara biltzen gero. Bestela esateko, mugatu egiten dute egoera, baldintza objetiboak ipintzen; eta hauek inguratu egiten dute kolonizatuaren, bortxatu egiten dute, eta azkenean haren jokabidea bera aldarazten eta aurpegiko zimurrak ager erazten. Batez beste, *eskasi-moduak* sortzen dira, hutsunegiak. Desgizatu eta gero gezurtaratu egiten duen ideologi-erasoari, egoera zehatz bat dagokio eginetan; eta bai honek bai harek helburu berbera bilatzen eta bortxatzen dute. Gezurtaratu izan, mistifikatu, mitoaren arabera moldatzea bada hein batez, eta horri lotuta jokatzeko; alegia, kanpotik eragina eta jokatu izatea. Hots, mito hori hortxe dago, hortxe dago oso organizazio egiazko eta gotor baten gainean eraikia, administrazioa, zuzentza eta guzti; hortxe dago mitoaren, kolonizatzailearen kondaira, ekonomi eta kultur-beharrek elikatua eta etengabe berritua. Gezurrari eta mespretxuari soraio balitzaie ere, nahiz isekari, irainari eta bultzadari kasorik egin ez, nola egingo ote lieke ihes kolonizatuak alokairu edo soldata urriei, bere kulturaren hiltzoriari, eta jaiotzatik heriotzaraino gidatzen duen legeari?

Koloni-gezurtaraketarik itzur ezin daitekeen bezalaxe, eskasia ekarle diren egoera objektibo horietatik ezin itzur daiteke. Hein batez, bi baldintzapen horien erasketan finkatzen da kolonizatuaren egiazko irudia. Gorago emandako esakuntza bat itzulikatuz, kolonikuntzak koloniza-

tuak sortzen dituela esan daiteke; kolonizatzaileak sortzen dituela frogatu dugun bezala.

### *Kolonizatua eta kondaira*

Kolonizatuak jasaten duen gabeziarik larriena hauxe da: *kondairatik eta hiritik at jarria* izatea. Bai gudaldian bai bakealdian, munduaren eta bere buruaren etorkizunari buruz garrantzirik izan dezaketen erabakiak oro, kondairaren eta gizartearen mailan erantzukizunak oro, aukera guztiak hitz batez, kolonikuntzak kentzen dizkio kolonizatuari.

Erresuma libroetan ere gertatzen da, jakina, bertako hiritarrak etsitzea, eta nazio-arazoetan parterik batere ez duela esatea, bere ekintza hutsaren hurrena dela, bere abotsa bost axola dela, aukeraketak faltsutuak izan direla. Prentsa eta irratia banaka batzuen eskuetan daude; gudua baztertzerik ez dauka, ez bakea erakartzerik; ez da gauza ezta hautatuak izan diren horietxek, hautaturik gertatu ondoren, Parlamentora eraman zituzten agintzei eta idejei euts erazteko... Baina *eskubidea* bederen badutela esaten dute; egiazko agintea ez bada, ahalezkoa bederen ba omen dute; gezurtaratuak izan direla, beraz, edo akiturik daudela; baina ez esklabo. Gizon libroak dira, mementoko jukutriak gailenduak edo demagogiak berreiatuak. Eta batzutan, nazka-nazka eginik, hasarrealdiak harrapatzen dituzte halakoak brauki, hari finezko kateak eteten dituzte, eta politikarien karkulu ziztrinak hondatzen. Oroimen herrikoia oso harro gogoratzen da aldioroko ekaitz zuzen horietaz! Ongi pentsatuz gero, aski maiz ez iraultzeagatik salatuko lituzkete beren buruak. Beren askatasunaren jabe dira azken funtsean; eta, ahuleziaz edo nekez, edo federik ezaz, hura erabili gaberik uzten baldin badute, zigorra merezi dute.

Kolonizatuak, berriz, ez du bere burua errudun atxematen batere, ez ezeren erantzule, ez fedegabe: at aurkitzen du. Ez da inondik ere kondairaren egile; eta, jakina, haren zama jasaten du, besteek baino larrikiago

oso maiz; baina gauzaki gisa beti. Kondairaren abiadan inolako eraginik izateko ohitura galdu du, eta eskatu ere ez du egiten. Kolonikuntza pitin bat luzatuz gero, bere askatasunaren oroitzapena bera galtzen du; gostatzen dena ahanzten, edo ordaindu behar dena ez da ausartzen. Nola azal, bestela, zenbait gizonen mendi-postu bakarti bat atxiki ahal izatea? Nola azal, kolonizatzaile mordoska bat harro-harro bizi izatea maiz, kolonizatu ostean erdian? Kolonizatzaileak berak harritzen dira; eta, hau dela-ta, kolonizatu ustela eta bildurtia dela salatzen dute. Egia esateko, lotsagabeegia da salaketa hori; zeren-eta ongi baitakite, jakin, kolonizatuak berak mehatxaturik gertatuz gero, ez lirakeela oso luzaz bakarrik egongo: minutu batzuen epean, hantxe jarriko lirake haien zerbitzutan teknikaren ahalmen guztiak: telefonoa, telegrama, hegazkina, gerizatze eta puskatze tresneria harrigarriak eskainita. Hildako kolonizatzaile bateko, ehunka eta milaka eran izan dira kolonizatuak; edo izango dira. Aski maiz berrizatu da gertakaria —gertarazia beharbada— kolonizatu ezin baztertuzko zigorketa izugarriaz ongi jabetzeko. Dena egin da, hitz batez, hiltzeko eta odola ikusteko ausardia zeharo hargan ezabatzeko.

Gauza nabarmena da eskasia hori kolonizatzailearen nahian sortu dela, legetutako egoera berezi horretan; eta ez dela hori besterik. Ez dagoela, alegia, inolaz ere kondairaz ezin jabetzeko sorkurazko ezintasunik batere. Ezezko baldintzapen horren zailak berak, legeen gogortasun temakoiak, ongi frogatzen dute. Onginahia eta barbazioa osoak badira ere kolonizatzaileen iskilu-metekiko, kolonizatuaren bizilekuan iskilu erdoitsu bakar bat aurkitzeak berehalako zigorra dakar. «Fantasia» zeritzan famatu hura ez da etxeko aberearen jokoa baizik: hari aspaldian egiten zuen bezala eragiten baitzaio orroa, gomitatuak pitin bat dardartzeko. Baina abereak biziki ongi egiten du bere orroa; eta iskiluen urrutimena hortxe da beti, zerimonia guztietan, Afrika Iparraldetik has eta Hegoalderaino. Gudu-eskasiak eta kolonizatzaileen egoerak elkarren eraberako dirudite: bakarrenik bizi diren



leinuak besteak baino gertuago bide daude matxinadan altxatzeko. Ez dago horretan inolako *basakeriarik* antzeman behar, baldin-hesia aski gotorra ez dela baizik.

Honegatixek izan zen horren garrantzitsua azken gutatearen frogaketa. Esan izan denez bestaldera, ez zien zuhurtzariarik gabe kolonizatuei gerrillaren teknika soilik erakatsi. Gogorazi egin zien, horrez gain, idaroki agian, jokabide oldartzaile eta libro bat eraman zitekeela. Gutate horren ondoren «La Bataille du Rail» filma eta antzekoak debekatu dituzten gobernuak, ez ziren guztiz oker. Amerikatar «western» delakoek, gansterren filmek, gerlaren aldeko propagandak, xixpoleta bat edo metraileta bat nola erabil daitekeen erakusten zuten; eta alde honetatik salatuak izan dira. Ulerpide hori, ordea, ez da aski. Gudaketa-filmen gakoa beste zerbaite-tan datza: iskilurik gabe zeuden zanpatu batzuk, edo ia-ia gabe, beren zanpatzaileei erasotzen *ausartu egiten baitziren*.

Geroxeago, kolonietan lehenengo nahasketak gertatu zirenean, funtsa konprenitzen ez zutenek benetako burrukalarien kondua egin ohi zuten, eta kopuruaren urriaz lasaitzen eta farregiten. Eta egia da: bere patua eskuen artean hartu arte, kolonizatuak zalantza egin ohi baitu. Baina gertakariak aisa gaintitu zituzten aritmetikeria guztiak! Zenbait kolonizatu, gutxi baziren ere, kolonizatzaillearen uniformearen aitzinean paraturik ere ez ziren geroztik dardar hasten! Kolonizatuak «kaki»z eta denak jazkera eta itxura berean jazteko agertu izan duen go-goaren bizi-irri egin da. Jakina; soldadu gisa hartuak eta guduaren arabera juzkatuak izateko alderdi bat bazegoen nahi horretan. Bistan da. Baina uniformearekiko tema hartan bazegoen besterik: kondairaren etiketa eskatzen zuten, kondairaren etiketa jazten; gaur, ondikotz!, militar-jazkeraz jantzi baita kondaira.

... *Kolonizatua eta erresuma*

Gauza bera erresumako arazoei dagokienez: «Ez dira gauza beren buruz gobernatzeko», kolonizatzailleak dio-

nez. «Hori dela-ta —azaltzen duenez— ez ditut uzten gobernura iristera... eta utziko ere ez ditut sekula».

Egia hauxe da, dena dela: kolonizatuak ez duela gobernatzen. Ezen agintetik hertsiki urrundua denez, agintzeko ohitura eta jaiera galtzen baititu. Nola maita lezake horren errotik baztertua daukan hori? Kolonizatuak ez dira gobernu-gizonetan ugari. Agintaritza autonomoetatik horren luzaz urruti egonik, ordea, nola liteke bestela? Nola sor lezake jokabide horrek inolako gaitasunik? Balia ote lezake kolonizatzaileak gaurko etendura bortxazko hori etorkizunaren baztertzea zuzenesteko?

Kolonizatuen organizazioetan oso maiz abertzale eskabideak daudelako, oso maiz ulertu nahi izaten da kolonialista aberkoia eta chauvinista dela. Ezer ez da seguruago, ordea. Bai bildu-nahiak bai bil-bideak sendimenduzko eragileei egiten diete dei. Abertzale pizkundeko horren gudarietatik at, bakanka agertzen dira kolonizatuarengan chauvinismoaren ezagugarri arruntak: banderarekiko maitagune burrukakoia, abertzale kantuen baliatzea, nazio bereko lagun izateko kontzientzia zorrotza. Behin eta berriz esaten da kolonikuntzak azkartu egin duela kolonizatuaren nazio-kontzientzia. Abiada geldiarazi duela esan liteke era berean, kolonizatu gaurko nazio-tasunezko baldintza objetiboetatik kanpora atxiki duelako. Txiripa hutsa ahal da herri kolonizatuak gainerako guztiak baino beranduago beren buruez jabetzea?

Kolonizatu ez da ezertan ere nazio-ezagugarrien jabe: ez menpekoa, ukatua, itoa den bere aberriaren ezagugarrien jabe; eta, noski, ezta kolonizatzailearenen jabe ere. Nekez atxik diezaioke batari, eta nekez ere eska kolonizatuaren funtsezko izari bilakatzeke.

Gero, gaztetan, nekez soma dezake fameli-egoera deskalabratu hartatikako ateka bakarra: iraultza. Inguraketa, beraz, txit da hertsia. Aitaren eta fameliaren kontrako iraultza, ekintza osasungarria da: norberaren jabekuntza burutzeko beharrezkoa; gizon gisa bizitzen has daiteke haren bitartez. Gudaketa berria, zoriontsua edo zoritxarrekoa, baina gizonaren mailan obratzekoa. Belaun-gudua

gizarte gudian erabaki daiteke eta erabaki behar da; eta, alderantziz, mogimendu eta aurrerapen iturri da. Gazteek nazioaren mogimenduan aurkitzen dute beren eragozpenen soluzioa; eta, mogimendua hautatuz, azkartu egiten dute berori. Mogimendu hori posible izatea da gakoa, dena dela. Kolonikuntzari gagozkiolarik, ordea, zein gizarte-dinamikatan funtsa daiteke? Koloniaren biziara geldi erazita dago, tink; bertako egiturak, batera estekaturik eta zurrundurik. Gazteari ez zaio eskaintzen betekizun berririk batere, asmabiderik batere ez dago. Eta hori horrela dena kolonizatzaileak berak aitortzen du: klasiko bihurtu den esaera famatuak dionez, *errespetatu egiten ditu* kolonizatuaren usadioak eta ohiturak. Eta, egia da, baita indarka denean ere, *errespetatu egin ditzake*, baina ez besterik. Zeren-eta *aldakuntzak oro ezin baitaitezke obra kolonikuntzaren aurka baizik*. Kolonizatzaileak, horrela, nahi-ta-ez lagundu behar ditu herritarrik atzerakoienak. Gizarte kolonizatuaren momikuntzaren errua, horrela, ez da osoki kolonizatzailearena. Eta hau, hein batez, prestuki mintzo da *bere borondate soilaren arazoa* ez dela dionean. Koloni-egoeraren ondorioa da, ordea, eta ausarki izan. Bere patuaren jabe ez izanik, bere buruaren lege-emale ez izanik, bere organizazio berezirik ez izanik, gizarte kolonizatuak ezin ditzake ezkontaraz bere legeak eta bere behar sakonak. Hots, hein batez bederen, behar sakon horietxek moldatzen dute edozein gizarte normal. Frainziaren aurpegia, esate baterako, presino horretxek aldarazi du etengabe mendeetan barrena politikaren eta administrazioaren mailan. Baina desberdintasuna eta adostasunik eza nabarmenegi bihurtzen badira, eta lege barruan beharrezko adostasuna ezinezkoa baldin bada, iraultza dator, edo-ta zurrunkeria.

Gizarte kolonizatuak gizarte eria da, eta barneko dinamikak ez du ematen ahal egitura berririk. Mendeetan barrena gogortu zaion aurpegia, mozorro bat baizik ez da; eta honen azpian itotzen da bera, eta poliki-poliki hiltzorian amaitzen. Horrelako gizarte batek, alda ezin daitekeelako, ezin ditzake ere belaun-guduak bil eta

molda. Gazte kolonizatuaren jazarpena, horrela, ezin daiteke inolaz ere mogimendu eta gizarte aurrerapen bilaka, eta gizarte kolonizatuaren zingiretan galdu baizik ezin daiteke egin. (Iraultza osoa ez izatekotan, jakina. Baina georago bihurtuko gara kaso honetara).

### *Babes-Baloreak*

Gaur edo bihar atzera egiten du, eta atzerakuntza horretan bere burua gerizatzen; alegia, tradizinozko baloretara biltzen.

Horrela azaldu behar da famelia kolonizatuaren bizitasun harrigarria: benetako *babes-balore* bihurtzen den aldetik. Guztiz garaitua gertatzeko etsipenetik salbatzen du kolonizatua; baina, horren trukean, odol berriak sendoturik agertzen. Gizon gaztea ezkondu egingo da, aita-fameliako maitekor bilakatuko da, anaia laguntzaile eta osaba burubidetsu; eta, aitaren lekua hartu artean, seme leial egongo da. Dena moldatzen horrela: matxinadak eta aurkatasunak gurasoen eta tradizinoaren garaitzapena ekarri dute.

Garaitzapenaren tristeia, ordea! Ezen gizarte kolonizatuak pausu erdi bat ere ez baitu emango; eta gizon gazteari dagokionez, horrela, barne-hondamendi bat. Betirako famelia hori iratxekirik geldituko da: berotasuna eta maitagune giroa ematen dizkiote; baina baita, bidenabar, mugatzen, xukatzen eta zikiratzen ere. Herritasunak ez ote dio eskatzen hiritar betebeharrak batzuk bete ditzan? Oraindik ere eskatzen ausartuko balitz, ukatuko ote lizkioke? Eskubide gutxi aitortzen ote dio, nazio bizia osoki debekatzen ote? Egia esan, ez ditu horiek guztiok ezertarako behar. Bete egiten bide du bere leku hertsia, beti ere taldetxo hestuetako gozokeria errazetan murgiltzen delarik. Horretatik irteteko bildur da. Besteek ezin duten bezala, oraingoan onez onetara makurtzen du burua, aitaren aginpideari menegiten dio, eta hura ordaintzeko prestatzen hasten da. Eredua ahula, eskasa, haren mundua garaituaren mundua baizik ez baita! Baina beste

irtenbiderik ba ote du?... Bitxikeria baten bitartez, osoki onartua izan delako, batera gertatzen da aita ahul eta menperatzaile. *Gizon gaztea gertu dago adineko kolonizatuari dagokion betekizuna bere gain hartzeko: alegia, zanpatutzat bere burua onartzeko.*

Gauza bera sakonki markatzen duen erlijioari buruz, batera bizia eta axalekoa. Misiolariek atseginez aurkeztutzen dute itxurakeria hori kristau ez diren erlijioen ezagugarri funtsezkotzat. Eta, hori dela bide, axalkeriatik jaregiteko bide bakarra, aldameneko erlijiora aldatzea dela idarokitzen dute.

Izan, ordea, erlijio guztiek izaten dituzte bortxazko itxuraldiak eta askatasunezko malgualdiak. Gauza bat gelditzen da azaldu gabe: kondaira-une honetan edo hartan gizatalde honek zergatik jasan behar duen aldi hau edo hura. Zergatik erlijio kolonizatuaren gogorkeria funsgabe hori?

Alferrik litzateke kolonizatuaren erlijio-psikologia berezia eraikitzen hastea; baita «dena-azaltzen-duen-izaera» famatu eta bitxi horri berriro dei egitea. Erlijiotasunari arreta apur bat erasten badiote, ez dut nik erreparatu neure ikasle kolonizatuengan larregiko erlijio zaletasunik batere. Eta azalpena fameliaren pisuari buruzkoaren paraleloa dela iruditzen zait. Ez du sendikera edo psikologiaren bereziak azaltzen fameliaren garrantzia, ezta fameli-biziaren azkarrak gizarte egituren egoera. Aitzitik, gizarte biziera osoaren ezintasunak azkartzen du fameli-biziera, gizarte dinamikaren ezinak bil erazten du pertsona multxo hertsiago horretara; eta honek, batera, salbatu eta ito egiten du. Horrela, beraz, legedi kolonizatuaren egoera orokorrak azaltzen du erlijioaren pisukeria.

Instituzinoetan duen sarearengatik, aldioroko bere talde jaiengatik, erlijioa beste *babes-balore bat* bihurtzen da: bai gizabanakoari dagokionez, bai taldeari. Gizabanakoari buruz atze aldeko bil-leku babestu bakan gisa agertzen da. Taldeari buruz, berriz, huraxe da nazio-izakera berezia gerizatze dagoen agerpide bakanetakoa. Gizarte

kolonizatuak nazio egiturarik ez izanik, bere kondairazko etorkizuna ezin asmatu, bere oraintasun astunaz behar du gozatu eta baretu. Eta oraintasun hori bera ere, kolonikuntzaren estaltzetik babestu behar du. Hots, estalkuntza okupatzaile horrek alde guztietatik hertsatzen du belaun gazteen artean bere teknikaz eta bere ospeaz. Bere burura bildu behar horretan, erlijioaren itxurakeria ez da karatxaren alderdi bakar bat baizik: bizia salbatuko badu, hertsitu egin behar du. Badago, beraz, jokabide horretan, bere buruaren gerizatu nahiari ematen zaio erantzuna, talde kontzientziaren salbabidea; hau gabe izan litekeen herririk ez baitago. Koloni-menpetasunean, bai erlijioaren galtzeak bai fameliaren urraerak, herri gisa hiltzeko arrisku larria ekar litzakete.

Gizarte kolonizatuaren zurrunkeria, beraz, bi bila-kaera aurkariren ondorioa da: *barnetik datorren perlesia dago batetik, eta kanpotik hestutua den gorontza bestetik*. Bi fenomenook badute baterako eragile bat: kolonikuntzarekiko lotura. Biak ari dira ondorio berberari buruz: kolonizatuaren perlesia gizarte eta kondairaren mailan lortzea.

### *Kultur-ahanzketa*

Kolonikuntzaren menpean dagoeno, kolonizatuak ez du hautu hau baizik: asimilazioa, nortrukea alegia; ala harrikuntza, edo harri-bihurtzea. Ikusiko dugunez nortrukea ukatua zaiolarik, denboratik at bizitzeaz besterik ez du. Kolonikuntzak uxatzen du denboraren isuritik; eta, hein batez, ohitu egiten da. Etorkizunaren asmaketa eta eraikuntza zilegi ez zaizkiolarik, orainaldiari lotzen zaio; baina orainaldi hori bera ere moztuta dago, eta abstraktoa da.

Gauza bat erants dezagun: iragana gero eta gutxiago daukala bere eskuetan. Kolonizatuak, bere aldetik, daukanik ere ez zaio behin ere aitortu; eta, jakina denez, jatorririk ezagutzen ez den nekazariak iraganik ez du. Larriagorik ere badago, halere. Galde diezaigun kolo-

nizatuari berari: honen gizauren herrikoiak, honen jakintsuak, non dira? Nekez eman diezazuke kolonizaturik batek ere inoren izenik, eta emandakook ere nahasian eta desordenu gaitzean ematen; eta belaunaldiak pasa ala, gero eta nekezago apur hori bera ere. *Itxura denez, oroimena gero eta galduago izatera beharturik agertzen da kolonizatua.*

Oroitzapena ez da izpiritu hutsaren fruitua. Presunaren oroimena haren instituzioetan funtsatua da. Hots, kolonizatuaren instituzioak hilak dira edo perlesiak jota agertzen dira. Bizi itxurari bederen eutsi diotenei buruz, dena dela, ez du federik, ez du fidantziarik, egunero frogatzen baitu ezertarako on eta balios ez direna; eta lotsatu ere egiten dutela gertatzen zaio, oroitarri irrigarri eta zaharkituak lotsatuko lukeen bezala.

Eragin osoa, aldiz, gizarte induria guztia, kolonizatzailearen instituzioetara bildu direla ematen du. Kolonizatuak nolana hiko laguntzaren beharrik baldin badu, haietara jotzen du. Errudun gertatu baldin bada, haietxek dute zigortzen. Beti ere, juje kolonizatzaileen aurrean paratzen da azken buruan. Bertakoren batek aginpidea lortzen badu, begirada iheskor eta keinua etenkorrage izango ditu; alde zurretik edozein kidetasun-deiri ezezkoa eman nahi balio bezala, etengabe kolonizatzaileak zaindurik eta bigiraturik balego bezala. Hiria jaitan barrera abiatuz gero, kolonizatzailearen jaiak ospatzen dira handiro, baita erlijiozkoak ere: Eguberria, Jeanne d'Arc, Ihauteriak, Uztaren 14-a. Kolonizatzaileen armadak egiten du bere parada: kolonizatua zafratu eta burua makurturik atxikitzen duten berberak, beharra gertatzekotan berriz ere zapalduko duten berberak.

Jakina, bere itxura-zalekeria dela bide, beren hartan atxikitzen ditu kolonizatuak bere erlijio-festa guztiak, mendeetan barrera berberak eta aldakuntzarik gabeak. Hain zuzen ere, erlijio festak ez besterik daude denboratik at. Zehazkiago mintzatzekotan kondaira denboren iturburuan daude horiek, eta ez denboraren isurian. Sortuak izan ziren unetik beretik, ezertxo ere ez

da herri horretan gertatu. Delako herri horren bizieran ezertxok ere ez du merezi multzo-kontzientzian atxikirik eta ospaturik gertatzea. Hutsune eskerga bat baizik ez, hortaz, herriaren kondairan.

Iragan horren ekaizko oroitariak, azkenik, ezabatu egiten dira ezari-ezarian; eta geroztikakoek ez dute aurrerakoan kolonizatuaren aztarnarik gordeko. Hiria apaintzen duten imajinek, egunero topatu eta ikusi behar dituen kolonizatuari buruz sinetsi ezinezko mespretxua erakutsiz, kolonikuntzaren urrats nagusiak ospatzen dituzte. Etxegintzak kolonizatuaren molde kuttunak bahitzen ditu; eta kaleen izenek berek kolonizatzailearen sorleku urrunen probintziak gogorazten dituzte. Gertatzen da, bai, kolonizatzaileak batzutan ekaldetar plegu berriren bat asmatzea, kolonizatuak europatar moldeak eta pleguak kopiatzen dituenean bezala. Baina exotismoaren gurtza baizik ez da horretan bilatu behar (harmarri zaharrak eta aspaldiko kutxak), eta ez berpizterik batere. Kolonizatuak ez du bere iragana ukatu eta baztertu baizik egiten.

### *Kolonizatuaren eskola*

Horrez guztiaz gain, nola irauin eraz daitezke herri baten ondasun edo altxor bereziak?

Bere haurrideei ematen dien hezketaren bitartez; eta saiakuntza berriz etengabe osatzen eta borobiltzen den altxor harrigarri batez: hizkuntzaren bitartez, alegia. Ohitura zaharrak eta jabekuntza berriak, usaiak eta irabazpenak, aurreko belaunen ekintzak eta gertakari nagusiak, haretxen bitartez helarazten zaizkie ondoko belaunei, eta kondairan izkiriitzen.

Hots, haur kolonizaturik gehienak kale gorrian daude. Eta eskola batetan hartua izateko zoriona duena, ez da halere nazioaren mailan salbatua izango: prestatzen zaion oroimena ez da, ez, inolaz ere, haren herriarena. Erakasten zaion kondaira ez du berea. Badaki Colbert edo Cronwell nor izan ziren, baina Khaznadar nor izan



zen ez; badaki Jeanne d'Arc nor izan zen, baina ez'kahena' nor izan zen. Badirudi dena gertatua dela haren herrialdetik kanpoan; bera eta bere herria aidean edo daudela, edo izan ere ez direla, ezpada Gaule-tarrei, Frank-tarrei edo Marne delakoari buruz baizik. Kolonizatua ez denari buruz neurtzen dela dena: bera kristaua ez izanik ere, kristautasunari buruz, hantxe irudimenezkoa den lerro ezin-iraganaz bestalde amaitzen den Mendebalde horri buruz. Berea ezertan gogoratzen ez dion mundu bat aipatzen dute liburuek. Muttikoari Toto deritza, eta neskatilari Marie; eta neguko arratsetan Marie eta Toto horiek elurrezko bideskatan barrena bihurtzen dira etxera, eta gartzain-saltzailearen aurrean gelditzen. Erakasleak, azkenik, ez dira inondik inora aitaren segida, ez dira edonon bezala horren ordain ospatsu, prestu eta salbatzaileak. Bestelakoak dira arrunt. Ez dago «transfert»ik: ez haurragandik maisuagana; eta maiz —aitor dezagun— maisuagandik haurragana ere ez. Eta haurrak badaki hau biziki ongi. Hauxe aitortu dit neure eskolakide batek: Literatura, Arteak, Filosofia, guztiz mundu arrotz batetako sorkari zitzaizkiola; eskola-mundu arrotz hartakoxeak hain zuzen. Eta Parisen luzaz egon arte, ez zela hura barnetzen eta iresten hasi.

Transfert hori azkenean mamitzen baldin bada ere, ez da arriskurik gabe gertatzen; ezen bai maisua bai eskola fameli-giroaren arabera guztiz mundu desberdin eta arrotz baten irudia baitira.

Biok, horrela, haurra *osoki* hartu eta jaso beharrean, betirako bitasun bat haren izpirituan sortuz.

### *Kolonietako bimintzairatasuna...*

Kolonizatuaren erdibiketa funtsezko hori bereziki azaltzen eta sinbolatzen da kolonietako bimintzairatasunean.

Kolonizatuak bere burua analfabetismotik jaregingo badu, mintzairazko bitasunean erori behar. Eta hori ere aukera duenean baizik ez! Kolonizaturik gehienek ez dituzte inoiz koloni bimintzodunaren sofrikarioak jasan

behar izango. Ez dute inoiz izango beren etxe-hizkuntzaz besterik; hau da, ez idazten ez irakurtzen den hizkuntza bat, ahozko jakinduria ahul eta zalantzakorra baizik eman ezin dezakeen hizkuntza bat beraz.

Intelektual mordoska batzuk, egia esateko, beren herriaren hizkuntza lantzen lehiatzen dira, eta antzinako edertasun jakintsutan atxiki nahi lukete. Baina, aspaldidanik, eguneroko bizieratik urrundu dira plegu ikasi zorrotz horiek; eta kaleko gizon arruntari beltz eta ulertuezin iruditzen zaizkio. Kolonizatuak, horrela, erlikiatzat dauzka; eta horretaz ari diren gizon errespetagarri horiek, amets zahar batetan barrena abiatu bizi diren ameslarizat.

Ama-hizkuntza horrek eragin apur bat bederen balu gizarte-bizieran, administrazioko takilak edo postaren gorabeherak bederen zuzenduko balitu; baina, ezta hori ere. Burokrazia guztiak, maisutza guztiak, teknikeria guztiak, kolonizatzailearen hizkuntzaz baizik ez dira ari, ez erabiltzen ere. Eta gauza berbera kilometro-mugarriak, estazio-pankartek, kale-zaflak eta erreziboak. Bere hizkuntza soilaz baliatuz gero, kolonizatuaren arrotza da bere aberrian.

Koloni-giroan beharrezkoa da bimintzairatasuna. Edozein elkarpidetan, edozein jakintzatan, edozein aurrerapenetan, nahai-ta-ezko baldintza da. Baina bimintzodun kolonizatuak, ordea, mututasunetik eta bakardadetik horrela irten badaiteke ere, kultur-hondamendi betean barrena abiatzen da horren trukean, eta sekula ez zaio horri nagusitzen.

Ama-hizkuntza eta kultur-hizkuntza berberak ez izatea, ez zaio kolonizatuari soilki gertatzen. Baina koloni-bimintzairatasuna eta beste edozein bimintzairatasun ezin daitezke elkarren parekotzat eman. Bi hizkuntzaren jabe goa ez da bi tresna soilen jabe goa; psikologiazko eta kulturazko bi erresumatan parte hartzea da kaso honetan, ordea, *bi hizkuntzok beren baitan daramazkiten bi sinbolo-kosmo horiek, elkarrekiko gudukan daude*: kolonizatuarena eta kolonizatzailearena dira.

Badago besterik. Kolonizatuaren ama-hizkuntza bere sentsazioez, grinez eta ametsez hornitua dena, bere maitaguneetan eta bere harriduretan isurtzen dena, bihotz-barnerik nasaiena duena, *horixe da gutxiesten*. Begiramendurik batere ez du merezi aberrian, ez atzerrian. Lanbide bat kolonizatuak lortu nahi badu, bere lekua eraiki, hirian eta munduan izan, lehen-lehenik besteen hizkuntzara makurtu behar du, kolonizatzailearen hizkuntzara, bere jabeen hizkuntzara. Kolonizatuarengan bizirik dirauen hizkuntza-gudaketan, haren ama-hizkuntza da isekatua, zafratua, ukatua. Eta praktikaren mailan funtsatzen den mespretxu hori, bere egiten du azkenean kolonizatuak. Bere buruz hasten da hizkuntza ahul hori baztarrera botatzen, atzerritarren aurrean izkututzen, eta itxuraz kolonizatzailearen hizkuntzaz baizik ez aisa mintzatzen. Hitz batez, koloni-biminzairatasuna ez da diglosi bat. Honetan bi mintzaira bizi dira elkarren ondoan, herriaren hizkera eta garbizaleena, eta biok dira, sendimenduari dagokionez, mundu berbereko parte. Eta bimintzairatasun hori ez da poliglosi aberats huts bat; alegia, bigarren teklado bat izan bai, baina aski kutsugabea. Kolonietako bimintzairatasuna *hizkuntzazko drama bat da*.

...*Eta idazlearen egoera*

Kolonizatuak bere hizkuntzazko literatura bizirik ez izateak harritu ohi ditu bazterrak. Gutxiesten eta mespretxatzen duelarik, ordea, nolatan baliatuko ote luke? Era berean urruntzen baita bere musikatik; bere orearteetatik, bere jatorrizko kulturatik. Kolonizatuaren hizkuntza-zalantzasuna, batera da haren kultur-zalantzasunaren ikurra eta oinarri nagusia. Eta honen argigarri bikaina da idazle kolonizatuaren egoera.

Honen urritasuna azaltzeko, egiazki, aski litzateke kolonizatuaren bizimoduaren diru-egoera aztertzea. Gehienen miseri gorriak estadistika hutsaren arabera ere bakandu egiten du ezin larrikiago idazle bakar baten jaiotza eta hazkundera. Baina kondairak erakusten duenez,

klase nagusi bat behar da, eta ez besterik, herri oso bati artistarik eskain ahal izateko. Idazle kolonizatuaren betebeharrari eustea oso da zaila, izan: kolonizatuaren zailtasun eta ezintasun guztiak, gori-gorian, biltzen ditu berak bere buruan.

Eman dezagun izkribuzko lanetan piztutzeko heinean ikasia duela bere hizkuntza erabiltzen, eta bere ama-hizkuntzaz baliatzeko uzkurtasunari zeharo nagusitu zaiola. Norentzat idatziko ote luke? Zein irakurleriarentzat egingo luke? Bere mintzairaz idazteko asmoari eusten badio, gorrez osatutako entzuleria bati hitzegitekotan utziko luke bere burua. Haren herria ezikasía da, eta ez du hizkuntzarik batera irakurtzen; eta burgesek eta letrauek, bestaldetik, kolonizatzailearen mintzairaz baizik ez dakite. Irtenbide bakar bat gelditzen zaio, eta bidezkotzat presentatzen zaio: aski omen du kolonizatzailearen hizkuntzaz idaztea. Zulo-zola batetarik beste zulo-zola batetara aldatzea aurrerako urrats bat egitea bailitzan!

Noski: bere koska gaintitu behar du. Kolonietako bimintzodunak bi hizkuntza batera jakiteko alderdi ona badu ere, egia esan, horietako batto ere ez du arras bildua, beretua eta jabetua. Honetxek azaltzen du hain zuzen koloni-literaturaren jaiotza neketsu eta lantsua. Gizagaia franko behar da hondatu eta alferrik galdu, azkenean, dado-ukaldi bitxi batez, zori ona gerta dadin. Eta orduan ere idazle kolonizatuaren erdibikeria berpiztuzten da, eta era berri eta larriago batez gainera.

Norberarena ez den beste herri batentzako idatzi behar! Patuaren bitxia! Edo oraindik bitxiagorik: norberaren herriaren zapaltzaileentzako idatzi behar! Lehen-dabiziko idazle kolonizatuaren garratzak harritu bide ditu batzuk. Hizkuntza bahitu dioten irakurleria berberarentzako idazten dutela ahortzi ote da? Ez dago, benetan, txotxolokeriarik, eskergaiztorik edo nabarmenkeriarik batera. Hitzegiten ausartuz gero, zer esan diezaiokete irakurleria horri barruan egosten duten ezinegona eta iraultza-nahia izan ezik? Bakezko hitzik espero ote zezakeen inork liskar luzeak mindurik dagoen horrengandik? Ho-

nen bahitura arriskutsu horren ondotik, espero ote zitekeen eskerronik eta irribarrerik?

Ezen bahitura hori ez baita, gainera, bahitura hutsinoiz izango. Egia esan, azalpenen maila utzi dugu oraintsu, eta asmakizunetan barrena abiatu. Baina hain da irakurgarri, hain da nabarmen eta agiriko bahitura hori! Literatura kolonizatuaren sorrera, Ipar-afrikatar idazleen iratzarpena, esate baterako, ez da gertakari bakan bat. Gizatalde osoaren iratzarpenaren alderdi bat da. Fruitu hori ez da, beraz, txiripa hutsa, edo landarearen miraria; honen umoaldiaren seinale baizik. Gehien-gehienez apurtxo bat aitzinago etortzen da artista kolonizatua, bulztatzen eta azkartzen ere duen taldearen iratzarpena baino. Hots, bere buruaz jabetu berria den herriaren eskabiderik premiatsuena, eskierki, *haren hizkuntzaren gaintasuna eta sendoketa da.*

Gauza batek harritzen nau, hain zuzen: horretaz oraindik inor harritu ahal izateak. Hizkuntza horrek ez bestek erraztuko lioke kolonizatuari bere kondaira-isuriari lotzeko; galdutako bere jarraitasunari eta bere kondairari atxikitzeko. Zer da, izan, frantses mintzaira? Tresna soil, lanabes zorrotz eta baliosa bakarrik? Ala baita ere altxor harrigarri bat; honetan pilatu baitira idazleen eta moralisten aurkikundeak eta ekarriak, gizaurenenak eta menturakoienak; eta berorren mamian bilakatu baitira odol, frantses arima eta izpiritua.

Idazlea, horrela, oso nekez europatar hizkuntzez jabetua —alegia, kolonizatzaileenez— ezin dezake gauza bat baizik egin: bere hizkuntzaren alde mintzatuko bada ere, hartaz baliatu behar. Ez dago horretan zentzugabekeriarik batere, ezta hisi hits edo itsusirik. Ez. Behar gorria dago. Berak hori egingo ez balu, herri osoak egingo luke geroago. Dinamika objetiboa da hori, jakina: berak hein batez elikatua, bai, baina baita bera gabe aurrera segitzeko modukoa. Horrela jokatz, jakina, gizon gisako bere trajeria erauzten laguntzen du; baina idazle gisa, bere drama azkartzen eta itsats erazten du. Bere patua eta bere burua ezkontarazteko, ama-hizkuntzaz baliatzen

saia liteke. Baina pertsona baten bizieran bir-ikasketa hori burutzea ezinezkoa da. Idazle kolonizatuak hil arte biketa horietan bizitzera behartua eta kondenatua da. Arazo hori bi erataria baizik ezin daiteke buka: edo berez suntsitu eta amaituko da literatura koloniatua; edo-ta hurrengo belaunek, beren hizkuntza birrerosirik, ziplo idatziko dute kolonizatuaren mintzairaz. Horren urrutiraino itxaron gabe, halere, beste aukera batek kilika dezake idazlea: guztiz metropolitarrak literaturan murgiltzea eta biltzea. Utz ditzagun alde batera jokabide honekin datozen etika-ximikoak. Hori gertatzekotan, dena dela, bere burua hilko luke koloni-literaturak. Nolanahi ere, beraz, bi kasootan, eta batetik bestera epea baizik ez aldatuz, *europatar hizkuntzazko literatura kolonizatuak gazterik hiltzeko itxura du oso.*

### *Gabeziatzko izana*

Dena, hitz batez, hari beretik dator; eta kondairaren hondakin edo bat balitz bezala agertzen zaigu gaurko kolonikuntza. Bere barne-legeaz eta bere berekoikeriaz, osoki izana dateke karrika egite bat, frakasu bat, eta ikutu duen guztia lardaskatu eta zikindu duke. Kolonizatzailea usteldu duke, eta kolonizatu desegin. Horra zitua.

Hobeki garaitzekotan, bere buruaren zerbitzutan baizik ez da saiatu. Baina, gizon kolonizatu baztertuz, honetxe ez bestek marka baitzezakeen kolonia, arrotz gelditu da bertan eta azkeneraino, eta hortaz igarokor ere bai.

Bere buruaz beste egiteaz, halere, bera da errudun. Barkagaitzago izango da kolonizatuaren aurka egin duen kondairazko bekatua: kaminoaren hegiar bestaldera botaita baitu kolonizatu, mendeko denboratik at aurtikia.

Bere kabuz ari izan balitz kolonizatu habaila edo abiadura berean abiatuko ote zen galdetzeak ez du funts handirik. Egi-egiaz mintzatuko bagara, fitsik ez dakigu. Baliteke ezetz. Ezen egia baita ez dagoela koloni-eragilea

herri baten atzerapena azaltzeko eragile eta argigarri bakarra. Herri guztiak ez dira Amerikaren eta Inglaterraren habailan joan: bakoitzak bazituen bere atzerapide eta bere freinu bereziak. Nor bere bidetik eta bere abiadan joan da. Herri baten zorigaitza, bestalde, besteekiko eragozpenen bitartez zuzenets ote daiteke? Kolonizatuak ez dira, noski, kondaireren kaltear edo bitima bakarrak; baina kolonizatupei dagokien zorigaitz berezia kolonikuntza izan da. Hau bai esan daiteke.

Sasi-arazo berbera da asko kezkatu ohi duen galdera hau: kolonizatuak ez ote du, *halaz ere*, kolonikuntzatik probetxurik atera? *Halaz ere*, ez ote du kolonizatzaileak errepiderik egin, eta eritegirik eta eskolarik eraiki? Hitz batez, eta baldintza horrek mugaturik nahi bada, kolonikuntza *halaz ere* gauza onuragarria izan dela esaten da; zeren *hura gabe* errepiderik ez zen izango, ez eritegirik, ez eskolarik. Zer dakigu guk, ordea? Zergatik pentsatu behar dugu kolonizatzaileak aurkitu zuen puntuan eta betirako horretantxe geldirik jarraituko zukeela kolonizatuak? Alderantziz ere errepika liteke: alegia, kolonikuntza gertatu ez balitz, eskola eta eritegi gehiago eraikiko zitzakeela. Tunestar kondaira hobeki ezagutuko balitz, herria erdi-min betean bizi zela erreparatuko zitzakeen. Kolonizatu kondairatik at baztertu ondoren, edo zelako mudantzak oro debekatu ondoren, bai antzinako mendeetan bai gaur eta bai betirako errotik geldikoia dela dio kolonizatzaileak.

Zalantzabide horrek ez du inor asaldatzen, ezpada asaldatzeko gertu dauden berberak. Honeraino lumeroek eta estadistiken erosotasunari ukatu diot. Baina garaia bide litzateke espanturik gabe deitxo bat egiteko: kolonikuntza urte mordoska luze baten ondoren, zenbat haur gehiago ez dagoen kale gorrian eskoletan baino! Eritegietako oheen kopurua hain da, bide beretik, hutsa erien kopuruaren ondoan! Hain da nabarmena eta lotsagabea errepideen zuinketa, kolonizatzailearen beharrei hain hertsiki lotua! Horren laguntza apurrarengatik, bene-benetan, kolonizatu beharrik ez zegoen. Ausardikeria

ote da, horretara, 1952-ko Tunizia, 1881-kotik oso urrun egongo zela pentsatzea? Badaude, bestalde, nagusikeriaz gain, herrien artean bestelako eragin, lotkia eta truke mota batzuk. Beste herrialde txiki batzuk kolonizaturik gertatu beharrik gabe bilakatu eta aldatu dira. Erdialdeko Europatar anitz, esate baterako.

Baina jadanik irribarrez begiratzen gaitu geure entzu-leak, uzkur, hotz:

—Ez da gauza bera halere...

—Zergatik ez? Zer derasazu? Herri horiek europatarrez beterik daudela sendi arazi nahi didazu?

—Bada... bai! horixe da!

—Hortaz: besterik gabe haxe zara zu, jauna: arrazakoi bat!

Eta, egia esateko, betiko leloetara bihurtu gara. Beren izanak bultzatzen eta gaitzen zituelako okupatu dute mundua europatarrek, omen beti; eta europatar ez direnek, berriz, beren izanak berak horretaratzen zituelako gertatu omen ziren kolonizaturik.

Bego hori horretan, beraz. Bazter dezagun kondaira ondotik berriro egiteko seta hori. Utz dezagun alde batera baita *hastapenean* kolonikuntzak errurik izan ote zuenez galdetzea. Kapitalismoaren hedakuntzaren ondorioa ote da hura, ala negozio-gizon zitalen fruitua? Funtsean, bost axola hori. Kolonikuntzaren eta kolonizatuaren *gaurko egiak* du munta. Kolonikuntzarik gabe kolonizatu gertu izango ote zitzakeen ez dakigu batere; baina kolonikuntzaren ondorioz zer bilakatu den ongi ikusten dugu. Oso-kiago menderatzeko eta uxtiatzekotan, kolonizatzaileak arbuiatu egin du kulturaren eta teknikaren, kondairaren eta gizartearen bideetatik kanpora. Gaur egizta daitekeena haxe da: kolonizatuaren kultura, gizartea eta jakintza larriki kolpaturik daudela; eta trukean ez duela lortu jakintza berririk, ez kultura berririk. Kolonikuntzaren zitu nabarmena da, bide horretatik, artistarik batere jadanik ez dagoela, eta teknikari kolonizaturik ez dela oraino agertu. Egia da, bai, kolonizatuaren alderditik, teknika-hutsune bat dagoena. «Arabitar lana» esaten du



mespretxuz kolonizatzaileak. Baina horretan bere jokabidea garbitzeko aitzekia bat, edo gonbarabide eroso bat atxeman beharrean, bere buruaren salaketa beharko luke somatu. Ezen kolonizatuak lanean ez dakitela egia baita. Nork erakatsi die, ordea, gaurko teknikabidea? Non dira lanbide-eskola bereziak, eta non teknika-ikasguak?

Industriaren teknikari sobera begiratzen diozue, esan ohi da batzutan. Baina esku-langileez, ofizialez, zer esango? Hona hemen mahain hau, zurtzuriz egina. Zergatik egin dute kaja-zurez eta itxuraz? Zergatik dago gaizki bukatua, gaizki leundua, margotu eta argizagitu gabe? Eta egia da: ematen zaigun azalpen atal hori xuxen egina da. Tei-mahain horietan eiteaz kanpoko ezer onik ez dago, eta eitea ere tradizino bidez jaso du, aspaldidanikako opari gisa. Gainerakoaz, ordea, eskabideak agintzen du sorrera. Hots, norentzat egin dira mahain horiek? Erosleak ez dauka azken finketa horiek ordaintzerik: ez falta den marrusketaldia, ez argizagia, ez margoakia. Hortaz, kajak bezala gelditzen dira, oholak elkarri ongi atxiki gaberik, edo-ta iltzeen zuloak zabalik eta bete gabe uzten.

Egizta daitekeen gauza da, beraz, kolonikuntzak zabartzen duela kolonizatua, eta zabarkeria eta gabezia guztiok elkar elikatzen eta sustatzen dutela. Industrikuntzarik ezak, teknika-hazkunderik ezak, poliki-poliki kolonizatuaren zanpaketa ekonomikoa dakarte. Eta ekonomizanpaketa horrek, populu kolonizatuaren bizimailak, teknika-gizonik ezin izatea dakarte; eta ofizialea ontzetik, finztetik eta sortzetik aldentzen dute. Kolonizatzailearen arbuioa da azken giltzarria, ezen horrek gehiago irabazten baitu jatorrizko ekaiak beren horretan salduz, metropoliko industria aurkatuz baino.

Baina, horrez gain, norarik gabe ibiltzen da sistema, eta zorigaitza bere buruz abiarazten du. Teknika-ikasgurik ireki balu ere, ez zukeen guztiagatik ere kolonizatua salbatuko; zeren-eta honek, ikastaldia bukatzean, ez baitzukeen bere jakintza erabiltzeko erarik aurkituko. Dena eskas den herrialde batetan, beren diplomak lortu dituz-

ten ijeneru kolonizatuak, burokrata gisa erabili ohi dira, edo erakasle gisa! Koloni-gizarteak ez du teknikarien behar hertsirik, eta ez du ematen ere horrelakorik. Baina, zoritxarrekoa guztiz beharrezkoa ez dena! Peoin kolonizatua aisa trukagarria denez, zergatik ordainduko ote zaio merezi lukeen soldata? Gero ere, gure mendea eta gure kondaira gero eta teknikorrago direla badago; kolonizatuen teknika-atzerapena emendatuz doa, eta harekiko mespretxua zuzenesten bide du beraz. Badirudi bildu eta mamitu egiten duela kolonizatzaileagandik be-rezten duen tartea.

Bi parteen arteko ezin ulertzearen parte bat hutsarte tekniko hori dela esatea ez da guztiz okerra. Kolonizatuaren bizimaila den bezain apala izanik, harremana bera ia-ia ezinezkoa da. Kolonietako Erdi-Harora aipatuz azaldu nahi izaten da gertatzen dena. Luzaz jarrai liteke horrela. Tekniken erabiltzeak eta baliatzeak teknika-tradizinoak sortzen dituzte. Frantses haurrak, Italiar haurrak, motoreren bat miatzeko eta puskatan ateratzeko aukera izaten dute, teknika-tresnaz inguraturik bizi dira. Kolonizatu anitz, alderantziz, makinarik ttikiena edo errazena ikusteko edo hurbiltzeko, gurasoen etxetik irten beharretan gertatzen da. Nola liteke, horrela, mekanikaren zibilizazioarekiko jaierrarik edo makinaren intuiziorik ekartzea?

Dena da gabezia kolonizatuarengan, eta denak du gabetzenago. Baita gaizki elikaturik, makal eta eri dau-den bere gorputzak berak ere. Alferrikako jardun asko aurreratuko litzateke edozein eztabaida hasi baino lehenago argi-eta-garbi hau aitortuko balitz: badago gabezia bat gaitza, badago miseria gorria, orokorra, etengabea, eskerga. Badago biologiako miseria hutsa eta zozoa; alegia, badaude herri oso baten gosetea, azpi-elikatura eta eritasuna. Jakina, urrutitik ikusia, abstrakto xamar eta hotz azaltzen da hori guztia, eta lokamutsezko irudimena erantsi beharko litzaioke. Beti gogoratzen naiz «Tunisienne Automobile»aren autobusaz, Hegoalderuntz joan ginen egun hartaz: oste baten erdian gelditu ginela-

rik, aho guztiak agiri ziren irribarrez; baina begiei, ia begi guzti-guztiei, malkoak zerizkien; eta etsita bilatzen nuela, gogoratzen naiz, trakomarik gabeko begirada bakar bat, neurea azkenean hartan lasai pausa ahal izateko. Eta gero badira ere hetika, sifilia, eta hezur hutsezko gorputz biluzi horiek, hil-biziak bailiren kafetegietako aulkien artetik ibiltzen ari, euliak bezain kapar eta itsaskor, geronen damuen euli...

—Ez, ez! —erantzun digu geure entzuleak—. Miseria hau bazegoen lehen! Iristean topatu genuen!

Bego. (Hiri-ingurueta «bidonville»-biztanlea, bestalde, askotan izaten da ondasunik gabetutako «fellah» bat). Nola iraun lezake luzaz, halere, horrelako nahigabeak sortu ez baditu ere, betirako egiten dituen gizarte-sistemak? Nola ausar daiteke inor kolonikuntzaren alderdi onak eta txarrak alderatzen? Nahiz-eta hobariak eta alderdi onak kontrakoak baino hamaika aldiz inportanteago balira ere, nola onar-eraz lezakete horrelako hondamen-diok, barneko eta kanpoko aldetik batera obratuak?

### III

## KOLONIZATUAREN BI ERANTZUNAK

Horra, beraz. Kolonizatuaren gorputza eta aurpegia ez dira, benetan, batere politak! Ez dago kalterik gabe jasaterik maila horretako kondaira zorigaitzik! Kolonizatuaren aurpegia zanpatzailearen aurpegi gorrotagarria bada ere, ez pentsa gero zapalduarenak bakea eta egokitasuna isurtzen dituenik. Mito kolonizatuaren kolonizaturik ez dago, baina aurkitu egin daiteke. Zapalkuntzaz oratutako izaki bat da, nahi-ta-ez gabeziak eta ezaz osatutako izaki bat da. Nola sinets liteke, horretara, inoiz berak etsiko zuena? Nola onar

lezake sekula kolonikuntzazko lotura hori, eta honen barruan dagozkion sofrikarioa eta mespretxua? Kolonizatuia guztiengan dago aldatu-nahi bizia. Eta gaitzak izan behar dute kolonikuntzaren ez-jakintzak edo berariazko itsukeriak, horretaz ez jabetzeko. Kolonizatuaren premiak, esate baterako, banaka batzuen arazo baizik ez direla esateko: alegia, intelektualen edo handigurakoen afera hutsa, edo hisia eta norberia besterik gabe. Proiezioaren argibide bikaina hau, bidenabar esateko; ezen besteak interesen bitartez azaldu nahi baitituzte hain zuzen interes hutsak eraginak direnek. Kolonizatuaren arbuioa, horrela, gertakari axaltzat presentatu nahi da; nahiz arbuio hori kolonikuntzaren izanean bertan funtsaturik egon.

Egia da areago jasaten duela burgesak bimintzairatasun horretan, kulturazko erdibiketa hori areago bizi duela intelektualak, ezikasiak eta analfabetoak baino. Zeren-eta hau bere hizkuntzaren harresi barnera bildurik bizi baita, ahozko kultur-printzak baizik oratzen ez duela. Egia esateko, beren zorte dorpea ulertu dutenak urduri jartzen dira, eta ezin dezakete aurrerakoan kolonikuntza jasan. Baina onenak dira, prestuenek pairatzen eta arbuia-tzen dute: denon zorigaitza azaldu baizik ez dute egiten, argitu. Nola konpreni liteke bestela horren azkar entzuna izatea, horren ongi ulertuak eta jarraituak izatea?

Kolonikuntza benetan ulertu nahi baldin bada, aldakorra dela aitortu behar da, haren oreka beti ere mehatxaturik dagoela. Edozein egoeratan etsi daiteke, eta laketa, jakina; eta kolonizatuia ere luzaz egon daiteke bere horretan inoiz bizi zai. Baina, goiz edo berant, bortizkiago ala leunkiago, zapalduak bere nortasun osoak bul-tzaturik, halako batez planto egin, eta bizi ezinezko bere bizimoduari uko egingo dio.

Kondairaren mailan posible diren bi irtenbideok saiatzen dira horrela, elkarren segidan edo batera. Edo *bestelakatzen* saiatzen da, edo-ta kolonikuntzak pikatu dion *bere nortasun osoa berriz irabazten*.

*Kolonizatzailearekiko maitasuna eta bere buruarekiko herra*

Kolonizatuaren lehenengo saialdia hauxe izaten da: egoeraz aldatzeko, azala aldatu. Badu aldamenean eredu kilikagarri bat, eta hauxe nagusitzen zaio: alegia, kolonizatzailearena. Honek ez ditu haren gabeziak jasaten, eskubide guztiak ditu, ondasun guztiak baliatzen ditu, eta begiramendu guztiak zor zaizkio; baditu batera aberastasunak eta ohoreak, teknika eta aginpidea. Alderaketaren beste muturra da; eta kolonizatu zapaltzen du, eta joputzan atxikitzen. Kolonizatuaren lehendabiziko xedea hau izango da, hortaz: eredu ospatsu hori berdintzea, guztiz haren itxura hartu eta hartan suntsitzea.

Jokabide hau ulertzeko, egia da, kolonizatzailearekiko mirespena behar da izan; eta, hau dela bide, kolonikuntzaren bedeinkazioa funtsatu nahi izan da. Baina oso agirian dagoen dialektika baten eraginaz, kolonizatu lehiatsuenik bere patua menderatzen ari den memento berean, lehia berberaz ukatu behar izaten du bere burua. Bestela esateko: kolonikuntzaren egoera bera ukatzen ari da beste modu batez. Bere buruaren ukaera eta bestearrekiko maitasuna beti ere aurkitzen dira asimilatuak izan nahi duten guztiengan. Beregaintasun-saiaketa horren bi alderdiok oso loturik daude: kolonizatzailearekiko maitasun horrekin batera, badago sendimendu mordo handi bat: norberaren buruaren lotsatik hasi eta norberarekiko gorrotaraino.

Oso argitzailea da ereduarekiko morroinkeria hori. Emakume kirruak, esate baterako, baita motela, pattala, eta aurpegi arruntekoa denean ere, edozein beltzaranek baino ederrago dirudi. Kolonizatzaileak prestatu duen baliakina eta eman duen hitza, besterik gabe ontzat emanak dira. Haren ohiturak, jazkera, janariak, etxegintza, hertsiki berretuak eta kopiatuak dira, baita desegokiak direnean ere. Ausartenen artean ezkontza gurutzatua da xederik gorena.

Guztiagatik ere balore kolonizatzaileekiko joera edo

jaiera hori ez litzateke aiheru-bide gertatuko, dakarren bigarren partea izango ez balu. Hots, kolonizatuak ez du soilki kolonizatzailearen bertutez bere burua jantzi eta aberastu nahi. Bilakatu nahi duen horren izenean, bere burua urritzen eta txirotzen saiatzen da, eta bere burutik errotik irteten. Gorago beste alde batetik aipatzen genuen fenomenoak aurkitzen dugu berriz. Kolonizatzailearen baloreen artean dago, bereziki, kolonizatuaren beraren ezeztara eta fundiera. Kolonizatuak, horretara, balore horiek ontzat hartzen dituenean, bere buruaren kondenaioa ere ematen du ontzat. Baditu honek etsenplu ezagunak: beltzaren negrofobia, juduaren anti-semitismoa. Emakume beltzak bere ileak zuti-erazten eta lautzen saiatzen dira lehiatuki, baina horiek kizkurtu egiten zaizkie berriro; eta larru-azala pitin bat zuritu nahiz, hamaika sofrikariotan abiatzen dira. Ahal balu, bere arima erauziko luke judu askok; beti ere eta zernahi eginagatik gaiztoa omen den arima oker hori. Kolonizatuari esan ohi zaio ezen bere musika katu-miauketa dela, eta bere margo-tza azukrezko jarabea. Hori dela-ta, bere musika arrunta dela eta bere margotza nazkagarria dela birresaten du. Eta musika horrek halaz ere hunkitzen baldin badu, halaz ere zail eta hotz antzematen dituen mendebaltar bitxikeria guztiok baino hunkitzenago badu, kolore kantari eta nabarmen horien erasketak begira alaitzen badio ere, berak hori nahi izan ez arren gertatzen zaio. Bere buruaz nardatzen da, arrotzen aurrean ukatu egiten du; eta horren nazka biziak sinets araziz, bere burua farragarri uzten du azkenean. Emakume burgesek Europa-tikako edozein pitxi kaskar nahiago dute, tradizionozko pitxirik ederrena baino. Eta turistak miresten dira mendeetan zehar jasotako esku-langintza bikainak ikusita. Hitz batez, beltzak, juduak eta kolonizatuak, ahalik eta antzik handiena hartu behar zuriarekiko, judua ez denarekiko eta kolonizatzailearekiko. Ahaide txi-roarekin bere burua agertzeko anitz lotsatu ohi den bezala, asimilatzekeo minetan abiatua den kolonizatuak ere, bere iragana, bere tradi-

zinoa, bere sustraiak oro, laidogarri bilakaturik, izkutatu egiten ditu.

### *Asimilazinoaren ezintasunak*

Barne-asaldu eta larrimin horiek beren amaia izan zezaketen. Bilakabide luze, mingarri, okasinotsu baten ondoren, kolonizatua kolonizatzaileen artean suntsitzea gerta zitekeen. Kondairak higaketaz gaindi ezin dezakeen hesirik edo arazorik ez dago. Denbora kontua da, belau kontua. Elkarren kontrako barne-oinarririk ez badago bederen. Hots, *kolonikuntzaren barruan, asimilazinoa, nortrukea alegia, ezinezko gertatua da.*

Ia beti, ordaindu behar duen sariaren larriaz, sekula osoki kita ezin dezakeen pagamenduaz, nardatu egiten da nortruke-gai zena, asimilazinarako bidean zetorrena alegia. Eta horrela ulertzen du *osoki* bere saiakuntzaren azken funtsa. Une hori oso da larria; bapatean ulertzen baitu bere kabuz berretzen zituela kolonizatzailearen salaketak eta gaitzespenak, eta bereak dituen horiek fiskalak bezalaxe begiratzen zituela. Ez dira akatsik gabeak, hori ez; ez dira tatxarrik ezin aipatzeko modukoak. Haien kontra eta bertako baloreen kontrako jokabidean bazegoen egiazko funtsik; egia da: ia dena agertzen da haiengan amaitu, eragingabe eta huts. Hala ere, zer debru! Bereak ditu! Eta berak ere behin ere ez dio sakonean horietako beste bat izateari utzi! Mendeetan barrena mamitu diren erritmo horiek, ahoa eta urdaila horren egokiro betetzen dituzten janari horiek, bereak ditu beti, hura berbera dira. Hortaz, zer? Beti ere biziera guztian barrena lotsatuko ote da beragan egiazkoena denaz? Bahitua eta kopiatua ez den atal horretaz ahalketuko hain zuzen? Beti ukatzeari eutsiko ote dio, bestalde? Jasan ahal izango ote du horrelakorik? Etengabeko bere buruaren uko bortitzetik pasa beharko ote du bere askatasun bideak?

Ezintasun nagusia, halaz ere, ez datza horretan. Eta berehala aurkitzen du: nahiz denari amore eman, ez litzateke halere salbatuko. Zeren-eta asimilatze, nortru-



katzeko, herri-nortasunez aldatzeko, ez baita aski norberaren gizataldeari agur esatea, beste batetara sartu behar baita. Hots, *kolonizatzailearen ukoa topatzen du horretarakoan.*

Bere kontra mamitu den mespretxua, bere atzerape-nak, bere ahultasunak, bere zalantzakortasunak erakarri dutela sinesten du. Hots, kolonizatuak mespretxu horri nagusitzekotan egiten duen eginahalaria, bere menpekotasun miresleari, kolonizatzailearen kide bihurtzeko bere lehiari; baita keinuetan eta amodio-kontuetan berdin jazteko, hitzegiteko eta jokatzeko egiten duen saiaketa lantsuari, kolonizatzaileak bigarren mespretxu bat erasten die: *trufarena*. Saiaketa horiek alferrik direla esaten dio, eta kolonizatzaileari ongi adierazten; ez duela gauza bat baizik irabazten alderdi horretatik: farragarri gelditzea. Zeren-eta sekula ez baita haren kide osoa izango, ezta bere betebeharra berdin beteko ere. Onenean, eta kolonizatua sobera minberatu nahi ez badu, bere izakera-metafisikaren gorabeherak erabiliko ditu. Herrien etorriak ezkondu ezinezkoak dira; keinu bakoitza arima osoaren agertzapena baizik ez da, eta abar. Zakarkiago mintzatzekotan, kolonizatua tximu bat baizik ez dela esango du. Tximua zorrotzago, beraz, eta kolonizatzailea amorratuago. Eta borondate txarrak zorrotzago egiten dituen arreta eta usnamenaren bitartez, jazkeran edo hizkeran doi edo xehetasun salatzailearen bat kausituko du; alegia, nola edo hala «fintasunik eza» atxemanen du. Bi kulturaren gainean bizi den gizona, nekez exertzen da egokiro, eta kolonizatuak ez du beti asmatzen behar litza-tekeen *doinu* egokia.

Urratsa kolonizatuak eman ez dezan, dena on; bide horrek inora ez daramala konpreni arazi behar zaio, eta bezalakatzea, asimilazinoa alegia, ezinezkoa dela.

Hori dela-ta, metropoliko humanisten negarrak oso agertzen dira alferrikako, eta kolonizatuen kontra haiek egiten dituzten erasiak oso ere eragabe. Nolatan arbuia-tzen ote du kolonizatuak —harriturik diote— sintesi eskuzabala? Irabazi egingo lukete, diote ahapeka. Hots,

*bezalakatzea, asimilazinoa, kolonizatuak nahi izan du aurrenik, eta kolonizatzaileak ukatu dio.*

Gaur, koloni-aldiaren amaia hortxe ageri delarik, borondate berankor eta oneko batzuek galdera berbera egingen diote beren buruari; alegia, asimilazioaren bide hori ez ote den kolonizatzaileek galdua duten okasino berezia. Ai! Nahi izan bagenu! Ehun miloi frantsesen Frantzia hori ikusten ahal duzu? —galdetzen dute amets betean—. Ez da debeku, ez, kondaira bir-asmatzea, eta kontsolagarri ere gerta daiteke maiz. Beste mami bat aurkitzekotan bederen, izkutuan zetzan beste gotortasun bat atxeman. Ongi buru ote zitekeen asimilazinoa?

Baliteke beste kondaira-gunetan posible izatea. Mende honen kolonikuntzaren ingurunetan, ezetz dirudi. Beharbada kondairazko zorigaitz bat izan da; beharbada denok batera deitoratu behar dugu. Baina karrika egin ez-ezik, parteliant guztiei iruditu zaie obratu ezina.

Hitz batez, lurjotze hori ez da izan kolonizatzailearen ustekerien ondorio hutsa, ezta kolonizatuaren atzerapena ere soilki. Asimilazinoa, bai obratua bai galdua, ez da sendimendu onen kontua, ezta psikologiaren mailakoa ere. Aski luzea delarik, zertzelada mordo batek pertsona baten zoria edo patua alda dezake. Zenbait kolonizatuk pratikan kolonizatzaileen gizataldean suntsitzea eta funditzea lortu du. Gauza ageria eta garbia da, ordea, talde-drama bat ez dela behin ere konponduko bat-bederazkako soluzioen bitartez. Gizabanakoa bere ondorengoengan suntsitzen da, eta taldearen drama aurrera doa. Kolonietako asimilazinoak funtsa eta eragina izan ahal zitzan, herri oso bat iritsi beharko luke; alegia, *kolonikera osoa aldaturik gerta zedin eran*. Hots, erakutsi dugunez, koloni-lotkia ezin daiteke alda, ezpada *koloni-harremanaren fundieraren eta ezertapenaren bitartez*.

Bi irudiak dinamiko moduan elkarri eratxeikirik lotzen dituen lotkia funtsezkoa topatzen dugu berriro horrela. Berriz ere gauza bera dugu: alegia, bataren edo bestearen gainean jokatzeko alferrik dela, lotkiaren beraren gainean ere denbora berean jokatzeko ez bada; hau da, kolonikun-

tzaren beraren gainean. Kolonizatzaileak asimilazioa eta bera bezalakatzea begi onez onar litzakeela esatea, edo-ta onartu egin behar lukeela proposatzea, hau da kolonizatuaren askatasuna, *koloni-harremanari, koloni-egiturari eta lotkia bereziari itzuri nahi izatea da*. Edo-ta beste hau pentsatzea: kolonizatzailea bere kabuz bere egoerari funski eta errotik nagusi dakiokela; koloni-abantailen ezesperaraino nahi izanez gero hel daitekeela, eta beraz, kolonoen eta industriadun eskubide gehiegizkoen akaberaraino joan daitekeela, langileria ongi ordaintzeraino; eta kolonizatuaren aurrerapen eskubidezko, administraziozko eta politikoetaraino, koloniaren industrikuntzaraino... nik dakita noraino? Hau da: koloni-gisa koloniaren amairaino, eta metropolia den aldetik metropoliaren azkeneraino. Brauki esatera, bere buruaz beste egitea proposatzen zaio kolonizatzaileari.

Gaur egungo baldinkizunetan, *asimilazioa eta kolonikuntza elkarren aurkakoak dira*.

*Jazarpena...*

Zer besterik egin ote dezake hortaz kolonizatuak? Bere egoeratik kolonizatzailearekin elkar aditurik ezin ilkirik, kolonizatzailearen kontra jaregiten saiatuko da: jazarri egingo da, beraz.

Koloni jazarpenez harritu beharrean, usuago eta bortitzago ez izateak harri gintzake areago. Egia esan, erne ari da kolonizatzailea horrelakorik gerta ez dadin: hobereen etengabeko irenketa, ustelkuntzaz edo polizi-zanpaketaz halarik ere agertzen diren guztien aldioroko desegintza eta soilketa; erronkeriaren bidez, nolana hiko mogimendu herriko guztien ilortzea, baita segidan haien fundiera basa eta azkarra. Kolonizatuaren beraren zalan-tza-giroa azpimarkatu dugu gorago, berorren oldartasunaren eskasia eta erdipurdikeria; zeren-eta oldartasun hori, hala nahi izan ez arren bere garaitzailea miresten duen garaituaren oldartasun mota baita. Eta kolonizatzaile ahalguztidunak halako batez ontasuna bera emango lu-

keen esperantzakeria salatu dugu, luzaz eta gogorki irauna.

Baina jazarpenaz beste irtenbiderik ez dago kolonikuntzatik jaregiteko. Goiz edo berant aurkitzen du kolonizatuak gainerako guztiak iruzurrak direla. Honen baldinketa osoa da, absolutua; eta behar den soluzioa ere, absolutua izan behar: etendura bat, eta ez moldaketa edo orrazketa soil bat. Bere iraganetik erauzia izan da, eta etorkizunari buruz geldi arazia; tradizinoak hiltzear dira, eta kultura berri bat inoiz lortzeko esperantza galtzen ari. Ez du hizkuntzarik, ez banderarik, ez teknikarik, ez nazio-izaterik, ez nazioartekorik, ez eskubiderik, ez betekizunik: *ez dauka deusik ere, izan ez da ezer ere, eta fisik ere ez du espero*. Horrez gain, egunetik egunera presakoago bihurtzen da soluzioa, gero eta errotikago lortu beharrekoa. Kolonizatuak abiarazi duen fundibidea, gero eta larriago agertzen da. Zapalkuntza handiago, eta kolonizatzaileak bere burua garbitu beharrago, eta kolonizatuaren gutxietsi eta apaldu beharra larriago, eta bere burua errudun agertzenago, eta bere burua hortaz garbitu beharrago, eta abar. Nola ifernu-inguruma horretatik ir-tengo, *hautsiz ez bada?* Bere barne-ezinbestez beraz, iraultza deitzen du kolonikuntzak, matxinada, jazarpena. Zeren-eta koloni-egoera ezin baitaiteke *orraxtua* izan. Kataia bat bezala, etena izan daiteke, baina ez besterik.

*...Eta kolonizatzailearen arbuioa*

Gauzak horretan, itzulketa bat gertatzen da. Asimilazioaren asmoa alde batera utzirik, kolonizatuaren askatasuna bere buruaren sendoketaz eta birrerosketaz, eta bere kabuzko dinatasunaz beharko da lortu. Kolonizatzailearen aldeko oldar harek bere buruaren ukaera eskatzen zion funtsean. Kolonizatzailearen arbuioak, berriz, nahi-ta-ez bere buruaren jabekuntzara behartuko eta bul-tzatuko du. Irudi salatzaile eta deuseztatzaile horretatik libratu beharra dago aurrenik; eta zapalkuntza ezin in-

guraturik edo saihesturik, aurrez aurre eraso beharko zaio. Kolonizatzaileak horren luzaroan arbuiaturik egon ondoren, oraingoan kolonizatuak arbuiatzen du kolonizatzailea.

Iraulketari hori, halaz ere, oso osoa ez da. Ez dago haseran osotara asimilatzeke deliberrorik, ez bigarren urrats honetan ereduaren arbuio guztizkorik. Baita iraul-aldirik gogorrean ere, horren luzaroan izandako hauzotasun horren bahiturak eta ikaskaiak atxikitzen ditu kolonizatuak. Aspaldidaniko emazte ohiaren irribarreak eta keinuek berek, baita berezkunderako bideak dagoenean, senarrarenak harrigarriro gogorazten dituzten bezala. Eta horretatik bitxikeria (haren esker gaiztoaren frogabide gisa maiz aurkeztua): kolonizatzailearen balore berberen izenean gudukatzen dela kolonizatuak, beroien izenean eskatzen, eta haretxen pentsabideak eta gudabideak erabiltzen. (Kolonizatzaileak beste mintzairarik ulertuko ez lukeela erantsi behar da, dena dela).

Geroztik, halere, hanartean bai espasen huts izandako kolonizatzailea, batez ere ez espasen bihurtzen da oraingoan. Eta *erabaki egin du* kolonizatuak bere jokabide osoan batez ere ez espena dena. Osoki jartzen du orain zalantzan kolonizatzailea, bai kulturaren bai bizieraren mailan; eta hura bezala, dena, metropolia barne jakina, zalantzan eta koloka agertzen da. Bere ekintzarik ttipienez, susmo txarrez ikusia da, kontratua, gudukatua, ukatua. Errabiaturik eta nabarmenki nahiago ditu orain kolonizatuak alemaniar berebilak, italiar irratiak eta amerikatar frigoak; eta tabakoak kolonizatzailearen markarik baldin badarama, utzi egingo du aldebat. Jakina, badago horretan ekonomiaren mailan bultzatzeko eta zigortzeko bide bat, bai; baina hori hainbat gutxienez, kolonikuntzaren sakrifizioaren ritoa dago jokabide horietan. Eta azken buruan egun lazarriak datoz; eta kolonizatzailearen herria edo kolonizatuaren ezin-jasana gorroto bihurturik eta mukurru eginik, odolezko eroalditan lehertzen dira. Eta gero eguneroko biziera hasten da berriro, drama-kutsua

handiagoaz markatua, eta betirako erdibituago eta osota-sunik gabeago.

Gizaro horretan jarri behar da xenofobia, baita kolonizatuaren aldetikako arrazakeri-pleguren bat ere.

Kolonizatzaile guztiak orain batera hartuz, eta denak batera gaitzetsiz, eta «haiek», «berak» edo «besteak» deitura ilunetara bilduz; kolonizatuak bere gizatalde osoa gotortuz eta batuz, denengandik urrun eta aparte ezarriko du.

Batzutan, bere antza ez duten guztiak kondenatuko ditu, bera bezalaxe zanpaturik bizi ez direnak oro alegia. Eginak eta asmoak ez dira txit desberdinak kolonikuntzaren gizaroan. *Kolonizatuaren iritziz, kolonietako europatar guztiak dira, izan, kolonizatzaile.* Nahi badute eta nahi ez badute ere, berdintsu: alderdi honetatik edo hartatik beti badira-ta: ekonomiaren mailan abantailatuak direlako, zanpakuntzaren politika-sisteman sarturik daudelako, edo kolonizatu ukatzeko sendimenduzko multzo horretan nola edo hala parteren bat hartzen dutelako. Azken buruan, bestalde, Europako europatarrak oro gerta daitezke kolonizatzaile: aski lukete koloniratzea. Baliteke gaurko beren horretan ere kolonikuntzatik probetxu apurren bat ateratzea. Europaren eraso orokor eskerga horretan lankide ez badira ere, errukide bederen badira denak. Ezen beren pisu guztiaz laguntzen baitute egoerari atxikitzen, nahiz berariaz nahiz oharkabean. Xenofobia eta arrazakeria, azkenik, denei ezin erremediatuzko jokatibide bakar eta kaltegarri bat erantsiz, gizatalde bat osoki gaitzestean baldin badautza, eta multzo horretako edozein lagun alde-aurretik, «a priori» alegia, kondenatzean, alde horretatik kolonizatu atzerritarren etsaia, xenofobia alegia, eta arrazakoia da. Halakoa bilakatu da, egiazki.

Arrazakeria eta xenofobia guztiak norberaren mitogintza eta besteen aurkako eraso eragabe eta zuzengabeak dira. Baita kolonizatuari dagokionez ere. Areago, beraz, kolonizatzaileengandik berengandik at ere helarazten direnean, hertsiki kolonizatu ez den orori erasten zaizkionean. Esate baterako, gizatalde bat, jopu eta esklabo ez

delakoxe, eta beronen zoritxarrez besterik gabe poztutzea. Baina, era berean, beste hau ere esan behar da: kolonizatuaren arrazakeria mitogintza askoz ere zabalago baten ondorioa dela: kolonialista mitogintzarena, hain zuzen.

Kolonialista arrazakeriak beti berex harturik eta gurtzaturik, azkenean berex onartzen du bere burua kolonizatuak berak; azkenean ontzat ematen du koloniaren erdibiketa manikeoa, baita mundu guztiarena ere ge-roenean. Munduaren erdi batetik betirako baztertuak, nola ez ziokeen susmo txarrik hartuko erdi horri, baizik-eta bere gaitzespina legeztatu duela? Nola ez juzkatuko eta garaia heltzean gaitzetsiko eta madarikatuko? Kolonizatuaren arrazakeria ez da, izan, biologikoa edo metafisikoa, gizarte eta kondairazko errotatikakoa baizik. Ez du oinarritzat gorrotatutako gizataldearen mengoa; baina talde hori guztiz eta arras oldartzaile eta kaltegarria dela sinestean, eta hein handi batez frogatu izanean. Oraindik ere gehiago: gaurko europatar arrazakeriak inoren beldur baino gorrotoago eta gutxiestenago badu ere, kolonizatuaren arrazakeria, alderantziz, beldur da oraino, eta miretsi egiten du oraindik. Hitz batez, arrazakeria oldartzailea ez da, gerizabidezkoa baizik.

Badirudi, beraz, hein batez arraza izan daitekeela leuntzen eta amorrurik gabetzen. Hamar urte honetan kolonizatuaren bazterkeria hori salatzeke kolonizatuaren desgizakuntza oso hori ukatzeko eta itsusteko entzun erazi diren europatar abotsek, banaka batzuk izanagatik ere, gehiago lortu dute, saio on eta filantropia guztiek baino; zeren-eta azken hauetan guztietan beti berezketaren bat baitatza tinko azken hondarrean.

Horregatik esan daiteke, beraz, ondoko itxurazko astakeria hau: kolonizatuaren xenofobiak eta arrazakeria! beren barruan hisia eta ezespren gaitzak badaramazkite ere, alderdi onerako mogimendu baten hitzaurrea izan daitezkeela: alegia, kolonizatu bere buruaren jabetzarena.

*Norberaren sendoketa eta finkaera*

Hastapenean, halere, eskabide kolonizatuak itxura liferentzizale eta bere burura biltzearen aldeko hori hartzen du: hertsiki mugatua da, eta kolonikuntzak eta kolonitzailearen betebeharrak oso baldindua eta hesitua.

Kolonizatuak bere burua onartzen du, bere burua sendotzen du, eta bero-bero onar erazten. Nor da bera, ordea? Gauza bat ez da bederen: balore unibertsal orokorren garreatzaile huts bat, gizon guztiengan aurki litezkeen balore berberen eramale edo nortzaile huts bat. Horixe ez. Hain zuzen ere, unibertsaltasun edo orokortasun horretatik ateraia izan da, bai hitzen baranoan, bai eginenean. Aitzitik, beste gizonengandik berezten duena bilatu, nabarmen erazi eta gotortu egin da, izaerazko eginez. Harrokeriaz oratuz, besteak bezalakoa inoiz izan ezin litekeela adierazi eta frogatu zaio; besteek inoiz beretuko ez zuten parte horretan, mespretxatua izan da eta zokoratua. Tira, hortaz! Bego! Gizon horixe da, hain zuzen, eta gizon horixe izango da. Eta Europa mirets eta edan erazten zion grina berberak, liferentziak bilatzen eta nabarmen erazten lagunduko dio orain; zeren-eta liferentzia horietxek osatzen bai omen dute bera, eta haren izana bera zertzen.

Barnetik bederen erlijioa zapuztua zuen gazte intelektual hura, horretara, Ramadan aldian jan ohi zuen berbera, orain ageri-agerian hasiko da barur egiten. Ritoak fameli-lan aspergarri eta ezin baztertukoztat zeuzkan berberak, bere gizarte-bizieran sartuko ditu berriro, eta bere mundu-ikuskeraren barruan leku emango. Hobeki erabiltzekotan, ahaztutako mezuak bir-azalduko ditu, eta gaurko beharren arabera bir-moldatuko. Erlijiotasuna, bestalde, ikusi-ezinarekin lotzeko egiten den saiaketa ez-zez, gizatalde osoaren biltoki aparta bat dela ere erreparatuko du. Kolonizatua, honen buruzagiak eta intelektualak, honen tradizinozaleak eta liberalak, gizarte-klase guztiak batera, hitz batez, elkarganatu egin daitezke erlijio horri esker, berriz lot dakizkioke elkarri, beren



batasuna eta trinkotasuna berriz aurki eta susta. Arriskua gaitza agertzen da, jakina, bidea helburu bilaka dadin. Mito zaharretan horren arreta handia jarritz, mitook berrituz eta gaztetuz, arriskutaraino berpizten ditu. Noski. Harrigarritzko indarra hartzen dute, eta buruzagi kolonizatuaren xedeetatik at ere lerra daitezke. Besterik ere gertatzen da: erlijiorik eza edozein aurrerapenen baldintza jotzen zuen saltsero ausart harek berak, gogoz hartzen ditu berriro mespretxatutako ohitura zahar haiek; eta zaharrakatutako tresneria bera...

Hau guztia, dena dela, kanpotikako soegilearen iriztiz hain inportantea izanik ere, eta herri osasun jeneralaren aldetik beharbada halakoa izanik ere, kolonizatuaren alderditik garrantzirik gabea da. Gainerako guztia bultzatzeko eta gidatzeko badaki orain bere ekintzaren ardatzak eta eragileak zein izan behar duten: bere herria sendotu behar da, eta bat egin behar da norbere herriarekin. Hots, dudarik batere gabe, erlijioa da herri horren osakinetako bat. Mundu guztiko ezkertar guztiak nardatuz eta harrituz, erlijioa izan zen Bandung-ko elkarretaren bi oinarrietako bat.

Era berean, kolonizatuak ez zuen hizketa ahul gisa baizik ezagutzen bere hizkuntza. Eguneroko kontuetatik eta sendimenduzko hizketarik apalenetatik irten nahi izanez gero, kolonizatzailearen hizkuntzara jo behar izaten zuen. Orain bere buruzko xede berezi horretara bihurtuz, bere ama-hizkuntzara bihurtzen da berehalatik. Irribarre gaiztoaz ohar erazten zaio bere hiztegia oso murrizta dela, bere joskera oso zabartua dela, farragarria litzatekeela matematika gorenez edo filosofiaz hizkuntza horretaz emana entzutea. Baita ezkertar kolonizatzailea ere harritu egiten da tarrapataka nahi horretaz, beharrik gabeko erronka eta dixidu horietaz, azkenik galestiago izango baitzaizkio gainera kolonizatuari, kolonizatzaileari baino. Motoreak eta abstraktoa erakasterakoan, zergatik ez jarraituko europatar hizkuntzak erabiltzen?

Hots, horretan ere, badago premia handiagokorik kolonizatuaren ustez, matematika, filosofia eta teknika

bera baino. Herri osoak aurkitu du bere burua. Eta mogimendu horri tresnarik egokiena eman behar zaio: zuzenean izpiritutik datorrelako, barne-tarterik laburrena uzten duen tresna eskaini behar zaio. Eta bide eta tresna hori, bai jaunak, maitasunezko eta laztantasunezko hitzena da, haserrearena eta gorrotoarena, eltzegileak bere eltzeei hitzegiten dienean erabiltzen dituen hitzena da, eta zapataginak bere zolekin erabiltzen duena. Gero etorriko da erakaskintza, gero etorriko dira elederrak eta zientziak. Herri horrek zai egoten ikasia du, eta itxaron egingo du... Seguru ahal da, bestalde, mintzaira hori, gaur totela eta ahula, inoiz sendo, zabal eta aberats izan daitekeela? Hari esker aurkitzen du gaurdanik ahantzi-tako altxor ederrik; eta hutsaren hurrena ez den iragan-aldiarekin lotura bat eraiki daitekeela somatzen du... Hortaz! Akabo zalantzak eta bigunkeriak! Alderantziz: eteten jakin behar, aurrera ausarki jotzen jakin behar. Baita zailtasunik handiena aukeratuko du. Hizkuntza kolonizatzailearen erosotasunak berak ukatuko dizkio bere buruari; eta ahal bezain sarri eta azkar ordainduko du leku eta adiuntza guztietan. Herri-hizkera eta hizkuntza ikasiaren artean hautatu behar izatekotan, hizkera ikasia nahiago izango du, nahiz bilatutako elkar-ulerketa horrela zailago egingo bada ere. Inportanteena hauxe baita orain: bere herria, egiazko izaera zein nahi den ere, bir-erakitzea, bir-altxatzea, herriaren batasuna lortzea, herriarekiko lotura seguratztea, eta nork bere burua haren partetzat senditzea.

Ordainkizuna zein nahi den izango bada ere, besteen kontra behar bada ere, kolonizatu aurrera joango da bide horretatik. Abertzalea izango da, naziozalea; eta ez, jakina, internazionalista. Noski: horrela jokatzuz, berekoikeriara, chauvinismora lerratzeko arriskutan gertatzen da; biderik hestuen hautatzekoa, bere nazio-elkartasuna gizatar elkartasunaren aurka paratzekoa; eta baita etni-elkartasuna bera nazio-elkartasunari nagusitzera uztekoa. Baina horrenbestez jasan eta sofritu duen kolonizatu horrengandik, bere buruz eta bere kabuz bera izate-

rik izan ez duen horrengandik, orain kolpez mundurakoia, zabala, gizatarra eta internazionalista izan daitekeela us-te izateak, farragarri ematen du, eta pikutan egotearen seinale da. Zeren-eta oraindik ere bere burua altxatzeko unean baitago, bere burua harrituta begiratzeko unean, bere hizkuntza berotasunean altxa nahi bizian, eta... kolonizatzailearen hizkuntzaz ari.

Besterik ere bada ohartzeko modukoa: lehenago kolonizatzailearen alde joanago, eta beroago izango da bere buruaren sendotu-nahi berrian. Txiripa eta ezuste hutsa ote da horrenbeste buruzagi kolonizatu, ezkontza gurutzatutan elkaturik ikustea? Bai Tunezko Burgiba buruzagia, bai Messali Hadj eta Ferhat Abbas aljeriarrak, bai beste abertzale anitzek, bizia beren herrikideak gidatzekotan emanak, kolonizatzaileen artean hautatu zituzten beren emazteak. Nola hori? Kolonizatzailearen saiaketa azken bururaino ezagutu eta eramanik, eta bizi ezinezkoa topatu arteraino dastaturik, atzera egin dute osoki. Bere sorlekua eta bereak inoiz utzi ez dituenak, behin ere ez du ulertuko noraino atxikitzen dituen gero. Badakite horiek orain beren salbabidea eta beren herriarena bat direla, ahalik eta hurbilenik egon behar dutela, eta tradizioetatik ere ahalik eta bertenik. Ez dago debekatuta, bestalde, zuzenetsi beharra ere joera horietan aurkitu ahal izatea; alegia, burua zeharo makurtuaz beren burua barkarazi eta birrerosi nahi izatea.

### *Norberaren sendoketaren zalantzakeriak*

Norberaren sendoketa horren beharra gauza ageria den bezalaxe, eginbeharraren zalantzak eta ezpaiak ere ageri dira. Kolonizatuaren jazarpena berez jokabide argia bada ere, mamiari dagokionez uherra izan daiteke; zeren-eta egoera uher baten ondorioa baita: kolonikuntzarena, alegia.

1/ — Baztertu nahiaren erronka altxatuaz, kolonizatuak berezizat eta desberdintzat onartzen du bere bu-

rua; baina *bere berezitasun hori kolonizatzaileak markatu eta mugatu* dio.

Berez hauxe da: erlijio eta tradizioa, teknikarako ezintasuna, izakeraz ekaldetarra izatea omen, eta abar. Bai, dio kolonizatuak: horixe naiz. Idazle beltz bat, horretara, bereen *izana*, beltzena alegia, eta mekanika-zibilizazioa ezkondu ezinak direla frogatzen saiatu zaigu lehia bizian. Eta harrotasun harrigarria bilatzen zuen ezintasun horretan. Dударик gabe bere buruaren irudi hori, kolonizatzaileak proposatutakoa berbera, ontzat ematen du kolonizatuak. Bere burua hartzen du, beraz, bai, bere eskuetan; baina *kolonikuntzari dagokion mitogintzari eutsiaz*.

Jakina: ez du horretaratzen ideia bilabide soil batek, ez du kolonizatzaileak berak *zertu* eta kitto. Ez. Haren egoera edo jarrera kolonikuntzak *egin* du. Bere gorputzean eta bere ariman, bere giharran eta bere sasoian, hustu eta gabetutako herri bat *egin* du bere. Loria-rik gabeko kondaira batera bihurtzen da, zulo izigarritz betea; alde batera uzteko asmoa izan eta berez hiltzear den kultura batera bihurtzen da; gogortutako tradiziotara dator, erdoitutako hizkuntza batera. Azkenean onartu duen ondasuna, edonor etsi erazteko pasibo batez zamaturik dago. Zorrak eta letrak kitatu eta sinatu behar ditu; hots, zor-letra horiek ugariak dira, eta gaitzak. Egia da, bestalde, koloniko instituzioak ez direla haren bitartez ibiltzen. Hezpideak ez du bera helburutzat, eta saihetsetik baizik ez dio balio. Errepideak zabalik baldin baditu orain, erregalia gisa hartuak ditu beren horretan, oso-osorik.

Baina bera jazarpenean azken bururaino joan ahal izateko, debeku eta gabezia horiek oro onartu behar dituela iruditzen zaio. Nahiz herrialdeko zerraila guztiak giltza horren bitartez irekitzen badira ere, hizkuntza kolonizatzailearen erabilera debekatuko dio bere buruari; panelak, iragarkinak eta kilometro-mugarriak trukatu egingo ditu, baita truke horretan lehenengo kaltearra bera izango bada ere. Kolonizatzailearen eskola-erakasleria hantxe utzi baino, pedagogi-errakuntzatan barrena bolara

luze batez errebelaturik ibiltzea nahiago. Kolonizatzaileak eraikitako instituzioak ahalik eta azkarrenik desegitekotan, instituzioen desordenua eta nahaspila hautatuko ditu. Horretan guztian, bistan da, kontra-erantzun sakon bat dago. Horrela jokatuz ezertxo ere ez dio kolonizatzaileari zor izango, eta osoki etengo du harekiko lotura. Baina besterik ere bada: hori guztia *kolonizatzailearena dela* sinetsia da; eta, oker badago ere, *kolonizatuari ezin dagokiokeela* hortaz. Hori uste du. Hots, horixe esan izan du beti kolonizatzaileak. Hitz batez, jazartu den kolonizatuak lehenengo urratsean *ukaera eta ezespren gisa onartzen du bere burua, eta halakoa nahi izaten ere.*

2/ — Ukakortasun hori, ez-tasun hori, bere buruaren jabekundearen eta bere burrukaren elementu funtsezkoa bihurtzean, goratu egingo du eta absoluturaino aintzatuko. Bere zimurrak eta zauriak onartu ez-ezik, ederrak direla ere esango du goratik. Bere buruaz fidantzia harturik, bere horretan dagoen bezalakoa eredutzat munduari proposaturik, nekez has dezake batera bere buruaren kritikarik. Bai kolonizatzailea bai kolonizatu gogorki eta suharki arbuiatzen baditu ere, ez ditu guztiagatik ere behar bezala berezten egiazki bera dena eta kolonialdian barrena zorigaitzez itsatsi zaiona. Bere horretan eta osoki proposatzen du bere burua, orokorki onartzen du bere burua; alegia, halaz ere bilakatua den kolonizatu hori bera. Behingoz, beraz, eta kolonialistaren salaketan ikus zitekeenaz bestaldera, kolonizatu, bertako horren kultura, horren herrialdea, berea duen guztia, bera ordaintzen duen guztia, *bai-tasun oso, baiespen oso* bihurtzen dira.

Beraz, *kontra-mitogintza baten aurrean* paratu gara. Kolonizatzaileak proposatzen zuen mito ezkorriari, kolonizatuak bere buruaz proposatzen duen *mito baikorra* darrakio. Itxura denez, eta bere ukaeraren aurkatasun osoan, langilearen mito baikor bat dagoen bezala. Kolonizatu (edo maiz ere honen lagunak) entzunez gero, horren ohiturretan eta tradizioetan, horren eginetan eta xedeetan, dena on, dena gordegarri eta atxikitzeko mo-

dukoa; baita xaharkitua, erkitua eta deskalabratua, baita gizabiderik gabea eta okerkuntza ere. Dena azaltzen denez gero, dena zuzenesten da. Ihardukietan sortu da kolonizatuaren auto-sendoketa, eta haien arabera moldatuz doa. *Jazarraldi betean, beraz, kolonizatzailearen eta kolonikuntzaren kontra bizi izaten da kolonizatua, eta kontra pentsatzen, irizten eta senditzen du; eta hortaz, berioen arabera era bai.*

3/ — Somatu egiten du kolonizatuak hori guztia, bere jokabidean salatzen, zenbait aldiz aitortzen ere bai. Jokabideok funtsean erreazio, oihartzun eta erantzun nabarmenak direla erreparatuz, fede txarrari, azpikeriari dagozkion kezkarik gehienek harrapatua izaten da.

Bere buruaz ez sobera fidaturik, hasarretzen eta indarkadaren hordikeriara lerratzen da. Atzera behar horretaz seguru ez egonik, gogorrean baiesten du. Besteak komentzitzeko eta erakartzeko ziur ez egotean, zirikatu egiten ditu. Zirikatzaile eta aiherukor batera, oraindaniak erakutsi eta nabarmendu egiten ditu bere desberdintasunak, ahantzia izateari uko egiten dio, eta horrelakorik aipatzen denean sutu egiten da. Beti ere aiherkor, etsai-asmo izkutuak somatu uste ditu solaskidearengan, agerikoak ez direlarik azpikotzat jotzen ditu, eta benetakoak balira bezala erantzuten. Adiskiderik hoberenak neurririk gabeko onespentara behartzen ditu, baita seguru ez den puntuetan beretan edo-ta berak ere gaitzes-ten duen horretan. Horren luzaz kondairak ukatua eta lardazkatua, beti ere zalantzan egoten delako, hertsikiago eskatzen du. Bere buruari zor diona eta eska dezakeena zer diren ez daki, ezta besteek benetan zor diotena eta ordainez eman behar lukeena. Ez du ezagutzen, hitz batez, giza-merkatalgo guztietan behar den neurkin zehatza. Kondairak horren zail jarri dizkion giza-harremanak, horrela, «a priori» zailtzen eta hondatzen ditu. «Ene, ene! —idatzi du beste idazle beltz batek—. Denak daude gaisorik! den-denak!».

### *Norbere buruarekiko arteka*

Horra hor kolonikuntzak eman duen gizonaren tra-  
jeria: batera haren sorkari eta bitima, behin ere ez du  
lortzen bere buruarekin ados jartzea eta egokitzea.

Margotza kolonizatua, esate baterako, bi muturren  
artean kulunkatzen da: Europari buruzko menpekotasun  
osoan batzutan, nortasunik eza dakarrelako txit gehiegiz-  
koa; bestetan, berriz, bere burura biltzen da arrunt, beste  
gehegikeria honek ere kalte ekartzen eta estetikaren al-  
detik lilura-iturri gertatzen zaiolarik. Egia esan: egokikun-  
tza ez da oraindik aurkitu, eta norberaren habe nagusiak  
koloka jartzeko deliberoa aurrera doa. Jazarpenaren aurre-  
tik bezala, jazarpen betean ere, kolonizatuak beti izaten  
du kolonizatzailea begien aurrean: eredu edo ukaburu.  
Haren aurka ari da oraindik. Lehenago bera zenaren eta  
berak izan nahi zuenaren artean agertzen da erdibiturik;  
orain berriz izan nahi zuenaren eta orain bilakatzen ari  
denaren artean dago erdibiturik. Beti beraz bere burua-  
rekiko arteka eta desegokitasun hori tinko.

Kolonizatuaren sendaketa osoa ikusiko bada, beraz,  
haren alienazioaren akabera lortu behar da zeharo: ko-  
lonikuntzaren ezeztapen *osoa* behar da itxaron; alegia,  
jazarraldia bera barne.

Soluziobideak espero ditu orain irakurleak, badakit; diagnostikoaren ondotik sendabidea eskatzen. Hori ez zen, benetan, haserako ene xedea, eta hementxe hetsi behar nukeen neure liburu hau. Ez nuen nik burruka-tresna gisa hau asmatu, ezta soluzio-bilaketa gisa ere: aintzakotzat hartutako karrika edo errekaera baten ondoko gogoetan hozitu eta itsatsi da.

Kolonian bertan Europaren aurpegia arbuizatzen genuen geure arteko askoren ustez, pentsatu ere ez zen egiten orduan Europa arras ukatu eta bazterrera botatzea. Geure eskubideak onar zitzan nahi genuen bakarrik,



guk geuk geure betebeharrak ere onartzeko gertu ginen bezalaxe. Ordaindu ere egina genuen eta, bestalde. Hitz batez, geure egoeraren eta geure harremanen orrazketa, taxuketa edo *konponbide* soil bat desiratzen genuen. Beraz, horretan arrunt mindurik gertatu garelarik, ezarri-*ezarian*, poliki-poliki kausitu dugu esperantza hura lilura hutsa zela. Hastapenetako ene xedea hau zen: koloni-dramaren bi partelianten irudiak, baita lotzen dituen lotura, *osoki eta egiazki* berretzea eta biltzea. Besterik ez.

Iruditzen zitzaidanez, behin ere ez zen erakutsi bi jokabideon *barne-gotortasuna eta mamikuntza*, nola biok elkarri datxezkon, nola biok elkargandik eta elkarrekiko sortzen diren; ezta koloni-lotkiaren barne-gotortasun eta mamikuntza horiek koloni-egoeratik beretik nola jaiotzen diren ere.

Geroago, bidean aurrera abiatua nintzenean, harreman horren *ezinbestetasunaz* jabetu nahiz, berorren hazkunderaren beharraz, bai kolonizatzaileari bai kolonizatuari nahi-ta-ez ematen zizkien aurpegiez. Hitz batez, egoera horren eta bi irudi horien irakurpen osoak eta arretatsuak, ondorio honetara ekarri nau: *ezinezkoa zelako, ez dela konponketa hori gertatu eta obratu*. Egungo kolonikuntzak bere buruan zeraman bere kontra-esana, eta honetxek hilerazi behar zuen goiz edo berant.

Kontuz, gero: ongi uler nazazue. Ez dago horretan *desira* bat, aurkikunde edo *frogaketa* bat baizik. Gaur egun, halere, maizegi nahasi ohi dira bi ideia horiek, eta guztiz kaltegarritzat daukat delako nahasketa. Halaz ere horretxek berezten ditu garbiki pentsamendu zinezko eta objetiboa batetik, eta sendimenduzko aurtikiera edo demagogi-iruzur besterik ez direnak bestetik. Politikalariek gehiegitan egin ohi dituzte horrelakoak; baina, beroien barkazioaren alde mintzatuz, sobera konturatu gabe egin ohi dutela esan dezagun. Noski, politikaren alorrean fatalismorik eta ezinbestekeriarik ez dago: egoera bat zuzendu egin daiteke maiz. Zein heinetan, ordea? Desira horrek mugaketa objetiboa gainditu behar ez lukeen neurrian. Hots, geure azterpide honen urrentzean agertu denez —bi

irudi hauek beren oinarrien egia bildu baldin badute berederen— ezinezkoa da koloni-egoerak irautea, huraxe moldatzea, orraztea edo taxutzea ezinezkoa delako.

Besterik gabe, beraz, hau gertatzen da: argitzapenak oro direla eragile; edozein egia, azken funtsean, balios eta lagungarri gertatzen dela; besterengatik ez bada ere, lilurazioak bazter erazten dituelako. Eta hori gauza nabarmena da. Aski da kolonikuntzari eusteko Europak egiten dituen eginahal etsiak gogoan hartzea; ezen kolonizatuari bezain galesti jotzen baitiete europatarrei berei.

Erants ote niezaioke horri, halaz ere, egiaren latzaz jabetu ondoren, Europaren eta koloni-ohien arteko harremanek bir-aztertuak izan beharko luketela? Koloni-moldeak aldebat utzi ondoren, harreman horiek bizitzeko molde beri bat asmatzea eta aurkitzea denontzako dela inportantea? Europarekin taxukera edo moldabide berri bat aurkitzekotan, aurretik geure burua taxutu behar dugula uste duten horietako bat nauzue ni.

Hori esanda, beti ere irakurleak bi gauza hauek ongi bereztea, ederki eralkitzea nahi nuke: gauza bat dela kolonikuntzaren *giza-kondua* edo giza-balantzea egitea; eta beste bat, kolonikuntzaren azterketaren bitartez, atera uste ditudan *ikaskaiak*. Ni errepikatzen eta ukatzen hasi baino lehenago ni irakur nazatela behin eta berriz eskatu beharko dudala badakit. Eginahal osatzaile bat nahi nuke oraino: aldez aurretik, «a priori», ikertzapen honen kontra gerta dadinak, ez dezala metodologiaren mailako ohar osangarri hori kontutan hartu aurretik joka. Gero ikusiko da, horrela, segidako ondorio hauek ontzat ematea beharrezkoa ote den:

1/ — Azken funtsean, Europatarren eritasun bat dirudi kolonizatzaileak, eta *osoki* sendatua eta zaindua jarri behar dela. Eta, benetan, badago kolonizatzailearen trajeria bat; eta eragabea eta zuzengabea litzateke trajeria hori gutxiestea. Zeren-eta haren sendaketa horrek terapeutika zail eta mingarri batetara behartzen baitu; erauz-

keta bat baitakar, baita gaurko bizimoduaren bir-moldaketa bat. Baina, koloni-aldia luzatzen delarik, beste trajeria bat ere badagoela ez da ikusi izan, nahiz larriago izanik hori.

Nahi-ta-nahiez antzaldatu eta markestu behar zuen kolonikuntzak. Ipintzen zuen hautakizunak maila bereko deskalabro ziren bi soluzioren artean geratzen zen: bere aldeko eguneroko bidegabekeria onartzea, ala bere buruaren ukaera eta sakrifizioa, behin ere ez burutua. Horra kolonizatzailearen egoera: bere egoera onartzen badu, horretxek usteltzen du; eta onartzen ez badu, bere burua ukatzen.

Ezkertar kolonizatzailearen betebeharra, berriz, eutsi-ezina da luzaroan, bizi-ezina; ezin dezakete osa barneko harrek, hildurek eta erdibiketek baizik; eta azkenean luzatu egiten den azpikeriak. Beti-beti tentazioaren eta lotsagorriaren ertzean, eta beti errudun funtsean. Kolonialistak kolonikuntzaz egiten duen azterketa, eta honi dagokion jokabidea, gotorrakoak dira, eta argiago ere bai agian: ezen *honek hain zuzen beti jokatu izan baitu konponbideak oro ezinezkoak balira bezalaxe*. Edozertan amor-emateak arriskutan jartzen zuela antzemanik, kolonikuntza bera zeharo baiestea eta defenditzea erabaki du. Arima saltzea, ordea, zeren truke? Zein abantailek, zein diru-hobarik merezi ote du horrenbestekorik? Laburzki, beraz: kolonizatuari kolonikuntza oso kaltegarri bazaio ere, kolonizatzaileari era berean galgarri baizik ezin dakioke gerta.

Jakina, zilegi da koloni-sistemaren barruan aldakuntza batzuk asmatzea; eta aldakuntza horiek, ondoriorik larrienak baztertuz, kolonizatzailearen abantailak errespetatuko liratekeela pentsa liteke. Ahaztu egiten da, ordea, abantail horietantxe datzala eta finkatzen dela koloni-lotkia berezia. Ez baita hutsune xume bat. Bestela esatekotan: edo koloni-egoerak iraungo, eta hari datxezkon ondorioak ere beren horretan jarraituko; edo-ta hura fundituko eta desegingo, eta orduan bai koloni-lotkia hori eta kolonizatzailea bera harekin batera suntsituko. Bi hautabide gelditzen

dira, beraz: bata errotik gaitzean finkatua, bestea aldiz ongian (uste izan ohi denez bederen): edo kolonizatuaren sarraski osoa eta ezabaera guztizkoa, edo-ta asimilazinoa.

Ez da oso aspaldi Europak kolonizatuaren gizataldea osoki ezteustea eta sarraskitzea ezinezkotzat jo, eta etsi duela. Zirto guztiak bezala, erdi seriotan erdi txantxetan asmatua eta kondatua, bazuen bietarik Aljeriari buruz zabaldu zan honek: «Bederatzi arjeliar baizik ez dago frantses batekiko... Aski litzateke, beraz, frantsesei fusil bana eta bederatzina bala ematea». Amerikatar etsenplua aipatu ohi da. Eta, egia esan, sistemazko sarraskitzarekin antz handia du Far-West-eko nazio-ekintza famatu harek. Baina hauxe erantsi ohi da gero: Erresuma Elkartuetan ez dagoela gaur indio azal-gorrien korapiloric batere. Sarraski osoak, hilkintza guztizkoak, ordea, horren gutxi konpontzen du kolonikuntzaren arazoa, non zehazki haren alderantzizkoa lortzen duela esan baititeke. Edozer baino lehenago eta areago, politikan eta ekonomiaren mailan obratzen den zanpaketa edo ustiakuntza bat da koloni-sistema. Kolonizatua ezeztatuz gero, beraz, beste edozein herrialderen kidea bihurtuko litzateke kolonia, jakina. Nor zapalduko, xukatuko eta uxtiatuko orduan, ordea? *Kolonizatuarekin batera kolonikuntza bera suntsituko litzateke, kolonizatzailea bera barne.*

Asimilazinoaren karrika-eginaz, berriz, ez naiz ni bereziki poztuko. Batez ere konponbide horrek babide dakarrela halako usain fina, unibertsalista eta sozialista batera; eta hori dela-ta, errespetagarri edo agertzen zaigularik. Ez dut esango, bestetik, berez eta definizioz edo ezinezkoa denik: batzutan ongi burutu da kondairan, eta beste batzutan gaizki. Gauza argia da, dena dela, gaur egungo kolonikuntzan inork ez duela hori garbiki opa izan, ezta komunistek berek ere. Aski mintzatua naiz honi buruz. Horrez gain, dena dela, hona hemen gakoa: *asimilazinoa ere kolonikuntzaren ukazioa da; zeren-eta kolonizatzailea eta kolonizatua nahastera baitarama, abantailak ezeztatzen; hau da, koloni-harremanak erauztera eta funditzera.*

Baztarrean utziko ditut sasi-konponbide ttipiak. Bere

buruaz jabetutako koloni askatuan egoteko ideia, gonbarazio batez, baina eskubide bereziak atxikiz. Nork ez du ulertzen, halako moldaketen eragabekeria juridikoaz gain, hori guztia kondairak eta mendeek higatuko dutenik? Ez da oso garbiro ageri abantail zuzengabeon oroitzapen soila zergatik eta nola litzatekeen aski betirako haien iraupena segurtatzeko.

Koloni-sistemaren barruan, azkenekorik, kolonizatzailearentzako salbabiderik ez dagoela dirudi.

Horra hor, beraz, beste arrazoin bat nola-edo-hala bere horretan atxiki diezaion, eta ganbiamendu guztiei ezezkoa traba diezaien: bere burua munstro gisa eman dezake ontzat, egia da, alienazioa bere interesen truke emanetz. Horra, ordea: ezta hori ere. Eritasun probetxagarri horri aldegin nahi badio ere, kondairak debekatuko dio. Zeren-eta, ez dezagun hau ahantz: honek guztiak badauka bigarren alderdi bat. Halako batez, kolonizatuak behartuko du uztera.

2/ — Halako batez, halabeharrez dator kolonizatuak burua altxatzen duen eguna; eta kolonikuntzaren oreka hauskorra hondatu egiten da.

Zeren-eta kolonizatuari buruz ere berdin baita, irtenbide bat baizik ez dago: kolonikuntzaren amai konplutua. Kolonizatuaren arbuioa ezin daiteke *absolutua* baizik izan; alegia, *matxinada* edo *jazarpen* hutsa ez, baina beroien gaidikuntza; *iraultza*, alegia, erreboluzioa.

Jazarpen: kolonizatzailearen izate hutsak zampaketa dakar, eta kolonikuntzaren suntsiera osoak ez bestek ekar dezake kolonizatuaren beregaintasuna. Azken bolara honetan erruz espero izan da erreberrikuntzetatik; burgibismotik, esate baterako. Gaizki ulerturen bat badagoela deritzat. Mailaka joan beharra adierazten baldin badu «burgibismo» horrek, maila honetan edo hartan pausatzea eta kitto ez du sekula proposatu. Gaur egun «Union Française» delakoaz mintzo dira buruzagi beltzak. Urrats bat baizik ez da hori askatasun osorako bidean; eta askatasun oso hori baztertu ezina da. Nahiz Burgibak berak orain leporatu ohi zaion burgibismo delakoan be-

harbada sinetsiko balu, nahiz beharbada Afrika Beltzeko buruzagiek «Union Française»arekiko lotura etengaitzetan sinetsiko balute, kolonikuntzaren ezabatu beharrak baztarrean utziko lituzke hauek eta hura. Hogeita-hamar urtetatik beherakoek ez dute jadanik ulertzen zaharra goen erdibide-zaletasuna eta zuhurtasuna, nahiz hauek errelatiboak izan.

Iraultza: kolonizatua kolonikuntzak ekonomiaren mailan hiltzen duela erreparatu izan da. Izpirituan ere erhaten duela erantsi behar da. Giza-harremanak faltsutzen ditu kolonikuntzak, instituzioak desegiten edo zurruntzen, gizonak (bai kolonizatua bai kolonizatzailea) hondatzen eta usteltzen. Bizi izateko, kolonikuntza ezeztatzeke beharra du kolonizatuak. Baina gizontzeko, gizon bilakatzeko bera gaur bere horretara den kolonizatua behar da deuseztu. Europatarrak bere buruan daraman kolonizatzailea deuseztu behar duen bezala, kolonizatuak bere buruan daraman kolonizatuari behar zaio nagusitu.

Kolonikuntzaren ezeztapena, haren librakuntza osoaren hitzaurrea baizik ez da; bere buruaren bir-erosketaren lehenengo urratsa, alegia. Kolonikuntzatik askatzeko, bere zampaketatik beretik abiatu behar izan du, bere gizataldearen gabezietatik. Bere librakuntza guztizkoa izan dadin, bere baldintzaile horretatik askatu behar du aurrenik, nahiz horiek nahi-ta-ezkoak izan berak daraman burrukaldian.

Abertzalea denez, eta bere Aberriaren pizkundera eta dinatasuna lortzeko abertzale gisa behar zuen burukatu, bere burua beharko du libro irabazi aberri horren arabera. Jakina, abertzale agertzea erabaki dezake gero ere, naziozale alegia. Baina libro izan behar du hautaketa hori egitean, eta ez nazioaren izateak berak bortxatua edo baldindua. Gauza bera erlijioari buruz: bere taldearen erlijioaren aldetik libro atxiki beharko du bere burua; eta erlijioari atxikitzeke edo aldegiteko erabakia hartzerakoan, bere esku egon, eta ez erlijioaren morroin huts agertu, bere izanean bertan erlijio horrek zertua eta ho-

rretaratua. Gauza bera iraganari buruz, tradizinoari buruz, etnitasunari buruz, eta abar.

Hitz batez, kolonizatzaileen moldeen bitartez bere burua neurtzeari utzi behar dio. Gauza berbera ez-tasunean ezagutarazten duten arazoen alorrean. Esate baterako, Ekalde-Mendebalde aurkatasun zentzugabe eta famatuari dagokionez; alegia, kolonizatzaileak hanpatu eta gogortu duen aurkatasunaz, beraren eta kolonizatzailearen artean modu horretara betirako harresi bat eraiki uste zuela. Zer da, izan, Ekalderako bihurketa hori? Zanaketak Inglaterraren edo Frantziaren aurpegia hartu badu ere, teknika eta kulturaren jabekundeak eta ikasiak herri guztien ondasuna dira. Zientzia ez da men-debaldetarra, eta ez ekaldetarra; ezta burgesa eta ez langilea ere. Betoia isurtzeko bi modu baizik ez dago: egokia eta desegokia.

Zer bilakatuko da? Kolonizatua zer da, hortaz?

Nik neuk izaera metafisikotan ez dut sinesten, ezta aiurritzko edo sorkurazko izaera aldagaitzetan ere. Gaur egun azaldu egin daiteke kolonizatua, erakutsi; eta ni neu ere modu zehatzez pairatzen, irizten eta jokutzen duela erakusten saiatu naiz. Barneko eta kanpoko zapalkuntzaz eta gabeziak osatutako izaki hori izateari aldegiten badio, kolonizatu izateari ere utziko dio, eta *bestelako* bilakatuko da. Noski, geografi-oinarri aldagaitzik ere badago, eta tradizinoari ere bai. Baina baliteke orduan aljeriar bat eta Marseillar baten artean, aljeriar bat eta yemendar baten artean baino desberdintasun apurragoa izatea.

Kolonizatu-ohiak bere izari guztiak berriro bildurik, gainerako gizon-emakumeak bezalakoxea bihurtu dateke orduan. Gizakumeari dagozkion zorion eta zorigaitz guztiez oratua, jakina; baina azkenik gizon, eta bere buaruaren jabe.

Tunizia-Parise, 1955-1956

# Hiztegia

- ABANTAILATU, privilegiado, privilégié.  
ABERASKERIA, opulencia, opulence.  
ADIERAZKI, expresión, expression.  
ADISKIDEKERIA, complicidad, complicité.  
AHANZKETA, amnesia, amnésie.  
AISERIA, situación fácil, aisance.  
AITAKOI, paternalista, paternaliste.  
ALOKAIRU, sueldo, appointment.  
ANAIKUNTZA, asimilación, assimilation.  
ANITZ(A), plural, pluriel.  
ASKAKUNTZA, proceso de liberación, libération.  
AURKALDI, período de confrontación, période de confrontation.  
AURKARI, opuesto, opposé.  
AURKEZKUNTZA, presentación, présentation.  
AZPI-GIZATASUN, infra-humanidad, sous-humanité.



- AZPI-GIZON, infra-hombre, sous-homme.  
 AZPI-PROLETARGO, sub-proletariado, sous-prolétariat.  
 BAHITURA, préstamo, prêt.  
 BAIESPEN, afirmación, affirmation.  
 BAIKOR, afirmativo, affirmatif.  
 BAKUNTASUN, unicidad, unicité.  
 BALDIN-HESI, condicionamiento, conditionnement.  
 BALDINKERA, tipo de condicionamiento, type de mise en condition.  
 BALIAKIN, producto, produit.  
 BALIOGABEKUNTZA, desvalorización, dévalorisation.  
 BARNEKUNTZA, interiorización, intériorisation.  
 BARNETASUN, interioridad, intériorité.  
 BATERATASUN, unanimidad, unanimité.  
 BAZTERKERIA, segregación, ségrégation.  
 BEDERAZKAKO, individual, individuel.  
 BERARIAZKO, intencionado, voulu.  
 BERDINKETA, igualdad, égalisation.  
 BEREZKUNTZA, secesión, sécession.  
 BERNUZATU, grabar, graver.  
 BERRIKUNTZA, renovación, innovation.  
 BILAKABIDE, proceso evolutivo, évolution.  
 BILAKAERA, evolución, évolution.  
 BILAKARAZI, transformar, transformer.  
 BIMINTZAIRATASUN, bilingüismo, bilinguisme.  
 BIRRERAIKI, reconstruir, reconstruire.  
 BIRREROSI, recuperar, récupérer.  
 BRANKA-GIZON, picnero, pionnier.  
 DESARRAZAZKO, no racial, non racial.  
 DESBIDE, ilegitimidad, illégitimité.  
 DESEGINTZA, destrucción, destruction.  
 DESGOGO, malestar, malaise.  
 DESGIZAKUNTZA, deshumanización, déshumanisation.  
 DESGIZATARTU, deshumanizar, déshumaniser.  
 DESGIZATU, deshumanizar, déshumaniser.  
 DESHERRI, destierro, exil.  
 DESKOLONIKUNTZA, descolonización, décolonisation.  
 DESNORKETA, despersonalización, dépersonalisation.

- EGITURA, estructura, structure.
- EGOKIKUNTZA, adaptación, adaptation.
- EKAI, materia prima, matière première.
- EKILE, protagonista, protagoniste.
- ELKAR-OSAKUNTZA, complementariedad, complémentarité.
- ELKARREKIKOTASUN, reciprocidad, réciprocité.
- EMENDIO, incremento, accroissement.
- ERAGINGU, punto de aplicación, point d'application.
- ERAGOZKARRI, objeción, objection.
- ER(H)AN, matar, tuer.
- ERANTZUKIZUN, responsabilidad, responsabilité.
- ERASKETA, yuxtaposición, juxtaposition.
- ERDAINU, desprecio, mépris.
- ERDIBIKERIA, ambigüedad culpable, ambiguïté coupable.
- ERDIBIKETA, bipartición, déchirement.
- ERREZELAGARRI, sospechoso, suspect.
- ERROMESTASUN, pobreza, pauvreté.
- ERRONKARI, provocador, provocateur.
- ERRUTASUN, culpabilidad, culpabilité.
- ESAKUN, frase, phrase.
- ESKUAR, corriente, courant.
- ETORLE, inmigrante, immigrant.
- ETSIKERA, tipo de decepción, type de déception.
- EUSKARRI, fundamento, fondement.
- EZAGUGARRI, retrato, portrait.
- EZ-BAI, ambiguo, ambigu.
- EZESPEN, negación, négation.
- EZINBESTETASUN, fatalidad, fatalité.
- EZINTASUN, impotencia, impuissance.
- EZKOR, negativo, négatif.
- EZPAITASUN, ambigüedad, ambiguïté.
- EZUSTE, imprevisto, imprévu.
- FUNTZIOLARI, funcionario, fonctionnaire.
- GABETU, privar, priver.
- GAINDIKIZUN, dificultad a superar, difficulté à dépasser.
- GAINDITU, superar, dépasser.
- GAUZAZKO, objetivo, objectif.
- GEHIENGO, mayoría, majorité.

- GERIZABIDEZKO, defensivo, défensif.
- GEZURTARAKETA, mistificación, mystification.
- GIZA-BALDINTZA, condición humana, condition humaine.
- GIZABANAKO, individuo, individu.
- GIZARTEKERA, tipo de sociedad, type de société.
- GIZARTEKUNTZA, integración social, intégration sociale.
- GIZAUREN, héroe, héros.
- GOBERNAKUNTZA, gestión, gestion.
- GRADO, nivel, niveau.
- GUDAKETA, combate, combat.
- GURUTZATU, mixto, mixte.
- GUTXIENGO, minoría, minorité.
- HANDIKUNTZA, progresión, progression.
- HARRIKUNTZA, petrificación, pétrification.
- HAUTAKIZUN, elección, choix.
- HEDAKUNDE, extensión, extension.
- HIGAKETA, desgaste, usure.
- HIRIGINTZA, urbanización, urbanisation.
- HIRITARKUNTZA, ciudadanía (proceso), citoyenneté (procès).
- HISLATU, perfilar, profiler.
- HOBARI, ventaja, avantage.
- IBILBIDE, itinerario, itinéraire.
- IDAROKI, sugerir, suggérer.
- IDEIAKUNTZA, idealización, idéalisation.
- IDURIBIDE, caracterización, caractérisation.
- IKERTZAPEN, investigación, recherche.
- INDAR-OHOINTZA, usurpación, usurpation.
- INKANTE, subasta, surenchère.
- IRABAZKIN, beneficio, profit.
- IRAGARKIN, anuncio, annonce.
- IRUZURBIDE, trampa, piège.
- ITXURAKERIA, formalismo, formalisme.
- ITXURALDATU, transformarse de aspecto, se transformer  
apparamment.
- JAIOTZ-EMENDIO, índice de natalidad, taux de natalité.
- JENDAKETA, población, population.
- KALTEAR, víctima, victime.
- KANPOTASUN, exterioridad, extériorité.

- KETA, cantidad numérica, quantité numérique.  
 KIDEKERIA, complicidad, complicité.  
 KOLONIGARRITASUN, colonizabilidad, colonisabilité.  
 KOLONI-GIZON, colono, colonial.  
 KOLONIKUNTZA, colonización, colonisation.  
 KOLONIZATZAILE, colonizador, colonisateur.  
 KONDAIRALARI, historiador, historien.  
 KONTRAESAN, contradicción, contradiction.  
 KONTSULARITZA, consulado, consulat.  
 KURRITU, recorrer, parcourir.  
 LARDERIKOI, autoritario, autoritaire (dictatorial, dictatorial).  
 LARREGIKO, excesivo, excessif.  
 LEHERKOR, explosivo, explosif.  
 LERRAKUNTZA, desviación, déviation.  
 LIZIFRINA, disciplina, discipline.  
 MAMIKUNTZA, concretización, génèse.  
 MARKETS, disforme, déforme.  
 MENPEKOTASUN, dependencia, dépendence.  
 MENTURAZALE, aventurero, aventurier.  
 MINERALDU, mineralizarse, minéraliser.  
 MIRESPEN, admiración, admiration.  
 MITOGINTZA, mistificación, mystification.  
 MOMIKUNTZA, momificación, momification.  
 MUKURRU, pletórico, plein jusqu'au bout.  
 MULTZOZKO, colectivo, collectif.  
 NAGUSIKUNTZA, promoción, promotion.  
 NOLATASUN, cualidad, qualité.  
 NOR-BURU, protagonista, protagoniste.  
 NORKI, personaje, personnage.  
 -OHI, ex-, ex-.  
 OLDARTASUN, combatividad, combativité.  
 ORDAINKETA, compensación, compensation.  
 ORDAINKIZUN, precio, prix.  
 ORE-ARTE, arte plástica, art plastique.  
 OROKOI, totalitario, totalitaire.  
 OROKORTASUN, globalidad, globalité.  
 PATU, destino, destinée.  
 PETZERO, víctima, victime.

- PISUKERIA, pesadez, lourdeur.  
 SARRASKI, matanza, tuerie.  
 SINESKUNTZA, persuasión, persuasion.  
 TIRADURA, tensión, tension.  
 TOLESGABE, ingenuo, naïf.  
 UKAKORTASUN, negatividad, négativité.  
 ULERKERA, interpretación, interprétation.  
 ULERKUNTZA, comprensión, ulerkuntza.  
 UMANT, héroe, héros.  
 UXTIKUNTZA, explotación, exploitation.  
 UXTIATU, explotar, exploiter.  
 XARNEGU, mestizo, métis.  
 XEHAKETA, opresión total, oppression totale.  
 ZAKAR-HODIA, cloaca, égoût.  
 ZAPALKUNTZA, opresión, oppression.  
 ZERGA-TTIPIERA, reducción de impuestos, dégrèvement.  
 ZIPLOZKO, espontáneo, spontané.  
 ZUINKETA, trazado, tracé (topogr.).  
 ZUZENETSI, justificar, justifier.  
 ZURRUNKERIA, esclerosis, sclérose.